

Goienkaria

2008ko urtarrilaren 18a > Egubakoitza > VIII. urtea > 316. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Edozeinek har dezake edozein erabaki, soilik norberari eraginez gero"

Koldo Martinez
Medikua eta bioetikoa > 09



ARRASATE

EAJk ibilbide historikoak berreskuratzea eskatu du > 19

BERGARA

Martzial Agirre eskultorearen monografia kaleratuko dute > 24

ESKORIATZA

Etorkinei harrera egiteko ongietorri gida kaleratu dute > 34

ARAMAIO

AHTk auzoetan sor ditzakeen kalteak gutxitzeko taldea sortu dute > 38

ENERGIA > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Bultzada jaso dute azkenaldian energia berriztagarriek gurean

EGUZKI PLAKAK Legeak hala aginduta, eraikin publikoetan eguzki plakak jartzen hasi dira Udalak

KONTSUMOA Argiteria publikoaren kontsumoa txikitzeko neurriak hartzen dituzte ibarreko udal gehienek

PARTIKULARRAK Dedukzio fiskalak direla eta, enpresak ere eguzki plakak jartzen ari dira; baita baserrietan ere > 02-03

AZPIEGITURAK > AHT

AHTren gaineko batzarra

Debagoieneko kaltetu guztiak deitu dituzte, bihar, Arrasateko batzar informatibora > 06

G2a

Oñatiko nagusiak egutegi bateko protagonista

Oñatin arrakasta handia izan du Imanol Bikuñaren Zolarri Igeltseritza lantegiak argitaratu duen 2008ko egutegiak. Argazkiak Josu Garaik egin ditu eta maketazio lanak berriz, Jabi Erostarbek. Motz geratu dira enpresako bezero eta lagunen artean banatu dituzten 250 aleak.

Egutegiko protagonistak herriko nagusiak dira; horien artean: Bittori Anduaga, Inazio Maiztegi, Inazio Bikuña eta Amalia Iturralde, Luis Biain, Luis Igartua, Kontxes Lazkano, Felipe Gorosmendi, Teofilo Etxegoien eta Modesto Zilaurren daude. > 43-44



MARGARITA ITURMENDI 'NAPARRENA' Egutegiko protagonistetako bat da Margarita Iturmendi; 95 urte ditu.

JOSU GARAI

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

GIZARTEA > BIZTANLERIA

Biztanleriak gora egin du bailaran

Iaz 120 laguneko hazkundera izan zen; Bergara, Arrasate eta Aramaio izan ziren biztanleak galdu zituzten bakarrak > 04

HEZKUNTZA > MU

Olanok MUko fakultateak bisitatu ditu

Markel Olano diputatu nagusiak eta Josu Zabala MUko errektoreak bi aldean arteko elkarlana berretsi dute > 05

Tiguan berria



Erosketa malgua

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



ENERGIA BERRIZTAGARRIAK > UDAL, ENPRESA ETA HERRITARREN APUSTUA

Energia sortzeko proiektuak ugaritu egin dira azkenaldian Debagoiengan

UDAL GEHIENEK Leintz Gatzagan izan ezik, gainontzeko beste udal guztiek energia berriztagarrien gaineko egitasmoak dituzte esku artean

EGUZKI PLAKAK Energia berriztagarriak gogor sartu dira; eguzki plaka termikoak eta fotovoltaikoak jarri dira eraikin publiko, enpresa eta baserrietan

OÑATI ETA ESKORIATZA Oñatin ur-jauziez baliatzen dira aspalditik energia sortzeko eta Eskoriatzan energiaren gaineko azterketa sakona egiten ari dira

MIRIAN BITERI > BERGARA

Debagoieneko jardura ekonomikoak eta sozialak energia handia eskatzen dute. Horretaz oharturik, energia sortzeko nahiz aurrezteko ekimenak ugaritu egin dira gurean. Energia berriztagarrien aldeko apustua egin da azkenaldian, baita gurean ere. Hain zuzen, udalak gogor dabilza horretan lan egiten.

Arrasaten, esaterako, hainbat ekimen bultzatzen ari dira. Udalak kontsumo energetikoen kontrola eta jarraipen informatikoa egiten du, eta erosten diren ekipo informatikoak, inprimagailuak eta kopiagailuak energetikoki eraginkorrak dira.

Udal instalazioetako eta argiteria publikoko luminarietan kontsumo txikiko bonbillak jartzten ari dira. Gabonetako argiak ere kontsumo txikikoak izan dira. LED sistemadun semaforoak ere jartzten ari dira apurka eta ikastetxe eta udal eraikinetan plaka fotovoltaikoak instalatzen ari dira. Joan zen urtean, eguzki plakak arautzen dituen ordenantza berria onartu zen.

Horrez gain, 2006an, udal argiterian energia aurrezteko erregulazioak erabilerarako irizpideen azterketa egin zuen Udalak, Mondragon Unibertsitatearekin

elkarlanean. Orain arte azaldutako ekimenak adibide batzuk baino ez dira.

Bergaran ere, Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) sinatutako hitzarmen baten bidez, hiru eraikin publikotan jarri dituzte azkenaldian eguzki plakak: Mizpirualde egoitzan, San Martin eskolan eta Labegaraierako kiroldegian. Horrez gain, Agorrosingo kirolguneak ere plaka fotovoltaikoak ditu; eraikina egin zenean jarri ziren.

KONTSUMOEN JARRAIPENA, EEE-K EEE arduratzen da eraikin horietako kontsumoen jarraipena egiteaz. Bergarako Udalak jakinarazi duenez, "hitzarmenak amortizazio epe bat aurreikusten du. Lehen 10-12 urteetan hark egiten du jarraipena eta egon daitezkeen etekinak ere jasotzen ditu. Hortik aurrera, guk hartuko dugu horren kontrola".

Horrez gain, Europako programa batean sartuta dago Bergarako Udala. Euskal Autonomia Erkidegoan lau udal baino ez daude horretan sartuta. Hala, Mizpirualdeko egoitzako, Udaleko egoitza nagusiko eta kiroldegiko energia kontsumoa %15 txikitzea aurreikusten du. "Sentsibilizazio kanpaina bat da", dio.

Energiaren Euskal Erakundeak udal eraikinetako kontsumoen jarraipena egiten du lehenengo urteetan; eta egon daitezkeen etekinak ere berarendako dira

Joan zen urtean onartu zen Arrasateko Udalak eguzki plaka termikoak eta fotovoltaikoak arautzen dituen ordenantza berria

Aretxabaletako Udalak, berriz, bi arlotan jarduten du: batetik, argiztapen publikoa eraldatu du, argiak eta lanparak aldatuta. Horrela, energia aurreztu eta kutsadura akustikoa txikitu gura dute. Bestetik, udalerriko promozio publikoetan eguzki plakak jarriko dituzte, legeak hala aginduta. Orain kiroldegi berriko proiektua idazten ari dira eta hori aztertzen ari da Udala.

ESKORIATZAN, AZTERKETA

Eskoriatzan ere jo eta su dabil Udala lanean. Hango alkate Pedro Lasagabasterrek orain arte egin dakoaz eta hemendik aurrera egin gura denaz hitz egin du. Energia aurrezteko gaia "serio" hartu beharra dagoela eta horretarako "administrazioek eredu eman behar dutela" dio. Hain zuzen ere, Udaleko gidaritza hartzean, EEEekin energia berriztagarriak bultzatzeko hitzarmena sinatu zuen.

Eraikin publikoen kontsumoa aztertzen ari dira, kontsumoak txikitu eta energia berriztagarrien potentziala aztertzeke asmoz. Luis Ezeiza ikastetxean jarriko dituzte lehenengo eguzki plakak, baina teknikariek ez dakite horiek termikoak edo fotovoltaikoak izango diren. Alegia,



EGUZKI PLAKAK Bergarako Agorrosin kirol gunean,

berogailurako bakarrik balioko duten edo energia egitea ere ahalbideratuko duten.

Beste energia mota batzuen gaineko azterketa ere egingo dute aurrerantzean Eskoriatzan, hala nola geotermikoa, hidraulikoa eta eolikoa, lurra ematen duen energia aprobetxatzeko: "Aukera guztiak aztertu eta aprobetxatu behar dira, eta gaia seriotasunez hartu behar dugu", dio Lasagabasterrek.

2006ko instalazio eta produkzio kopurua, Debagoiengan

	E. TERMIKOA	E. FOTOVOLTAIKOA	E. MINIHIDRAULIKOA	E. EOLIKOA	URTEKO PRODUKZIOA
Arrasate	3	17	-	1	121.992 kWh
Bergara	6	3	-	-	30.129 kWh
Oñati	2	26	3	2	70.075 kWh
Aretxabaleta	-	12	1	1	6.078 kWh
Eskoriatza	2	14	-	2	7.804 kWh
Antzuola	1	-	-	-	3.855 kWh
Elgeta	-	2	-	-	12.660 kWh
Leintz Gatzaga	1	2	-	-	10.659 kWh

ITURRIA: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Oñatik energiaren %80 ekoitzen du

Oñatiko kasua berezia da. Udalak Olate, Lamiategi eta Tokilloko ur-jauzietako azpiegitura erosi zion Union Cerrajerari 1989an. Horretarako, 850 milioi pezetako mailegua eskatu zuen. Amaitu berri du mailegu hori ordaintzen eta aurrerantzean, hor sortutako argindarraren produkzio eta salmentari esker urtero 450.000 euroko diru-sarrera izango du Udalak.

Oñatiko Ur Jauziak elkarrekin 14 milioi kilowatt ekoitzen ditu urtero. Energia hori Udalaren enpresa publiko Oñargiri saltzen dio. Herrian argindarra banatzen du. Hirigintza arduradun Angel Iturbek hauxe dio: "Industria kenduta, herrigunerako behar den energiaren %80 guk ekoitzen dugu". Baina energia aurreztu beharra dago; hala, argiztapen publikoa aldatu eta eraikin publiko guztietan eguzki plakak jarriko dituzte.



Markiegi autoetan eta San Martin ikastetxean eguzki plaka termikoak eta fotovoltaikoak jarrita daude dagoeneko.

M.B.

Antzuolan, berriz, argiteria publikoaren kontsumoa txikitu egin du azkenaldian Udalak; izan ere, kaleko argien tentsioa txikitu egiten du gauerdian. Horrez gain, farolen herena itzali egiten dute ordu berean. Hala ere, lanak direla-eta, orain ez da horrelakorik egiten. Azkenik, Sagastiko eraikin berriaren plaka termikoak jarri dituzte.

Elgetan, bestalde, eskolako teulatuan baino ez dira jarri orain arte eguzki plakak. Termikoak dira horiek. Hori eraikin publikoetarako dagokionez. Izan ere, hiru baserri-tan ere instalatu izan dira-eta. Hilerrri ondoan dagoen Barrutia baserriaren fotovoltaikoak jarrita dituzte dagoeneko eta orain Udalen baimenaren zain daude. Bost kilowatteko plakak jarri dituzte

lurrean. Azkenik, Leintz Gatzaga-ko Udalak, hasiera baten, ez du inongo ekimenik martxan jartzeko asmorik.

Debagoieneko Mankomunitateari dagokionez, haren eraikin berriaren plaka termikoak eta fotovoltaikoak jarriko dituztela jakinarazi dute Ingurumen Departamentutik. Borondaterik ez da falta, behintzat, gurean.

Haritz Etxaniz > Alet Taldeko arduraduna "Ibarreko udaletako ordenantzak samurragoak izan beharko lukete"

GOIENKARIA > HERRIA

Hiru urte daramatza Alet Taldeko arduradun Haritz Etxanizek energia berriztagarriak instalatzen. Horretaz egin dugu berba harekin.

Energia berriztagarriekin lan egiten duzue. Nola animatu zineten mundu horretan sartzera?

Enpresa sortu zen orain dela ia hiru urte. 2005eko martxoan jarri genuen martxan. Inguruan energia berriztagarrietan lan egiten zuten enpresa asko ez zeudela ikusi genuen. Gure inguruan horiek pisua izan behar dutela uste genuen, eta horregatik animatu ginen energia berriztagarriak instalatzen dituen enpresa eratzera.

Zer-nolako energia motarekin egiten duzue lan?

Bereziki eguzki energia termiko, fotovoltaiko eta geotermikoarekin egin dugu lan.

Hiru horien artean zein da eragin-korrena?

Bakoitzak bere erabilpena dauka, eta, beraz, bakoitza eraginkorra da bere erabilpenarako. Ezberdinak dira eta ezin dira bata bestearekin alderatu. Eguzki energia fotovoltaikoak balio du argindarra sortzeko. Horrek bi erabilpen ditu: norberak kontsumitzeko eta saltzeko. Termikoaren bidez, ura berotzen da, eta, beraz, beste teknologia bat da. Geotermiak luraren beroa aprobetxatzen du ura berotzeko. Lurrari beroa hartzen zaio eta horrekin ur beroa eta berogailua lortzen dugu.

Eguzki plakek gauean energia sortzeko gaitasuna omen dute...

Hala da. Baina oraindik ez daude oso garatuta. Gauean beroa hartzeko gaitasuna dute, ura berotuta. Hazea eta ihintza bero bihurtzen dute. Izotzak ere balio du horretarako.

Nola da posible hori?

Eguzki plakak esatea ez da zuzena. Horrela deitzen bazaie ere, termino hori gaizki erabilia dago, iruzurtia da. Plakak ez dute eguzkiarekin funtzionatzen. Eguzkiaren bitartez bero gehiago harrapatzen dute, baina hori barik ere funtzionatzen dute.

Zer onura dituzte gainontzeko energia motekin alderatuz?

Eguzki energia termikoak eta fotovoltaikoak ez dute kutsatzen, ez dute



GOIENKARIA

kerik botatzen. Horregatik izango ez balitz, ezin izango lukete energia arruntekin lehiatu. Horiek ez dute kutsatzen. Klima aldaketa hor dago, eta guztiok jarri behar dugu zerbait.

Energia berriztagarriak gero eta ugariagoak dira gurean...

Hala da. Eraikin publikoetan jartzen ari dira udalak eta ikastetxeak, Energiaren Euskal Erakundearen bidez. Eta enpresetan gero eta instalazio gehiago jartzen ari dira. Dedukzio fiskalak dituzte horren aldeko apustua egiten dutenek. Bergaran, esaterako, Metalsan, Metagan, Markiegi autoetan eta K3 inprimategian jarri ditugu. Horrez gain, baserrietatik bizi direnak ere animatzen ari dira apurka. Inbertsio polita da gaur egun hori.

Administrazioek nahikoa egiten dutela uste al duzue?

Ondo dago eraikin publikoetan horrelako instalazioak jartzea, baina gero ez diete erraztasun askorik ematen herritarrei. Udal bakoitzak modu batean kudeatzen du gaia eta ordenantzetan, askotan, oztopo asko azaltzen dira. Herri batzuetan, adibidez, ezin dira eguzki plakak lurrean jarri. Ordenantzak samurragoak izan beharko lukete.

"Klima aldaketa ere hor dago, eta guztiok jarri behar dugu zerbait"

"Baserrietatik bizi direnak ere animatzen ari dira apurka; gaur egun inbertsio polita da"

ARAMAION, BI ENERGIA MOTA

Aramaion ere energia aurrezteko hainbat proiektu daude. Ur-biltegi-tan eguzki plakak jartzeko asmoa du Udalak, baina horrekin energia askorik ez denez lortzen, uraren indarra ere aprobetxatu gura du. Orain ibaien emariak aztertzen ari dira. Oletan, esaterako, eguzki plaka bat jarrita dago ur-biltegi-tan: euri asko egiten duenean nahiko zikin etortzen da ura eta horrek sortzen duen energia ez da nahikoa ur hori garbitzeko.

Horrez gain, frontoian, herri ikastetxean eta kultura etxean plaka termikoak jartzea aurreikusten du Udalak.

GOBE

ETXE-ALDAKETAK

Etxe-aldaketa osoak

Altzariak eta materiala igotzeko karga-jasogailu alokairua gidariarekin.

Enpresa eta partikularrentzat

Tel.: 695 71 05 61
www.gorabera.com

SSANGYONG RODIUS BERRIA

22.900 €-tik aurrera



MONOBOLUMENA 7 ESERLEKU
ETA MALETATEGI IZUGARRIA

MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN
270 XDI 165 ZP



SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

BIZTANLERIA > AZKEN URTEETAKO MUGIMENDUAK

Gipuzkoako joerari eutsiz, ibarreko biztanle kopuruak gora egin du

Arrasate, Bergara eta Aramaio dira azken urtean behera egin duten herri bakarrak

Etorkinek biztanle kopurua mantentzea ahalbidetu dute hainbat herritan

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Azken urteotako datuei begira jarrita, Gipuzkoako biztanleriak gora egin du. Gure herrietan ere, orokorrean, tendentzia bera izan da. Debagoiengan, 2006an baino 120 pertsona gehiago zeuden erroldatuta 2007an. Baina mugimenduei dagokienez desberdintasunak daude herrien artean. Esaterako, Arrasatek, Bergarak eta Aramaio biztanle kopuruan behera egin duten moduan beste herriek gora egin dute.

2006arekin alderatuta 194 pertsona gutxiago bizi dira Arrasaten. Ino Galparsoro Arrasateko alkateak aditzera emandakoaren arabera, arrazoiak, azken urteetan moduan, ekonomia kon-

Biztanleria datuak, herririk herri				
HERRIAK	2006	2007	DIFERENTZIA	%
Arrasate	22.312	22.118	-194	-0,86
Bergara	14.834	14.823	-11	-0,07
Oñati	10.753	10.828	75	0,7%
Aretxabaleta	6.573	6.657	84	1,27%
Eskoriatza	3.956	4.078	122	3,08%
Antzuola	2.121	2.161	40	1,88%
Aramaio	1.546	1.528	-18	-1,16%
Elgeta	1.051	1.060	9	0,85%
Leintz Gatzaga	250	263	13	5,2%
Debagoiena	63.396	63.516	120	0,19%

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK

tuekin daude lotuta: "Arrasaten jende dezente dago bigarren etxebizitza erosten duena, eta desgraziaz fiskalak direla medio, etxe hori erosi duten lekuan erroldatzen dira".

ETXE MERKEAGOEN BILA

Hain zuzen, beste etxe bat erosi duten herrian erroldatu dira hainbat lagun; baina etxebizitzarekin lotuta beste joera bat ere badago: gazteak etxe merkeagoak dauden herrietara mugitzen dira: "Inguruan edo ez oso urru-

ti egon daitezke etxebizitza ez horren garestiak, eta horregatik ere joaten dira kanpora, beste batzuk", gaineratu du alkateak.

Joera horren ondorioz, Aretxabaletak, Elgetak, Eskoriatzak eta Antzuolak biztanlerian gora egin dute. Antzuolako Udaleko Mari Jose Garitanok esan digu azken urteotan Buztinzurin eta Sagastin egin diren etxeetara inguruko herrietako jende asko joan dela bizi izatera: "Orain dela lau urte 2.000 biztanle baino gutxiago ginen Antzuolan, eta,

gerora, kopuru hori nabarmen igo da. Hala, Antzuolak 2.072 biztanle zituen 2006. urte hasieran, 2.121 biztanle 2007. urtean eta aurtengo datuen arabera, datu ofiziala ez bada ere, oraingoz, 2.161 biztanle ditu Antzuolak".

Aretxabaletak ere joera bera izan du. Udaleko arduradunek hauxe esan dute: "Aretxabaletan egin diren etxe berriak direla-eta gazte asko etorri da bizi izatera. Hala, gazte hauek haurrak izan dituzte eta horrek eragina izan du biztanle kopuruan":

Jaiotza asko egon den beste herri bat Gatzaga da: "Aurten, iaz baino 13 pertsona gehiago daude erroldatuta Gatzagan; arrazoiak, gure ustez, jaiotzak eta etorkinak izan dira", adierazi dute Gatzagako Udaletik.

ETORKINEN BEHARRA

Bergararen kasuan, 2007an 2006an baino 11 biztanle gutxiago zituen herriak. Azken urteetan biztanleriak behera egiteko joera izan duen arren, maila mantentzea lortu da, etorkinengatik batez ere.

"Esan daiteke etorkinei esker mantentzen dela Bergarako biztanle kopurua. Hala, 2006an 615 etorkin erroldatu ziren Bergaran eta 2007an, berriz, 749", esan dute Bergarako Udaletik. Etorkin gehiago egon arren, biztanleriak behera zergatik egin duen jakitea zaila dela gaineratu dute. Oñatin 84 etorkin erroldatu ziren 2007an; hala, etorkinak dira biztanleria kopurua gora egitea ahalbidertu dutenak.

Gipuzkoan migrazioak herrien artean gertatzen dira; hau da, jendea herriz aldatzen da, baina ez probintziaz. Horri etorkinak gehituz, nabarmen egin du gora biztanleriak Gipuzkoan; azken urtean, % 0,44.

ZERBITZUAK > GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

2008ko merkataritza gidak banatzen hasi da Goiena taldea aste honetan

Hiru gida banatuko dituzte ohi bezala: 'Gida Arrasate', 'Gida Bergara' eta 'Gida Oñati'

Banaketak egun ezberdinetan egingo dira eta guztira 21.500 alekoa izango da tirada

JASONE ZABALA > BERGARA

Urtero egiten den moduan, aurten ere gida banatuko du Goienak. Guztira hiru gida izango dira. Lehena *Gida Arrasate* izango da; Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaio datuekin osatuta dago eta bost herri horietan banatuko dute. Tirada 11.500 alekoa izango da. Bigarrena *Gida Bergara* da; bertan, Bergara, Antzuola eta Elgetako datuak joango dira eta hiru herri horietan banatuko dute. Tirada 6.800 alekoa izango da. Hirugarrena *Gida Oñati* da; bertan, Oñatiko datuak azalduko dira, eta Oñatin bana-

tuko dute. Tirada 3.200 alekoa izango da. Gida horiek egubakitze GOIENKARIAko harpidetuekin jasoko dute eta baita bertan publikitate egiten duten komertzioek eta negozioek ere.

Bergarako eta Oñatiko gidak banatzen pasa den martitzenean hasi ziren. Antzuolan atzo, eguena, hasi ziren banatzen eta Elgetan gaur hasi dira. Arrasateko gida, berriz, hamabost egun barru hasiko dira banatzen. Esan behar da gida guztiak banatzeko hamar egun behar izango dituztela, zehaztutako egunetarik hasita. Hiru gidetan, aipatutako herri guztietako komertzio,

enpresa, taberna, eta abarren telefonoak agertzen dira. Horiek era egokian topatzeko aurkibide bat dago, alfabetikoki ordenatutako aurkibide batekin. Gida guztiek, gainera, azkeneko atalean, ondorengo informazio osagarria dakarte: merkataritza sektoreko informazio orokorra, guardiako farmazien egutegia, garbiguneen ordutegia, hiri hondakinen bilketa egunak, administrazioaren gaineko informazioa eta Eusko Jaurlaritzako intereseko telefonoak.

JENDE ASKOREN LANA

Gida egiteko prozesua uztailean hasi zuten eta guztira 20 lagunek hartu dute parte hura egiten.

Edozelan ere, harpidedun izanda gidarik jasotzen ez duenak helbide honetara idatz dezake ale bat eskatzeko: *harpidetza@goiena.com*. Edota telefono honetara deitu: 943 25 05 05; baita harpidedun nahi izanez gero.



2008KO GIDA Horiek izango dira aurtengo hiru gidetako azalak.



PRENTSAURREKOA Ino Galparsoro, Josu Zabala, Markel Olano eta Jose Ramon Guridi, eguazteneko prentsaurrekoan.

HEZKUNTZA > DIPUTATU NAGUSIA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta MUK elkarlanean jarraituko dute

Markel Olanok erronka berriei aurre egitea proposatu zuen Arrasaten egindako bileran

Arrasateko Politeknikan izan ondoren, Eskoriatza eta Oñatiko fakultateetan ere egon zen

JASONE ZABALA > ARRASATE

Pasa den eguaztenean egon zen Gipuzkoako diputatu nagusia, Markel Olano, Mondragon Uni-

bertsitatean, baita Berrikuntza-
ren eta Jakintza-aren Sustapene-
ko diputatu Jose Ramon Guridi
ere. Hain zuzen, bertako zuzen-

daritza batzordearekin elkartu ziren, errektorea, Josu Zabala buru zela. Arrasate, Eskoriatza eta Oñatiko unibertsitateak bisitatu zituzten, eta aipatutako herrietako alkateekin ere egon ziren.

BISITAREN HELBURUA

Josu Zabala errektoreak esan bezala, Markel Olanok egindako bisitaren oinarritzako helburua "Gipuzkoaren garapen eta susta-

pena bultzatzea da, eta bide batez MU gehiago eta hobeto ezagutzera ematea leku guztietan". Markel Olano ere bat etorri zen errektoreak esandako hitzekin: "Aurrerapen hau gerta dadin, erronka berriei, berrikuntza eta ikaskuntzari alegia, aurre egiteko, Gipuzkoako Diputazioak laguntza eskainiko dio MUri". Arrasateko alkate, Ino Galparsorok garraio hobekuntzak eskatu zizkion Olanori.

POLITIKA > EAJ

Ibarreko lau lagun, berri berri den Gipuzko Buru Batzarrean

Gipuzkoako EAJko Erkidego Batzarrak ordezkari berriak izendatu ditu

Iñigo Juaristi bergararra izango da Debagoieneko ordezkaria GBBn

JASONE ZABALA > BERGARA

Gipuzkoako Erki Batzarrak, Gipuzko Buru Batzar berria, Aberri Batzarrerako Gipuzkoako ordezkariak eta Erki Epai Mahaiko ordezkariak izendatu berri ditu.

Gipuzko Buru Batzarreko presidentea Joseba Egibar izango da. Bertan 14 burukide egongo dira, eta horien artean, debagoiendar bat ere egongo da: Iñigo Juaristi bergararra hain zuzen ere. Bera izango da Debagoiena

bailarako ordezkaria Gipuzko Buru Batzarrean. Exekutiba berriak, "berritza eta esperientzia batzen" dituela esan du ohar baten bidez GBBk.

Joseba Egibarrek, Erki Batzarreko ordezkarien %90aren babesa jaso du. GBB berrian, Jon Jaurerri ere badago, hasiera batean Gipuzkoako ahaldu nagusi izateko EAJk proposatu zuen hautagaia, baina ogasunarekin izan zituen arazoak medio, hautagaitzari izateari uko egin ziona.

BESTE HIRU

Aberri Batzarrerako, berriz, guztira 18 izango dira ordezkariak, eta hauen artean ere bi debagoiendar daude zerrendetan: alde batetik, Mikel Lete bergararra, eta bestetik, Jose Miguel Uribarren aretxabaletarra. Alderdi barruko arazoetan tribunal lana egiten duen Erki Epai Mahaiko ordezkariak dagokienez, hiru izango dira guztira, eta hauen artean Eliseo Gartzia bergararra dago.

> TURISMOA

Bailarako kultura eta mendi ibilaldiak, Fitur turismo azokan

Urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra arte egingo da Fitur azoka (turismoaren gaineko nazioarteko azoka) Madril. Eta, han egongo da ordezkari Debagoien osoko turismo eskaintza: herri bakoitzeko eskaintzarekin batera, eskualdeko informazioa eta mapak eta kultura eta mendi ibilaldiak, besteak beste. Era berean, Urola Garaia eta Urola Erdiarekin batera osatu duten Ignaziotar Lurralde proiektuak ere tokia izango du han.

Bestalde, iaz Eusko Jaur-laritzaren standean egon ziren zazpi produktu "izarren" artean, Arrikruz kobak egon ziren, baina aurten ez da eskaintza hori han izango.

> POLITIKA

Jon Agirre preso aramaioarrari ukatu egin diote askatasuna

Beste behin ukatu diote askatasuna Jon Agirre aramaioarrari, 2006ko urriaren 28a ezker zigor osoa beteta duen arren.

Era berean, 26 urte preso daramatzan aramaioarra gaixo dago: artrosi orokortua, diabetesa, aldebiko miopia, hiperkolesterolemia, hiperglizeridemia eta bihotzekoak emateko arrisku larria ditu, besteak beste. Hala, Jon Agirrek askotan eskatu du 92. artikulua aplikatu eta aske uztea, baina Espainiako Espetxe Zuzendaritzak ukatu egin dio, behin eta berriz.

Horrez gain, Askatasunak "gogora ekarri" du Aramaioko euskal presoaz gainbeste hamabi euskal preso ere gaixo daudela.

> ERREPIDEAK

A-8 autobideko ordainsariak ez dira borrolduko

Euskadiko Auzitegi Nagusiak erabakitakoaren arabera, A-8 eta AP-1 autobideetako ordainsariak ez dira gorantz biribilduko. Erabaki horren aurrean, Foru Aldundiak "helegiterik aurkeztuko ez duela" adierazi zuen azpiegiturarako diputatu Eneko Goiak.

Auzitegiak emandako erabakian zehazten da 2007an indarrean egon ziren prezioen gorantz biribilduko "justifikaziorik gabea" izan zela; hala, aurtengo prezioak ez dira biribilduko, eta prezio zehatza ordaindu beharko da.

Horren harira, Bidegik esan du erabaki horrekin 2,5 milioi euro gutxiago jasoko dituela.

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

AHTk kaltetutako debagoiendar guztiak batzarrera deitu dituzte

Bihar, zapatua, izango da bilera, Arrasaten, eta ibarreko udal gehienak izango dira

Lurrak desjabetu dizkietenak ez ezik, zortasunak kaltetuak ere deitzen dituzte

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Abiadura Handiko Trenak kaltetutako guztiei dei egiten diete AHTren Aurkako Udal Sareko Debagoieneko udal kideek bihar, zapatua, egingo duten batzarrera. Bilkura Arrasaten izango da, Kulturaten, 10:00etan. Han, Debagoieneko udal edo auzo kaltetuetako –Eskoriatza, Aramaio, Arrasate, Leintz Gatzaga, Antzuola, Bergara eta Angiozar– ordezkari bana, abokatu bat eta teknikari bat egongo dira. Abokatuak oraingo egoera zein den argituko die, eta baita euren egoera legala ere, kaltetu moduan; gero, teknikariak ze kalte mota egongo diren azalduko du. Bukatzeko, alkate batek esango die Udalek ze informazio edo aholkularitza zerbitzu eman diezaikeen, eta, 12:00etan, nazio osorako prentsaurrekoa egingo dute, eta AHTren ibilbidea azalduko dute.

Batzar horren berezitasuna da kaltetu guzti-guztiek egiten dietela dei, eta antolatzaileek azpimarratu nahi dute kaltetuak ez direla bakarrik AHT egiteko lurrak desjabetu dizkieten bizilagunak, baizik eta talde horretan sartzen dira ere beste asko;



ALKATEAK Eskoriatzako, Arrasateko eta Aramaioko alkateak, AHTren trazatua ikusteko ibilaldi baten, iaz.

ARTXIBOA

kontuan hartu behar da, izan ere, trenaren ibilbidearen bi aldeetara zortasun eremuak egongo direla, hau da, trenak modu batera edo bestera funtzionatzeko behar izango dituen lurrak, eta horien jabeak ere kaltetuak direla. AHTren Aurkako Udal Sareko kide Asier Agirrek, Aramaioko alkateak, azaltzen duenez,

"gutxienez, errailetatik 40 metro lur hartuko dituzte, eta, kasu batzuetan, 150 metrora ere iritsiko dira. Batez beste, 80-100 metro hartuko dituzte".

Horien guztien gaineko argibideak eman nahi dizkiete kaltetu guztiei, eta, horregatik, gonbidapen berezia egiten diete batzar ireki horretara joateko.

BILKURA ESKORIATZAN

AHTren aurkako ekitaldi gehiago izan da asteon; hala, herenegun, ordu erdiko protesta bilkura egin zuten 35 bat lagunek Eskoriatzako plazan, herriko AHTren aurkako gazte taldeak deituta, *Abiadura handiko trenik ez, Ynposaketarik ez, Eskoitzatik ez dira pasako* zioen pankartarekin.

ELURRA

Elurraren aurkako protokoloa gertu dago

Ibarreko errepideak garbitzeko zazpi talde zehaztu ditu Foru Aldundiak

MIREIA BIKUÑA > DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak gertu ditu negurako bide zaintzako neurriak. Hala, elurra egiten duenerako, elurra kentzeko kamioiak, xaflak eta gatz gertu ditu.

1.000 TONA GATZ

Urola eta Deba bailarak biltzen dituen eremurako gatz biltegia Elorregin (San Prudentzio) dago. Guztira, 1.000 tona gatz dago han. Eta bailaran bi gatz silo egongo dira, Arlabanen eta Elorregin.

Bailarako errepide nagusiak garbitzeko zazpi talde zehaztu ditu Aldundiak: Deskargan hiru, Arlabanen bi eta Leintz Gatzagan eta Elgetan, talde bana. Urola eta Deba eremuetan dauden bigarren mailako sareko errepideak garbitzeko, berriz, beste hiru talde egongo dira. Talde horiei, udal bakoitzak dituen kamioi eta palak gehitu behar zaizkie.

AP-1 autobideari dagokionez, gatz biltegia Bergaran egongo da eta han 550 tona gatz gorde dira. Autobiderako zehaztu diren bi gatz siloak Bergarako Zaldumendin egongo dira. Eta Eibar eta Arrasate arteko autobidea garbitzen hiru talde ibiliko dira.

Azarotik apirilera egoten dira indarrean negurako bide zaintzako neurriak. Gipuzkoa osorako, 53 talde, 27 gatz silo 5.400 tona gatz aurreikusitako dira.

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK

EAJk Kongresura eta Senatura aurkeztuko dituen zerrendetan lau debagoiendar daude

EAK ez du koalizioa egingo Aralarrekin; gainera, Galdos izan daiteke Gipuzkoako zerrenda-buru

L.K. > BERGARA

Espainiako Gortetarako hauteskundeak martxoaren 9an izango dira, eta alderdiak jo eta sua dabilta ordurako prestatzen,

Alderdiak badabilta zerrendak osatzen hauteskundeetarako

zerrendak osatzen eta kontaktuak egiten. Esaterako, EAJk Gipuzkoan aurkeztuko dituen hautagaien artean bada debagoiendarrik. Kongresurako, esaterako, Bergaran jaio baina Donostian bizi den Jose Luis Garitano dago, zerrendan laugarren. Senaturako, berriz, Debagoieneko bi ordezkari daude: alde batetik, Gipuzkoako zerrenda burua izango den Lorea Leanizbarrutia aretxabaletarra. Bestetik, ordezkoren artean Juan Luis Bikuña bergararra dago. Hain justu, zerrendako bigarrenaren –Carmen Solorzano– ordezko

izango da Bikuña. Debagoiendarrerekin jarraituz, Arabako zerrendetan eta Kongresuari dagokionez, zerrendan laugarren, Arrasaten jaio eta Gasteizen bizi den Igor Goirizelaia dago.

EA BAKARRIK

Bestalde, EAK eguaztenean esan zuen hauteskundeetara bakarrik aurkeztuko dela eta ez duela osatuko koaliziorik beste alderdi batzuekin. Hautagaien zerrendak osatzen hasiak dira eta Gipuzkoako zerrendaburu izateko aukera dutenen artean daude Iñaki Galdos oñatiarra eta Esther Larraña-

ga arrasatearra; lehenengoa EAKo Gipuzkoako presidentea da, eta bigarrena, Ingurumen sailburua. Bi izen horiek mahai gainean ditu EAKo zuzendaritzak, komunikabide batzuen arabera, baina beste izen batzuk ere aztertzen dabilta. Hilaren 26ko batzar nazionalan erabakiko dute.

Aralarrekin eta EBk harremanetan jarraitzen dute batera joan edo ez erabakitzeke. Oraindik ez dute ezer erabaki.

HAUTESKUNDE EGUTEGIA

Martxoaren 9ra arte, hauteskunde egutegiak hainbat hitzordu

finkatzen ditu. Hurrengoa eguegan izango da: egun horretan, koalizioek Hauteskunde Batzordearen aurrean zerrendak aurkezteko azken eguna izango dute. Alderdiak otsailaren 4ra arte, izango dute.

Otsailaren 11n, hautagaiak jakinaraziko ditu Hauteskunde Batzordeak, eta 12an, zerrendak argitaratu egingo dira. Hala ere, prozesu bat zabalduko da, helegiteak aurkezteko, onartzeko edo atzera botatzeko. Prozesu hori otsailaren 21ean bukatzen da, eta otsailaren 22an hasiko da hauteskunde kanpaina.

Pedro Lasagabaster > Mankomunitateko ordezkari Hondakinen Partzuergoan

"Ibarrean, hobeto eta gehiago birziklatzen eta konposta egiten hasi behar dugu"

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Bartzelonan eta Mallorcan egon ziren joan zen astean Debagoieneko zazpi ordezkari. Han hondakinek zelan tratatzen dituzten ikustera joan ziren. Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko Debagoieneko ordezkari bat da Pedro Lasagabaster, eta GOITBK elkarriketatu du.

Zer ikusi duzue Bartzelonan eta Mallorcan?

San Markosko Mankomunitateak gonbidatuta joan ginen, hondakinen tratamenduan bi esperientzia ikustera. Eskoriatzako, Antzuolako eta Elgetako alkateok, Arrasateko bi ordezkari, Mankomunitateko teknikari bat eta herri mugimenduetako beste bi lagun joan ginen. Batetik, Bartzelonan, atez ateko bilketa ikusi genuen; edukiontzia kaleetatik kendu eta atariz atari joaten dira bila. Oso birziklatze maila handiak daude sistema horrekin. Aldez aurretik, jendeak etxean ahalegin handia egiten du zaborra banatzeko: organikoa ontzi baten gordetze dute, eta gainerakoa -kartoia, plastikoa, beira...- ere banandu egiten dute.

Gero, Bartzelona hiriburuan, zaborra tratatzeko gune bat ere ikusi genuen. Hor, materia organikoa eta bestelakoa tratatzen dute; organikoarekin, konposta egiten dute, eta gainerakoarekin, zaborraren energia aprobetxatuta, energia elektrikoa ekoizten dute. Bisita horrek balio izan zuen konturatzeko zelako arazoa daukagun zaborrarekin.

Alde handia zegoen bi sistemen artean?

Bai. Tratamendu gunea Bartzelona hirian zegoen, eta hemen baino askoz populazio handiagoa denez, askoz zabor gehiago sortzen dute, hortaz, arazoa handiagoa da. Atez ateko bilketa sistema, berriz, 70 bat herritan egiten dute, 4.000tik 15.000 biztanle artean, hortaz, Debagoienarekin pareka dezakeguna. Desberdintasunak ere badaude.

Atez ateko bilketarekin, beste sistema batzuekin baino birziklatze maila handiagoa egoten da.

Ikusi duzuen Debagoienean ezarri daitezke?

Bidaia esperientzia desberdinak ikusteko egin genuen; orain, hemengo ordezkari politikoei jakinaraziko diegu ikusi duguna, txosten baten bidez. Hausnarketa sakona egin behar da hemengo egoeraren gainean, eta txosten hori lagungarria izango da erabakiak hartzeko.

Edozelan ere, argi dago materia organikoa birziklatzen hasi behar dugula; metodoa ez dakit, baina hori erabakitze oso garrantzitsua da adostasuna eta



Pedro Lasagabaster.

GOIENKARIA

"Bartzelonan, atez ateko bilketa sistema batekin, birziklatze maila handia daukate"

"Zaborraren arazorako konponbide bakarrak ezin daitezke zabortegia eta errausketa izan"

"Hausnarketa egin behar da ibarreko hondakinen egoeraren gainean, eta txosten bat egingo dugu"

erabakiak ondo pentsatzea. **Debagoienean, konpostaje gune bat egiteko aukera ere aipatu izan da. Zertan da?**

Hitz egin dugu aukera horren gainean. Bi zabor motak tratatzeko gunea izango litzateke; orain, dena poltsa baten sartzen dugu.

Erraustegiari alternatiba izan daitezke gune hori?

Orain, bi aukera bakarrik ikusten dira: bat, zabortegiak; eta bestea, erraustegia. Baina guk ikusi dugun sistema alternatiboarekin, askoz gehiago birzikla-

tzen da. Guk argi dugu gehiago eta hobeto birziklatzen eta konposta egiten hasi behar dugula. Erraustegiaren aukera ondo aztertu behar da ezer erabaki baino lehen.

Gipuzkoan zaborrekin daukagun arazoa zertan dago?

Gipuzkoan, hondakinen partzuergo bat dago, eta birziklatzea da gure proposamenaren ardatza. Erabakiak hartzeko daude oraindik. San Markos eta Debagoieneko Mankomunitateak izan ezik, Gipuzkoako beste guztiak erraustegia egitearen alde daude. Guk zalantzak ditugu, eta uste dugu gauzak hobeto aztertu behar direla. Zaborren arazoari irtenbidea emateko bi sistema finalistak zabortegiak eta erraustegia izatea ezin da izan. Hala ere, denon artean, uste dut irtenbide bat aurkituko dugula.

Bartzelonan ez ezik, Mallorcan ere egon zen taldea...

Ni neu ez nintzen hara joan, baina badakit zer ikusi zuten bertan; hain zuzen, han ere, atez ateko bilketa sistema bat dute, eta baita konpostaje guneak ere. Han sortzen den materia organikoa, gainera, garbia da; gune handietan, konpost garbia eta konpost zikina, biak nahastu egiten dira.

euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA



Debaguneko kideak balorazio bileran.

GOIENKARIA

Debagunek 2007ko balorazioa egin zuen eta 2008ko helburuak azaldu

DEBAGUNE > BERGARA

Azaroan zehar bailarako euskara elkarteek gogoeta mintegia egin zuten Arrasateko Kulturaten. Bertan, Debagunek pasa den urtean eta orain arte egindako ibilbidearen errepaso eta balorazioa egin zuen, eta aurrera begira egin daitezkeen ekintzen plangintza ere zehaztu zuen.

2007an Debagunek mota askotariko egitasmo ugari eraman ditu aurrera. Ekintza kulturalak, sentsibilizazio kanpainak, ikastolen alde egiten diren jaietara joateko autobusak, egutegia eta abar. Debagunekoek ekintza horiek positiboki baloratzen dituzten arren, egitasmo batzuekin aurrera jarraituko dute eta beste batzuk, berriz, alde batera utziko dituzte. Izan ere, Debagunek euskara elkartearen ohiko jardunetik kanpo geratzen diren gaiak eman nahi die lekua, eta batez ere orain arte lortu ez duten helburu bat lortu: Debaguneko egitasmoak bailarako egitasmoak izatea eta, bide batez, herri guztietan aurrera eramatea.

DEBAGUNE ERREFERENTE

Debagunek bailarako elkarte guztien ordezkari eta erreferente izatea lortu nahi du, hori izan delako orain arteko gabeziarik handiena.

2008AN, INDARBERRITURIK

Balorazioa ikusita, 2008rako Debagunetik markatu duten erronka nagusia Debagune bera eta bailarako euskara elkarte guztiak martxan jarri eta sendotzea da.

Debagunek, Debagoieneko euskara elkartearen elkargoa izanik, euskara elkarte guztien presentzia eta parte-hartzea beharrezkoa ikusten du, eta, herri edo elkarte guztien egoera edo errealitatea desberdina izan arren, guztion indarrak batzea da Debaguneraren asmoa. Helburu nagusi horretaz gain, lau lan-ildo nagusi jorratuko ditu: sentsibilizazioa (kanpaina desberdinak), zerbitzuak (ikastolen aldeko jaietara joateko autobusak, egutegia...), hedabideak eta haur eta gazteak. Debagunek egingo duen bide berri horretan, guztien laguntza eta interesa izatea da nahia, eta esperantza horrekin gogor lan egiteko prest daude.

Debagunek bailarako elkarte guztien erreferente izatea lortu nahi du

2008. urteko erronka bailarako euskara elkarte guztiak martxan jarri eta sendotzea da

gure artekoak

PEUGEOT 308 > Peugeot etxeak pasa den irailean aurkeztu zuen Peugeot 308 modelo berria. Auto hori, 307 modeloarekin alderatuta, handiagoa da eta, horrez gainera, espazioen banaketan nabarmen hobetu du.

M. Lourdes Txintxurreta > Oñati Garajea etxeako arduraduna

"Autoa zabala da eta horrek egonkortasuna ematen dio"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Pasa den urteko irailean aurkeztu zuen Peugeot etxeak 308 berria. Familia guztiari zuzendutako autoa da. Oñati Garajea etxeako arduradun Lourdes Txintxurretak hauxe esan du: "Adin tarte guztietako jendeak eskatu du autoa: familieek, gazteek eta baita nagusiek ere. Tamaina ona dauka autoak herrian ibiltzeko; bestalde, bidaia luzea egin gura bada, erosotasun guztiak dituen autoa da 308 berria".

Samur gidatzeko autoa da, zarata txikia ateratzen du-eta. Hala, gaur egun merkatuan dagoen auto erosoenetakoa da. Gainera, barrualdean espazio handia dauka 308ak. Beste auto batzuk baino handiagoa ez izan arren, handitasuna da haren ezaugarrietako bat; bada, leihok duten tamainek garrantzi handia dute handitasunean. Gainera, karrozeriaren forma karratuak ere lagundu egiten du handitasun hori lortzen.

MOTOR AUKERA ZABALA

Motorrari dagokionez, gasolinazko hiru motor eta dieselezko beste hiru ditu Peugeot modelo berriak; gasolinazkoek 95, 120 eta 150 zaldi dituzte. Dieselezko motorrek, berriz, 90, 110 eta 136 zaldi dituzte.



M. Lourdes Txintxurreta, 308 auto berriarekin.

A.E.

Peugeot 308 2.0 HDi 136 ZP

Prezioa	22.600 euro
Luzera	4,27 metro
Zabalera	2,03 metro
Maletategia	430 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,5 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	205 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	10,1 seg.
CO2 isurketak	146 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

Aukera dago hiru edo bost ateko autoa aukeratzeko. Segurtasun sistemari dagokionez, merkatuan dauden sistema guztiak ditu autoak.

"Autoa nahiko zabala da; ez, ordea, luzea. Hala, egonkortasun handiko autoa da 308a", gaineratu digu Peugeoteko arduradunak.

Kanpoko ekipamenduari dagokionez, Premium saileko autoak sabai panoramikoak, haietako-garbigailu automatikoa, argi automatikoak eta beste hainbat erosotasun ditu. Guztia, bezeroaren erosotasuna bermatzeko.

etxeke leihotik



Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

Populazioa, etorkinak eta kaleko giroa

Debagoiengan populazioak gora egin du, Gipuzkoan bezala, baina Bergaran behera, Arrasaten eta Aramaion bezala. Ibarreko bi herri handienetan, behe-rako joera izan da azken urteetan. Gogoan daukat 70eko hamarkada amaieran ia 18.000 lagun bizi ginela Bergaran. Orduan baino 3.000 lagun gutxiago bizi gara egun. Nostalgiaz gogoratzen ditut txikitako domeka goizak: joko aretoa, Irala zinema, kaleko giro zalapartatsua...

Eta eskerrak etorkinei! Ze, iaz, kanpotik etorritako 749 lagun baitzeuden erroldatuta Bergaran; batez beste, bailarako beste edozein herritan baino gehiago. Bergararrok etorkin horiei eskerrak eman behar-rean gaudela uste dut eta horretaz gain, bertako bizimodura egokitzten lagundu behar diegula; euskara ikasten, esaterako. Horretan dihardute, bikain, Jardun elkarteak eta beste batzuek.

Eta kaleko giroaren gainbehera piztu nahian dabilena Bergarako Udala da, hainbat ekimen bultzatuz, joan zen domekako pailazoaren emanaldia kasu. Ume eta gurasoz goraino beteta zegoen pilotalekua. Asmatu egin dute. Jarrai dezatela halakoekin.

"Ume eta gurasoz beteta zegoen domekan pilotalekua; asmatu dute"

> Pilotalekua sarriago erabiltzea nahi du Udalak. Ondo. Astelena zabaldu zutenetik ia ez dute jaialdirik antolatu Aspekoe Bergaran. Beste aretorik ezean, bihur dezatela kirol-kultura areto polibalente.

> Herria pizteko ideia batzuk, frontoian, neguko sasoiaren egin daitezkeenak: umeendako jolasak, pailazoak, karaokea, zinema...; BKEkoen eskubaloi eta saskibaloi partiduak, antzerkia, musika...

begi-bistan



Pago Uso elkartearen 50. urteurrena (Oñati) 2007/12/22

Argazkia: Julio Bikuña.
Testua: Mireia Bikuña.

Urtemugako ospakizunen artean bizirik dauden elkarteko lehen batzordeko kideak omendu dituzte: Eugenio Urizabel, Julio Ibarrodo, Juan Zelaia, Federico Mendizabal eta Pedro Ugarte.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Xabier Arantzeta

TXIRRINDULARIA



Yera Varela

KORRIKALARIA



Ane Herrero

ESKUBALOI JOKALARIA

Burgosko Villarcano herrian jokaturako kadete mailako Espainiako ziklokros txapelketan 24. tokian sailkatu zen Sumofic taldeko txirrindularia. Era berean, euskal txirrindularien artean zazpigarren onena izan zen Antzuolako txirrindulari gaztea.

Real Sociedad taldeko korrikalari oñatiarra Gipuzkoako Challengeko promes mailan lehenengo tokian sailkatu zen, Elgoibarren jokaturako nazioarteko krosean. Era berean, Aloña Mendiko korrikalari Sara Gomez lehena izan zen bere mailan.

Aloña Mendiko jokalaria arrasatearrak Espainiako txapelketa irabazi du Euskadiko selekzioarekin, finalean Nafarroa menderatuta. Era berean, Aloñako jokalaria Goretzi Ibabek, Itziar Murgiondok eta Ander Varelak Euskadiko selekzioarekin jokatu dute.

Koldo Martinez eskoriatzarra da jaiotzez, baina txikia zela Arrasatera joan zen bizi izatera. Gaur egun Iruñean bizi da eta Nafarroako Ospitaleko Zaintza-Unitatean egiten du lan. Bioetikan aditua da, eta beraz, ondorengo lerroetan, bizitzaz diharduten zientzien etika ikertzen duen ezagutzaz hitz egin du, baita horren muga eta eskubideen gainean ere.

Koldo Martinez > Medikua eta Bioetiko

"Edozein pertsonak har dezake edozein erabaki, norberari soilik eragiten badiu"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bioetika oso ezagutza "zabala" dela dio Koldo Martinez adituak. Gaur egun gizartean dagoen arazo etiko garrantzitsuen bizi kontzeptuaren ingurukoa dela uste du. Hori aztertzen eta arautzen saiatzen da Martinez.

Zer da zehazki bioetika?

Bizitzaz diharduten zientzien etika ikertzen duen ezagutza da. Ikasketa bilduma bat da, eta, era berean, tresna praktikoa ere bada. Izan ere, bizitzaz zientzien balioak sakontzen saiatzen den ezagutza multzoa da.

Beraz, zertaz dihardu ezagutza horrek?

Bizitzaz arduratzen diren zientzia alorrez. Esaterako, arduratzen da osasun profesionalen eta gaixoen arteko harremanaz, azken horrek hartu behar duen informazioaz. Bizitza eta heriotza eta osasuna eta gaixotasunen inguruan jokoan dauden balioak aztertzen eta arautzen ditu, hala nola abortua, eutanasia, bizi testamentua, zelula amak... Oso ezagutza zabala da.

Arazo etiko ugari ditu. Zeintzuk dira nagusiak?

Momentu honetan, gizartean dagoen arazo etiko garrantzitsuen bizi kontzeptuaren ingurukoa da. Komunikabideetan gehien agertzen dena da, behintzat. Bada, niretako hori bezain inportantea dira egunero bizi izaten ditugun egoera konkretu batzuk. Esaterako, medikuarengana joaten zarenean eta zer esaten dizun eta zer ezkututzen dizunaren gainekoa. Horiek ere arazo etiko larriak dira.

Abortuaren gaiak gaurkotatzen du azkenaldian. Non dago muga?

Muga morala bakoitzak jarri behar du. Muga legala, berriz, argi dago: abortuaren despenalizazioaren legean, hain zuzen. Gizarteak, momentu honetan, gutxieneko muga moral konkretu batzuk jarri ditu eta horiek legean dute isla. Beste gauza bat da bakoitzaren jarrera.

Eutanasiak ere bioetikarekin zerikusi zuzena du. Heriotza duina izateko eskubidea dugu?

Bai. Eutanasia heriotza duinarekin lotzen dugu askotan eta uste dut oso gauza ezberdinak direla. Nik hainbat heriotza duin ikusi ditut egoera ez duinetan eta gaixoak berak eman dio duinta-



Irudian Koldo Martinez, medikua eta bioetikan aditua den arrasatearra.

GOIENKARIA

MANIPULAZIOA

"Neurri batzuk hartuta manipulazio genetikoak onargarria da, egin behar da"

ORGANOAK EMATEA

"Gizarteak aurrerapauso ikaragarria eman du; jakin badaki organoak emateak duen balioa"

ERLIJIOA

"Erligioek ezin dute inolako eraginik izan gizartearen euren ideologia inposatzeko"

suna egoerari. Aitaitaz oroitzen naiz ni. Gerra garaian fusilatu zuten, heriotza ez duina izan zen. Baina hark azken eskutitz bat idatzi zuen eta horrek heriotza ez duina duintasun handiz hornitu zuen. Eutanasia heriotza duina izan daiteke. Baina oso kontzeptu diferenteak dira.

Zer deritoxu manipulazio genetikoari?

Momentu honetan mota askotako manipulazio genetikoak daude. Manipulazio genetikoak hastanpenetan dago eta beste belaunaldi batzuetan ondorioz izango ez duen manipulazio genetikoak egin dezakegu. Adibidez, badira gaixotasun gutxi batzuk gene bakar batek ekoizten dituena. Gene hori aldatu behar dela uste dut. Gertatzen dena da gaur egun dauden gaixotasun gehienak multigenetikoak direla eta gene bat aldatuta ez dugula ezer lortzen. Egoera horrek gainontzeko guztia konplikatu du. Hasiera baten, neurri batzuk hartuta, manipulazio

genetikoak onargarria da, egin behar da. Muga batzuk errespetatuz, noski.

Organoak ematea ere hor dago. Ez da erraza izango senitartekoa galtzeko zorian dagoen familia bati organoak eskatzea...

Gogorra da norbaiten heriotzari buruz hitz egitea. Baina alde horretan gizarteak aurrerapauso ikaragarria eman du. Jakin badaki organoak ematea balore positiboa dela. Askotan gertatzen zaigu aukera hori aipatzera joan eta familiak aurre hartzea. Hori oso pozgarria da.

Nolakoa izan behar du mediku eta gaixoen arteko komunikazioak?

Ikaragarritzko iraultza gertatzen ari da horretan. Orain dela urte gutxi arte, medikuak ikaragarritzko autoritatea zuen. Hori aldatu egin da. Gaixoek badakite autonomoak direla eta erabakitze eskubidea dutela. Bien

arteko harremana maila berekoa da gaur egun. Gaixoa ondo informatu beharra dago eta erabakiak bion artean hartu behar dira.

Horren harira, non hasi eta bukatzen da norberaren erabakitze eskubidea?

Eskubide morala eta legala toki berean hasi eta bukatzen da. Edozein pertsonak har dezake edozein erabaki, norberarengan eragina badu bakarrik.

Amaitzeko, erlijioak zeresan handia izan du eta badu horren guztiorren aurrean...

Nik neuk ez dut nire burua fededun hartzen. Etikaz mintzatzeko naizenean, gizarte etikaz ari naiz. Hori da garrantzitsua. Erligioa beste kontu bat da. Fededunek ahotsa eta botoa dute. Baina erlijioek ezin dute inolako eraginik izan gizartearen euren ideologia inposatzeko. Etika denok egiten dugu. Erligioaren printzipioak, berriz, ez dituzte demokratikoki egiten.



zabalik

Arantxa Jaka

Danborren hotsa

Emakumeek, gizonak, haurrek astindutako ehunka danborrek adieraziko digute San Sebastian eguna heldu dela. Kaleetan giro alai nagusituko da. Gizakiak berezkoa du alaitasuna, jaiak gustukoak izatea; iritsi nahi dugun zoriontasunaren iduri, oihartzun gertatzen dira. Eta ez, ez dut ukatuko niri betidanik asko gustatu izan zaidala San Sebastian eguna. Gauza ona da hori. Baina ez legoke gaizki egongo geure begirada harantzago luzatzea eta zeinen omenez danbor horiek jotzen ditugun jakitea. Horrela, egunak, jaiak egiazko zentzua edukiko luke eta errealitatean jarriko gintuzke.

Sebastian hirugarren mendean bere fedea ez ukatzeagatik Erroman enperadoreak hilarazi zuen kapitain bat dugu. Bere fedea eragirik besteei on eginez eta lagunduz oso estimatua izan zen gizona. Baina enperadoreak ezin onartu fededuna izatea eta hiltzea agindu zuen.

Egun hauetako danborrak entzutean gertakari hau datorkit burura eta gaurko hainbat eta hainbat egoera latz oroitzen ditut. Urte berria hasia dugu, baina han eta hemen entzuten, ikusten ditugun albisteek, modu batera edota bestera, gurutziltzatzeak ez direla amaitu adierazten didate: bahituak, desagertuak, gosez eta gaixotasun sinplez hiltzen direnak, fedea gaitik pertsegituak, torturatuak, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak eta haurrak, kale gorrian bizi direnak, esklabutza berrietan daudenak... Gaur egun ere berdin ez pentsatzeagatik edota interes batzuk aurrera eramateagatik gizakia gai da bera bezalakoa hiltzeko, morroi bezala bere zerbitzura jarrarazteko. Zer pentsatu eman beharko liguke.

Honekin guzti honekin ez nuke festa iluntzea nahi, alderantziz baizik, barru-barrutik jai hau sano bizitzea eta gogo onez makilez danborra jotzea, baina, aldi berean, horrelako aukerarik bizitzeko edukiko ez dutenak geure oroimenera, bihotzera ekartzea. Hori ere solidaritatezko keinu bihurtzen da. Zoriontsu izateko denok dugun eskubidea adieraztea da, isilean bada ere.

"Ez litzateke gaizki egongo jakitea San Sebastian Eguna zergatik ospatzen den"

"Gaur egun ere gizakia gai da hiltzeko berdin pentsatzen ez duena"

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarría (Heriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirian Altube, Mirian Biteri, Larratze Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Miren Arregi Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Fausto Berazadi Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.

OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JauriaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaleta
UdalaEskoriatza
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

BEHERAPENETAN KONTUAN
HARTU BEHARREKOAK

Aretxabaleta irakurle batek zapata pare eosi zuen aurreko astean Arrasateko zapata denda batean. Haren esanetan, dendan ez zuen jartzen zenbaterako beherapena zuten zapatak eta etxera joaterakoan konturatu zen %10era ere ez zela iristen beherapena. Irakurleak, baina, irratian entzunda dauka gutxienez %20ko beherapena izan behar dutela produktuek beherapenetan. Horrela ote den jakin nahi du.

Kontsumitzaileen Elkargoaren arabera, hainbat gauza hartu behar dira kontuan beherapen garaian erosketak egitera joaten garenean.

Irakurlearen galdera zehatzari erantzunez, bada, bai, beherapenetan gutxienez %20ko deskontua aplikatzen da goi-sasiko prezioaren gainean eta, deskontua areagotu egiten da egunko aurrera egin ahala. Horrekin batera, etiketan aurreko prezioak eta oraingo beheratuak edo beheratutako portzentajeak agertu behar dute, derri gorrez.

Eta, bestetik, kontuan izan behar da beherapenek gutxienez hamabost egun eta gehienez bi hilabete iraun dezaketela, eta beherapenetan eskaintzen diren produktuek gutxienez hilabete eman behar dutela agerian dendan. Bestalde, beherapenetako produktuek lehenago erositakoek besteko berme eta aldaketa –nahiz itzulketa– politika berberak izango dituzte; produktu hori erabili ez bada, behi-

nik behin. Horrekin batera, merkatutako produktuek kalitate bera kostu txikiagoan eskaini behar dute.

Denda batek urte guztian itzulketak onartzen baditu, beherapenetan ere beste horrenbeste egin beharko du. Bestela, jakinarazi egin beharko du, kartelen bidez, esate baterako. Jantziei konponketak egitea dela eta –gerrialdea estutzea, mahukak moztea...– gauza bera gertatuko da. Sasoian doan egin badira eta beherapenetan kobratu nahi badira, hala jakinarazi behar du dendak.

Horrez guztiaz gainera, urte osoan ordaintzeko kreditu txartela onartzen duten establezimenduek beherapenetan ere txartel hori onartu beharra daukate, prezioa inola ere garestitu barik.

Azken batean, beherapenetan kontsumitzaileok eskubide berberak ditugu. Horrenbestez, kontsumitzaile zaren neurrian komertzioaren batek zure eskubideak urratu dituela uste baduzu, erreklamazio orria exijitu eta saiatu arazoa adiskidantza konpontzen.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrakiz

Unai Busturia



Tradizioaren aldekoa

Elena Laka

www.goiena.net/blogak/elena

Egun batzutan, neuri ere, gotzainek esaten dutenaren antzera, gustatuko litzaidake famili tradizional bateko emazte-ama tradizional, ulerkor eta maitagarri horietako bat izatea.

Egun horrek dira goizean goizetik umeak ezin karriatu zabizenak, eurak edo zeu oker jaiki zarelako, gosaldur, jantzi

eta garbitu behar, denbora guztian zirikatzen eta demandan dabizenak. Eta zu nerbioak jota, ez zaretelako ikastolara garaiz iritxiko, ez zarelako lanera garaitz iritxiko, ez dakit nora joan beharra daukazulako eta berandu eta zoroaren pare ailegatuko zarelako.

Umeak ikastolan bota orduko, konturatzen zara mobila etxean ahaztu zaizula. Eguna kamuts dator. Uf, arnasa hartu eta lanera.

Bidean banaketako furgoneta bateko auto-gidariaren amaz oroitu ondoren, sartzen

zara lanera eta eseri orduko arnasa hartzen duzu. Ia.

Deitu dute Erregistrotik, duela sei hilabete eman zizuten oharra oker eman zizutela esateko, eta orain, hortik aurrera zeuk egindako lan guztia pikutara doala. Eman ezan arpegia besteen erruengaitik, norberarenak nahiko izango ez balira bezala.

Joan epaitegira, itxoin, epaile harroskoa tokatu zaizu, autoritatea eta edukazio txarra gauza bera direla pentsatzen duen horietakoa. Galdu denbora, zain. Egiteko gauza mordo, zain eta telefono barrik!

plazara

Irakurtzearen onurak zenbatu ezinak dira, eta, horregatik, irakurtzearen garrantziaz berba egiten du Mila Agirrezabalek. Haren esanetan, oraindik ere irakurzaletasuna ez dago oso hedatua eta euskaraz irakurtzeko bada, are gutxiago. Liburutegiko arduraduna den

aldetik, zeregin horretan jartzen ditu indarrak. Gainera, dio irakurtzeak zoriontsuago eta osatuago egiten duela pertsona.

aldetik, zeregin horretan jartzen ditu indarrak. Gainera, dio irakurtzeak zoriontsuago eta osatuago egiten duela pertsona.

Mila Agirrezabal *

Irakurketaren garrantziaz

Bergarako Udal Liburutegira adin guztietako pertsonak gerturatzeko dira. Bertan, jendeak informazioa bilatu, irakurri eta aisialdia igaro egin ohi du –Debagoieneko gainerako herrietan ere antzera izango dela imajinatzen dut–. Hori horrela, eta gure helburua izanik liburutegiaren ezagutza eta erabilera areagotzea, liburutegiaren helburu nagusietako bat azaleratzen da: irakurzaletasuna bultzatzea.

Esparru honetan urteetan burutu dira ekintzak, baina baliabide ekonomikoak, teknologikoak eta administrazio mailakoak hobetu diren heinean, geroago eta ekintza gehiago burutzen joan gara. Halatan, irakurzaletasuna sustatzeko, gure zerbitzuak hainbat jardura burutzen ditu urtean zehar. Besteak beste: bai neguan zein udan Debagoieneko udal liburutegietatik argitaratzen ditugun irakurketa gidak; haur zein helduentzako gomendioak; liburutegiko zerbitzua herriko plazara ateratzea; idazleekin solasaldiak antolatzea; ipuin kontalariak ekartzea; herriko hainbat elkarte eta udal zerbitzutan (Mizpirualde, erretiratuen egoitza, eguneko zentroa...) liburutegi zerbitzua eskaintzea, eta abar.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak sustatutako *Irakurri* kanpainari lotuta, hainbat ekintza burutu ditugu, haur, gazte eta hiru-garren adinekoekin; betiere irakurzaletasuna ardatz. Ekintzak honako hauek izan dira: batetik, *Liburutegiko menua*, pertsona nagusientzat egokitutako jardura; bigarrenik, *Liburu bat*



MIKEL ARROIABE

adiskide bat, edonor liburutegira gerturatzera gonbidatzeko aukera ezin hobea; hirugarrenik, *Familiak ere kontatzen du* gida, 3 eta 6 urte bitarteko haurrengan irakurtzeko gogoia pizteko 12 urratseko gida; eta, azkenik, *Liburua ageri duen erretratu*, gazteei zuzendutako argazki digitalen lehiaketa. Horretaz gain, herriko hainbat dendatan liburutegiko liburuak eskuragarri eta ikusgai jarri ditugu.

Horrelako ekimen eta kanpainen ondorioz, erabiltzaile gehiago erakartzen ditugu liburutegira. Eta, era berean, zerbitzuaren erabilera areagotzen da. Hori agerikoa da eguneroko jardunean.

"Euskaraz oso gutxi irakurtzen da, gazte askok irakurri gabe jarraitzen du eta ez da nahi beste adindun etortzen"

"Irakurketaren bidez mundu ezberdinak ezagut ditzakezu; gizartearen aurrean kritikoago zara..."

Horri guztiari gehitu behar zaio gure bilduma ahalik eta zabal eta eguneratuena izaten saiatzen garela eta, horretarako, gai eta sakontasun maila ezberdineko aldizkari, prentsa, eskuliburu edota eleberri berrienak izaten ditugu; irakurzaletasuna suspertzea baita afera.

Hori horrela izan arren, guk irakurzaletasunari buruz egiten dugun hausnarketak ez digu inola ere txapliguak botatzeko nahikoa motibo ematen. Izan ere, euskaraz, oso gutxi irakurtzen jarraitzen da, gazte askok irakurri gabe jarraitzen dute eta nahi genituzkeen bezainbeste adindun ere ez dira etortzen.

Hala eta guztiz ere, guk gure aldetik saiatzen jarraituko dugu: imajinazioa ipiniz, laguntzak lortuz, elkarlana bultzatuz, jendearengatik ahalik eta feedback gehiena izaten jarraituz, baliabideak egoki erabiliz eta ditugun aukerak aprobetxatuz. Bergarako irakurleek merezi dutelako eta horrela jarraituko dugulako. Izan ere, guretzat irakurketa plazera da; irakurketaren bidez mundu ezberdinak ezagutu ditzakezu; irakurketaren bidez gizartearen aurrean kritikoago zara; libreago egiten zaitu, gizartearen garapena sustatzen du; eta, azken finean, pertsona zoriontsu eta osatuago lortzen du. Horregatik, eta beste mila arrazoigatik, irakurzaletasuna garatzea ezinbestekoa dela uste dugu. Guk, behintzat, horretan sinisten dugu eta horrela jarraitzeko asmoa dugu.

*Mila Agirrezabal, Bergarako Udal Liburutegiko arduraduna

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Mozorroa erosi ala egin egiten duzue?

BAI	33,3
EZ	%66,6

> GUK, EGIN

Kuadrilakook egin egiten dugu. Duela lau bat urte koadrilako bi josten ikasteko ikastaro batean ibili ziren. Ordituk eurak arduratzen dira mozorroak egiteaz. Gainerakoek laguntzen diegu tela erosten eta eurak agindutako bestelako lan errazak egiten. Aupa Amaia eta Aiora.

Alazne

> EZ GARA MOZORROTZEN

Aspaldi ez gara mozorrotzen. Lehenago, gazteagoak ginenean bai, baina laga fundamentu faltagatik laga genion. Ez ginen ados jartzen zertaz mozorrotu eta gero, gainera, mozorroa egitea rollo bat izaten zen.

Larraitz

> ASPALDI EZ

Aspaldi ez gara mozorrotzen. Azkeneko urteetan eta errazera jotzeagatik emakumez jantzen ginen koadrilako mutilak amaren arroparekin, baina dagoeneko laga diogu.

Mikel

DATORREN ASTEKOA: Zinemara joatea gustuko duzue?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Lasaitu beharra daukat, kafe bat hartzera noa. Bost minutu ebaki oso bero bat hartzeko, lasaitu egiten nau. Kafetegia, familia tradizionala etxeoandrez beteta. Patxadan daude, berriketan. Nik honez gero bull-dog musua daukat. Metxa ilehori batzuk egin beharko nituzke, egonean dauden emakumeek ile horia bere tokian daukate. Nire ile ilun hauek, beti tximoso.

Arratsalderako lortu dut apur bat baretzea. Betozkoa oster, ezin kendu. Egun txarra gaurkoa, ezin inorekin ulertu, dena iruditzen zait gaizki. Bukatzeko desiatzen.

Zortziak laurden gutxitan etxeko atea zabaltu eta baba-usain ufadak inguratzen nau. Inigo, biharko bazkaria gertatzen, azkar-azkar, bilera batera joan behar duelako. Penkak egosten dihardu afaltzeko, lurruna dago sukaldean. Paulo ikastolako lanetan. Ez dut txamarra kendu eta, "amaaaaaa, zer da ignorante?" Bainuan Oier beratzen, "amaaaaaa, ekarri Merlino muñekua". Ah, iritxi naiz etxera.

Azelgen gaineko botere-traspasoa egin eta egoeraren ardura hartzen dut.

Bateraezintasuna

Pello Urzelai
www.berria.info/blogak/pello

Giza-eskubideen arloan, agintariei kontu eta ardura berezia eskatu behar zaie. Harrigarriak izan dira horregatik Javier Balza sailburuaren hitzak, Portu eta Sarasolaren atxiloketei buruz. Atxiloketa horiek susmopean badaude ezin da inolaz ere esan Guardia Zibilaren "lan bikaina" edo "arrakasta bikaina" izan direla. Kontzeptu bateraezintasuna dira.

koplak

Manex Agirre

Txorionak!

Nahiz ta geografikoki egon urrun samar edo bereiz gure bailara honetan hurbil senti dezakegu Gasteiz.

Erosketa, zine, bolatoki... edonork proba ditzake baina gauza gehiago badaude Boulevard-etik aparte.

Azkenaldiko berriak ere noski aipatu ditzaket... baina Gasteiz bakarrik ez dira katedrala eta Ken follet...

Justu Katedral zaharretik segi oinez pausu azkarrean... Montehermoso pasata zaude gatzetxearen aurrean!

Edo bestela Santa Maria kantoia beheraino jeitsi... eta Hala Bedi irrataria baietz agudo iritsi!

Batak hogeitaz urte bete ditu ta besteak bost gehiago ez Boulevard eta ez Katedral bioi "Txorionak", klaro!

MCC nazioartean

Antonia Domenech,
Emilio Lekue eta Mikel Olabe
(Ahots Kooperatibista
taldeko kideak)
Arrasate

Hona hemen, laburbildurik, internazionalizazioari buruzko MCCren doktrina:

- Internazionalizazioa ezinbestekoa da MCCrentzat etorkizunean iraun nahi baldin badu bederen.
- Korporazioaren estrategia internazionalizazioaren muina ez datza koste txikiko merkatuetara heltzean eta handik merkatu naturalak hornitzean. Horrela izanez gero, gure lanpostuak lekualdatuko genituzke inolako kontra-prestamenik gabe.

- MCCren internazionalizazioaren helburua da bat egitea hazten ari diren herriekin, herri horiek kontsumitzaile potentzial ugari eta garapenaren bidean diren merkatu zabalak eskaintzen dituztelako.

- Internazionalizazioak kooperatibetan enpleguak sortzeko bi bide ematen ditu: 1. Ekoizkinen salmenta kanpoan egindako ezarpenen bidez. 2. Bezero globalen eskaerei erantzunez, zeintzuei euren desplazamenduetan munduan zehar jarraitu behar diren fideltasuna exijitu behar zaien, sartze-kuotak gehitzeko.

- Nazioarteko merkatuak MCCren produktu eta zerbitzuen jarrera konpetitiboen kontraste-jokalekuak izango dira, hala nola hazkunde eta errentagarritasunaren palanka.

- Enpresa-errekaz gain, MCCren presentziak munduan erroka kooperatiboa dauka: enpresa berriei kultura kooperatiboa eta horren zentzua esportatzeko gai izatea.

Ez ditugu eztabaidatuko ondoko bi puntuak: 1. MCC internazionalizatzen behartuta dagoela. Globalizazioari egokitze ezinbesteko prozesua da korporazioak daukan tamainako enpresa-gunea osatzera heldu denean. 2. Egun, internazionalizazioa eta enpleguak mantentzea eraman-garriak dira, eta egoera horretan enpresa nagusietan lanpostuak sor daitezke.

Hasieran deskribatu dugun internazionalizazioarako doktrinak galderak sorrarazi eta errefusak eragiten dizkigu. Horren inguruko iruzkinak egin aurretik, aipatu behar dugu gure gizarteak eta bizitzak eraldatzen dituzten sakonera handiko gertaera berriei buruz ez dutela hausnarketa sakonik egin mugimendu kooperatibistaren zuzendariek. Ohiko pragmatismoa gertatzen ari da

Frontoiaren erabilpen okerra

Juan Luis Aranburu (Antzuolako udal kirol zerbitzua) > Antzuola

Pasa den asteburuan ezusteko ondorioak izan ditugu frontoian: jarlekuak erreta, sarea bere tokitik aterata eta hainbat lekutan puskatuta, zikinkeria non-nahi, komunak ureztatuta, eta horrelakoak hainbat txoko ezberdinetan.

Antzuolan ez dugu gune gehiegirik gure asti librea igarotzeko, kirola egiteko, gure lagunekin jolasteko, batez ere euria edota eguraldi txarra egiten duenean. Hala ere, penagarria da, hau horrela izanda Antzuolarentzat urrea baino gehiago balio duen espazioa behar bezala zaintzen ez jakitea, eta horretan ez asmatzea... Zer dela eta horrelako jokabidea? Azken batean, guztion kontrako jokabide okerrak dira, ondoren guztion diru publikoarekin ordaindu behar ditugunak.

Zentzu horretan, guztion ardura eta betebeharra da pilotalekuo eta beste espazio publikoetako materiala eta guneak zaintzea, eta ez bakarrik errespetatzea, errespetaraztea ere bai; hau da, ez dezagun begiratu beste aldera horrelakoak gertatzen direnean. Guztionak diren espazioetan guztion eskuetan dago erabilpen egoki bat ematea eta erabilpen oker horiek salatzea. Egin dezagun ahalegin berezi bat horrelakoak berriro gertatu ez daitezen.

zuzendaritzakoengan, eta duten teknokrata arimak euren hausnarketak eta portaerak blai egiten ditu.

Duela hamarkada batzuk Arrasateko kooperatibismoak errealitatera egokitzea bere gain hartu zuen, goi mailako balio gisa (egokitu edo hil). Ildo horretatik jarraituz, edozein aldaketa egokitzapenaren ikuspegi nagusiaren aldetik hartuko da. Lehenik eta behin, egokitu beharra (estrategia teknikoak hartu beharra), eta, ondoren, gure arima kooperatibistan eraginak izan ditzaketen arazoak konponduko dira. Bide horretan, bestalde, ikuspuntu baikorrak nagusitzen dira, erroka berri guztiak aukerarako leihotzat hartuz. Mugimenduaren zuzendaritzak globalizazioaren fenomeno eta horren internalizazio eragina kolokan jarriko dituzten elementuak ez baditu sartzen, errealitate berriei eta horien ikuspuntu guztiei buruzko hausnarketa egiteko aukera galduko da. Argi berri hori piztea desatsegina bada ere, egungo egoera baino erakargarriagoa ez den egoera antzematen delako.

Honako galdera eta errefusak planteatzen ditugu:

1. Lanpostuak mantendu eta sortzen dira hemen internazionalizazioari esker. Era berean, hau ona da beste herri eta beste jende batentzat, korporazioaren ezarpenek kanpoan enplegua eta ondasunak sortzen dituztelako. Hori ez da izan Frantziako Estatuko Branten Kasua, non enplegua suntsitu egin den Fagor etxetresna elektrikoak eragindako absortzioaren onuran, etorkizunean izango ez den moduan, lehenago edo beranduago krisi ekonomikoan sartzen bada, aurreikus

daitekeen bezala. MCCk atzerrian ezarri dituen enpresek koltxo funtzioa beteko dute, zeinari airea kenduko zaion, nahi denean produkzioa beheantzen egiten duen eskaera batera egokitzeke.

2. Zer esan nahi du nazioarteko merkatuak MCCren zerbitzu eta produktuen jarrera lehiakorren kontraste jokalekuak izango direla diotenean? Hemengo kooperatibetako kooperatibistok ditugun lan eskubide eta baldintzak behar bezala presioa jasango dutela.

3. MCC mundura atera da arrazoi egoistak direla bide (enpresa multinazionalek dituzten arrazoi antzer), jatorrizko herrian duen tokia mantendu ahal izateko. Hemen dugun enplegua finkatzeak beste herrietako langileen esplotazioa badakar, horrek esan nahi du hastapenetako espiritu kooperatibistatik oso urruti jarri garela. Egia da muga hori aspaldi gaititu duela MCCren esperientzia kooperatibista, baina internazionalizazioa urrats berria da gure mugimenduaren barne desberdintasun sozialaren prozesuan.

4. Diote badela asmorik espiritu kooperatibista MCCk atzerrian sortzen dituen enpresetara eramateko. Baiez-tapen hori ez da oso sinesgarria ezta oso koherentea ere, enpresa horien eginkizuna, aditzera eman den bezala, enpresa nagusiekiko mendeko zeregina betetzea delako, eta ez bairik gabe, zeregin hori ahalik eta hoberen bete ahal izateko erregimen kooperatibistaren mende ez izatea da. Horrez gain, egun arte, ez da benetako planik ezagutzen kanpoan sortu diren enpresak kooperatibizatzeke.

5. Bide bat bakarrik dago jabetza kooperatibista dugunok burutzen dugun esplotazioak konpentsatzeko: soldata-baldintza eta lan eskubide hobekoak ematea, hala nola beste gizarte eta ingurumen ondasunak eskaintzea, kentzen diegunaren zati baten truke. Gure enplegu eta bizi maila internazionalizazioak eskaintzen digun esplotazioari esker mantentzen delako.

Nola egiten da hori? Gure kooperatibetako esplotazio kontuetan zapalkuntza hori konpentsatuko duen dirua bideratuz.

Hemen dugun enplegua finkatzeak beste herrietako langileen esplotazioa badakar, horrek esan nahi du hastapenetako espiritu kooperatibistatik oso urruti jarri garela.

Nola egiten da hau? Gure kooperatibetako esplotazio kontuetan zapalkuntza hau konpentsatuko duen dirua bideratuz.

Gora Txikilandia eta Txatxilipurdi!

Izaskun Insausti Lasa
Arrasate

Aurtengo Txikilandian, azkeneko egunean, alaba Itziarrek ahoko aparatua galdu zuen. Hori jakin bezain laster, Txatxilipurdiko begirale guztiak aparatuen bila hasi ziren. Baita aurkitu ere -miragarria badirudi ere-. Aparatua konpondu dugu eta hor dabil gure Itziar poz-ozik berriro ere. Txikilandian primeran pasa dugu, eta zuei esker diru mordoa aurreztu dugu. Eskerririk asko, Txatxilipurdi. Segi aurrera.

Eskolak ez du euskalduntzen?

Eneritz Ugaldé
(Arrasateko EHE eta Euskal Herriak Bere Eskolako kidea)
Arrasate

Arrasateko eta orokorrean Debagoieneko haur eta gazteek ez al dute euskaraz ikasten ikastetxeetan edo? Ez al dira euskalduntzen? Eta orduan nolatan daude herritik *Iruzurrik ez!* Eskolak euskaldundu behar du! Izenburuko kartelak jarrita? Zer dela eta iruzurra? Zer dela eta eskolak euskaldundu behar duenaren inguruko horrenbesteko aldarrikapen eta kanpaina?

Batetik esan beharra dago, datu zehatzik ez eduki arren, gehienon sentsazioa bai dela gure herriko gazteek derrigorrezko hezkuntza bukatzean,

hamasei urterekin, euskararen jakitun izaten direla orokorrean. Eta gure herri eta eskualdearen kezkak euskararen jakintzaren ingurukoak izan beharrean bereziki erabilerraren inguruan izaten direla. Argi dago urtetako lana egin dela eta egiten jarraitzen ari dela, herri mailan, euskalgintzatik, euskararen erabilera zabaldu dadin. Denon lana izango dela erabilerraren zabalpenean aurrerapausoak eman daitezke. Eskolan arduraz gaindi herriko ardura izango dela, eta hor txalotzekoa da gure herriko eragileek, aisialdia euskaraz egon dadin egiten duten lana.

Baina tamalez, Euskal Herri osoko errealitatea oso bestelakoa da. Orain hiru urte, Aztiakerek eta hainbat erakunde Euskal Herri osoko gazteekin egindako azterketa batek azalarazi zituen datuak arduratzekoak baitira, hiru gaztetatik bi euskaldundu gabe ateratzen dira eskolatik; hau da, %35 baino ez da euskalduntzen. Ereduen politikaren porrota azalarazi zuen eta aldaketa sakon baten beharra agertu ere. Datu horiek ardura ireki dute Euskal Herrian eta hori dela eta Eskolak euskaldundu behar duenaren ideia lau haizetara zabaldu da gure herrian.

Eta horren adibide dira orain bi urte 107.768 herritarrek beraien sinadurekin Euskararen Erakunde Publikoari, EAEko Hezkuntza Sailari eta Nafarroako Hezkuntza Sailari eskaturiko aldaketa. Eta zein izan da beraien erantzuna? Euskalduna izateko eskubidea bermatu ezin duten lege eta plan berrien aukera mahai gaineratzea. Hitz politikak bai, baina neurri zehatzik eta bermerik, ez duten plan eta legeak. Eta horregatik Max Brisson, Tontxu Campos eta Carlos Perez Nievasi aski dela esan nahi diegu. Kokoteraino gaudela iruzur eta inposaketez, herritarren hitza eta eskolak euskaldundua izateko eskubidea ez dutelako bermatzen beraien politikak.

Eta orduan, egungo agintariak iruzurra egiten badute, zein da arazoaren konponbidea?

Denon artean euskaldunduko duen eskolaren alde Euskararen Ofizialtasuna bermatzeko eta Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzeako konpromisoa hartu eta urtarrilaren 25ean Baiona, Iruña eta Gasteizen egingo diren mobilizazioetan parte hartzea. Guk Arrasatek dei egiten dizugu urtarrilaren 25ean arratsaldeko 6etan Arbolapetan denok elkartzeko eta elkarrekin Gasteizera joateko. Iruzurrik onartuko ez dugulako! *Eskolak euskaldundu behar du!*

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak

Gora edo behera egin, zu beti irabazle.

Eurodolar Gordailu berriarekin, kapitala bermatzeaz gain, oso errentagarritasun handia lortuko duzulako: **dolarrek euroarekiko birbalioztapenaren %100, edota, bestela, %50 balio galera gertatuz gero***. Kontrata ezazu **otsailaren 29a baino lehen**.

*Hasierako erreferentzia Europako Banku Zentralaren 2008ko martxoaren 3ko FIXINGaren balioa izango da, eta amaierakoa, berriz, 2010eko otsailaren 26koa. Gordailuaren epemuga, 2010eko martxoaren 3an gauzatuko da.

Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 07/02/07 espediente z.k. duna.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**



www.udaleuskaltegiak.net

matrikula zabalik

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza 2
(Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Fax: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxe: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

HABEren dirulaguntzaz.



Egizu euskaraz!

nahi baduzu...

egingo duzu

26 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro.
HABEko diplomak. Egokitutako ordutegiak. Bekak...

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

EKONOMISTAK

ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **BERGARA**
Berpiztu programa jarri dute martxan Elosun, Uberan eta Angiozarren > 25



> **ARETXABALETA**
Udal haur eskolaren araudia aldatu gura du Udalak > 31



> **OÑATI**
Pausoka taldeak lanerako boluntarioak behar ditu > 33



> **LEINTZ GATZAGA**
Bidegorriaren eskaerei Aldundiak erantzuteko zain daude > 39

BERGARA > XV. MENDEKO GABIRIA DORREAREN BIRGAITZEA

Gabiriako birgaitze lanak inauguratu zituzten atzo Tavexek eta agintariek

ELKARLANA Udalak, Diputazioak eta Tavex Algodonerak ordaindu dituzte berritze lanak

GABIRIA Tavexek XV. mendeko eraikina erabiliko du datozen 30 urteotan

MONUMENTUA Eraikina egoera txarrean zegoen eta 2006ko uztailean hasi zituzten berritze lanak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Gabiria dorreko birgaitze lanen inaugurazioa egin zuten atzo. Tavex Algodonera lantegiak gonbidatuta, Markel Olano Diputatu Nagusia, Maria Jesus Aranburu Kultura diputatua eta Agurne Barruso Bergarako alkatea izan ziren egueneko ekitaldian.

Udalak eta Tavex Algodonera hitzarmena sinatu zuten 2005eko apirilean Gabiriako birgaitzeko lanak bi aldean artean ordaintzeko. Lanak 2006ko uztailean jarri zituzten abian eta joan den abenduan amaitu zituzten. 1,6 milioi euroko aurrekontuarekin Amenabar enpresak egin ditu lanak.

EKIMEN PUBLIKOA ETA PRIBATUA Tavex Algodonerako Manu Diazek atzo esan zuenez, "irudimenezko irtenbideak eskatzen dizkigute gaur erakundeei eta enpresei eta horren adibidea dugu hau. Ekimen publiko eta pribatuaren arteko elkarlana emankorra izan daitekeela erakusten du honek eta Diputazioari eta Udalari emandako laguntza eskertu nahi diegu. Garai batean Bergaran indar handia izan zuen ehungintza sektoreko azken lantegia da gurea eta Bergarako herria eraikin honetaz harro sentitzea espero dugu".



INAUGURAZIOA Markel Olano Diputatu Nagusia, Agurne Barruso alkatea eta Tavexeko ordezkariak, Juan Kruz Mendizabal apaizaren bedeinkapena jarraitzen. E.M.

Markel Olano Diputatu Nagusiak zera adierazi zuen: "Bergarako eraikin berezietakoa da Gabiria eta egitasmo berritzailea eta zoragarria izan delako zorioren proiektu hau aurrera erama-

tearren. Bergarako sustraietatik abiatuta, tradizioa eta modernitatea uztartu dira eta poztekoa da". Agurne Barruso alkateak ere bere poza azaldu zuen: "Aurreko agintaldian hasitako lanari jarrai-

pena ematearren harro gaude eta gure herrian hain garrantzitsua izan den ehungintzaren etorkizuna oparoa izan dadila". Hitzen aurretik, dantzariak aureskua eskaini zieten bisitariei eta Juan

Kruz Mendizabal apaizak eraikina bedeinkatu zuen. Era berean, Tasio Arbella proiektuaren arduradunak egindako lanen azalpenak eta eraikinaren inguruko datuak azaldu zizkien bisitariei.

Tavex Algodonera: Bergarako azken ehungintza enpresa, mundu zabalean

Gabiriako birgaitze lanetarako Udalak eta Diputazioak 780.000 euro ipini dituzte, eta Tavexek 900.000 euro inbertitu ditu. Eraikina Udalarena da eta Tavexek datozen 30 urteotan erabiltzeko eskubidea izango du. Gaur egun Tavex Algodonera SAK bost lantegi ditu Brasilen, bi Mexikon, bat Txilen eta horiei Maroko, Valentzia eta Elorregiko lantegiak gehitu behar zaizkie. Gaur egun 5.000 langile inguru ditu taldeak. Lantegiko zerbitzu orokorrak Gabirian kokatu dituzte eta 30 lagun ari dira han lanean. Manu Diaz Tavexeko idazkari orokorraren hitzetan, "1846tik gure lantegia San Antonion egon da eta bertan jarraitzea zen gure asmoa". Gabiria dorreko zerbitzuak Europara eta Marokora zuzenduta daude. Monumentu historiko-artistiko izendatu zuten Gabiria 1964an. 2002an, Jaurilaritzaren Monumentu izendapena jaso zuen. Gabiria dorrea XV. mendean hasi ziren eraikitzen eta XV-XVIII. mende bitarteko elementuak batzen ditu.



Aranburu, Olano eta Barruso Manu Diazekin, jasotako oroigarriak erakusten. E.M.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 19	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Domeka, 20	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Astelehena, 21	Fernandez	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Martitzena, 22	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Eguaztena, 23	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Eguena, 24	Español	Arabako Etorbidea, 14	943 79 18 65
Egubakoitz, 25	Ruiz	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09

BERGARA

Zapatua, 19	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 20	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 21	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 22	Alvarez	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 23	Urrutikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Eguena, 24	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Egubakoitz, 25	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05

OÑATI

Zapatua, 19	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 20	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 21	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 22	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 23	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 24	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitz, 25	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETA

Zapatua, 19	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 20	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 21	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 22	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 23	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 24	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitz, 25	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitela.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramio.....	945 44 53 40
Arexabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udaltzaingoa	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Arexabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramio.....	945 44 50 33
Arexabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzaria (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67

Kiroldegia	
Aramio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Arexabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Arexabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Arexabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecor, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecor, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:30, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaturre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomia-toan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaturre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertzeta, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramio	Arrasate
08:30	09:00	08:05
	10:15	10:30
	11:15	11:30
	13:10	13:45
	16:20	17:00
	17:35	17:50
	19:15	19:30
	20:10	20:25
Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23		

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 19

Behe-lainoa izango da, eta kostako zaio garbitzea. Hala ere, oro har, giro ona izango dugu; oskarbi egongo da, eta tenperatura epela izango da.




Domeka, 20

Egun ederra izango da domekan. Tenperaturak bere horretantxe jarraituko du, epel eta gustagarri. Zerua oskarbi egongo da, laino apurrik gabe.

EUSKAL HERRIAN

Giro ona, epela eta eguzkitsua izango da Euskal Herri osoan aste bukaeran. Batez ere, kostaldean egongo da garbi, barnealdean behe-lainoa izango dugu-eta. Haizea oso ahul ibiliko da zapatuan, noraezean, baina domeka parterako baretu egingo da. Gozatzeko moduko bi egun.



oharrak eta deialdiak

BERGARA

>1956an jaiotakoek bazkaria egingo dute

1956an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute hilaren 26an, zapatua, Zabala jatetxean. Hantxe eman behar da izena (943 76 20 07). Bihar, zapatua, da azken eguna.

ELGETA

>Podologo zerbitzua izango da eguenean

Podologoaren kontsulta egongo da hilaren 24an, eguena. Interesa dutenek Nati Arrietari deitu behar diote (943 76 80 77).

ARRASATE

>Emakumeendako ikastaroak antolatuta dituzte

Martxora bitartean hainbat ikastaro daude Emakume Txokoen: pilatesa, musikoterapia, zahartzen ikastea, autoestimua eta hazkunde pertsonala, euskal dantzak eta barretzerapia. Argibideak, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

ARETXABALETA

>'Gorputzaren musikak' tailerra egingo dute

Gorputzaren musikak delako tailerra antolatu du Loramendi elkarteak urtarrilaren 31rako. Musikaren laguntzarekin, sentitzeko, pentsatzeko... espazioa irekitzen irakatsiko dute. Izenematea, Loramendi euskara elkartearen (943 77 09 70 edo loramendi@topagunea.com).

BERGARA

>Santa eskean irteteko lehenengo entsegua

Santa Ageda bezperan kantuan irteteko dira Aranzadi ikastolako helduak, eta horretarako lehen entsegua martitzenean, hilak 22, egingo dute, ikastolako plazako egoitzan, 19:00etan (sarrera, Herri Lagunak kaletik).

ANTZUOLA, ARAMAIO

>Astelehenean etorriko da KZguneko begiralea

KZguneko dinamizatzailea astelehenean, hilak 21, egongo da gelan, 09:00etan, Aramaion, eta 11:00etan Antzuolan. Ikastaroren bat egin nahi duenak bertara joatea besterik ez dauka.

ARRASATE

>Bi ikastaro antolatu ditu Ekin elkarteak

Eskulan eta orratzlan ikastaroak antolatu ditu Ekin emakume elkarteak. Izen emateko, deitu 943 79 83 70 telefono zenbakira.

ELGETA

>Munduko dantzen ikastaroan izena emateko aukera dago Elgetan eta Eskoriatzan

Munduko dantzen ikastaroan parte hartzeko aukera dago Elgetan eta Eskoriatzan. Elgetan, etzi batuko dira, Espaloian, 11:00etan, eta izenematea zabalik dago udaletxean (943 76 80 22). Eskoriatzako taldean beti eman daiteke izena. Argibideetarako, idatzi Patxi Monterori (patximontero@euskalnet.net).

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA

Astelehena, 14

1 °C

MAXIMOA

Martitzena, 15

15 °C

ASTEKO

EURIA (l/m²)

8,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	14 °C	3 °C	0 l/m ²
Eguena, 10	14 °C	10 °C	0 l/m ²
Egubakoitz, 11	12 °C	4 °C	34,9 l/m ²
Zapatua, 12	12 °C	2 °C	1,2 l/m ²
Domeka, 13	11 °C	7 °C	0 l/m ²
Astelehena, 14	12 °C	1 °C	0 l/m ²
Martitzena, 15	15 °C	6 °C	25,1 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA URTARRILEAN



Ilbehera

1

Ilberri

8

Ilgora

16

Ilbete

22

ARETXABALETA

>Aratusteetan makillatzen ikasteko aukera

Aratusteetan zela makillatu irakatsiko dute. Nork bere moztaroea erotea gomendatzen dute. Ikastaroa datorren eguenean izango da, eta izenematea zabalik dago Loramendin (943 77 09 70). Doan da.

OÑATI

>Natur Eskolako irakaslearen hitzaldia

Gure herriko hamaika txoko eta istorio delako hitzaldia egingo du Imanol Biain Natur Eskolako irakasleak eguenean euskaltegan, 18:15ean.

OÑATI

>Erretiratuak Tolosako Aratusteetara doaz

Pake-Lekuko erretiratuak Tolosako Aratusteetara joango dira otsailaren 5ean. Txarrelak salgai daude.

ARRASATE

>Bi ikastaro daude Arrasate Yoga Elkartearen

Thailandiar masa-jea lantzeko eta norbera ezagutzeko taldeak osatzeko dei egin dute. Argibideak: 616 96 57 95.

BERGARA

>Berrikeren taldeak afaria egingo du gaur

Berrikeren taldekoek elkar ezagutzeko afaria izango dute gaur, egubakoitz, Oxirondo elkartearen. Plazan batuko dira 20:00etan. Argibideak, Jardunen.

kale inkesta

Diputatu nagusia ibarrean izan da; zer eskatuko zenioke?



Jun Luis Bengoa
Langilea
Eskoriatza



Francisca Pagaldai
Erretiratua
Eskoriatza



Eugenio Crespo
Erretiratua
Eskoriatza



Marta de Sousa
Langilea
Eskoriatza



Santi Roman
Langilea
Eskoriatza

Autobideari dagokion guztia ondo egin dezala, gai horrek herriari asko eragiten baitio. Eta, bestalde, AHT ahal bada ez egiteko, nahiz eta bada-kidan hau ez dagoela Aldundiaren esku.

Arbiñozteko bidetik has dadila konponketak egiten, etxe berriak egiten direnetik dena apurtuta baitago. Bestalde, herriko hainbat iturri zahar ere konpontzeko eskatuko nioke.

Diru pixka bat utz dezate herrian. Batez ere, etxe gehiago egin dezate eta inguruak txukunatu. Ni erretiratua naiz, eta ni bezalakoentzako egoitza handiagoa egitea eskatuko nioke.

Gazteentzako gauza gehiago egin dezala eskatuko nioke. Eskoriatza herri txikia izanda, merkataritzari bultzadaxo bat ematea ere eskatuko nioke, denda gutxi baitaude herrian.

Autobideko obrak direla eta, bertan sortzen den zikinkeria zaintzeko eskatuko nioke. Nire ustez, dirua Donostian gelditzen da, eta beste herri batzuetarako ez da ezer gelditzen.

5 galdera...

Ziortza Arizabaleta

GAES zentroko arduraduna
Bergara

1. Zuk ikusten duzunaren arabera, zergatik sortzen dira entzumen arazoak?

Arrazoi ezberdinak daude. Alde batetik, genetikoa edo herentziakoa izan daiteke, entzumena galtzen joaten delako ere sor daiteke. Beste arrazoi bat zarata handiena izan daiteke, bai lanagatik, bai musika ozen entzuteagatik. Gaixotasunengatik ere izan daiteke, batez ere txikitzen menigitisa pasatu badu umeak, edo txarranpina pasatu badu, baita otitisa pasatu badu ere.

2. Zein adinetan izaten dira entzumen arazo hauek?

Adin guztietan izaten dira, baina batik bat adineko jendearengan. Arrazoa, gehienbat, entzumena makaltzea edo galtzen joatea izaten da. Umeetan ere gerta daiteke modu berean.

3. Zeintzuengan gertatzen dira gehiago entzumen arazo hauek, gizezkoengan ala emakumezkoengan?

Nire iritziz, gizezkoengan. Azkenean, gizek beti egin izan dute lan zarata handiagorekin, eta, gainera, lehen, lanean, ez zuten entzumena zaintzeko babesik erabiltzen. Emakumeek, aldiz, duela 15-20 urte arte etxean egin izan dute lan. Horregatik izaten da gizezkoengan arazo hori larriagoa.

4. Entzumen arazoak konpontzeko tratamenduak garestiak dira?

Garestia edo merkea, hori oso subjektiboa da. Azken baten, bizi kalitatea norberak baloratu behar du. Baina egia da jende askorentzat, izan ditzakeen diru sarrerak kontuan hartuta, garesti izan daitekeela; erretiratuen dako, esaterako. Baina hori norberak ikusi behar du.

5. Zer gomendatuko zenuke, bada, entzumena zaintzeko?

Zaratekin kontuz ibiltzeko. Zarata handia dagoen leku batean entzumena tapoiekin babestea. Infekzioa edo otitisa edukiz gero, ondo zaintzea otorrinologoenarengana joanez, baina batez ere prebentzioa.



txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Aparkalekua egoera txarrean



Eskoriatzar batek bidali digun argazkiarekin, Eskoriatzako Santa Ana eta Santa Marina arteko aparkalekua oso egoera txarrean dagoela salatu du. Euria egiten duenean, asteon moduan, dena putzuz eta lokatzez betetzen da, argazkian ikusten denez, eta autoa aparkatzea zaila izaten da. Udan, berriz, hautsa besterik ez da azaltzen aparkalekuotan.

asteko datua

6

Horiek dira Chris Colemanek Realaren entrenatzaile lanetan eman dituen hilabeteak. 2007ko uztailaren 1ean etorri zen, eta 2008ko urtarrilaren 17an dimititu egin zuen, Badiola presidentearekin zituen arazoak zirela eta.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

ARRASATEKO UDALA > ALDERDI SOZIALISTAREN SALAKETAK

Obra eta Zerbitzu Saileko buruak ukatu egin du Alderdi Sozialistari boikota egiten ibiltzea

PSE-EE joan egin da Obra Sailetik; dio "boikota" eta "kanpaina zikina" egiten dietela

Kaleko garbiketarekin lotutako proposamen bat dela-eta piztu da ika-mika

UBANE MADERA > ARRASATE

Udal gobernuaren oposizioko alderdi nagusiak, PSE-EEK, jakinarazi du Obra eta Zerbitzuen batzordetik alde egin duela. Adierazitakoaren arabera, garbiketa-

ren araudiarekin lotutako proposamen bat aurkeztu zuten, baina "Obra batzordeko presidentek eta gainerako alderdi politikoez ez dute hura eztabaidatu gura izan". Hori dela-eta joan dira Obra batzordetik.

PSE-EEK dio udalerriko alderdi politikoez bazterkeria egiten dietela euren proposamenak Udalan ez eztabaidatzeko. Konbentzita daude alderdi politikoz guztiak "EAEren txotxongilo hutsak" direla eta guztiak akusatatu dituzte euren kontrako "boikota" egiteaz, "kanpaina zikina" baten bitartez. Paco Gartzia bozeramailearen esanetan, "heldua den demokrazia batean, herritarrek gura dutena da politikariek herriarendako proposamen eta irtenbideen gainean eztabaidatzea".

150 ETA 2.000 EUROKO ISUNAK

Sozialisten proposamenari dagokionez, kale garbiketaren araudiaren gainekoa da. Proposatutako zuten pintadak egin, kartelak ipini, espaloiak zikindu edo paskinak botatzearren 150 eta 2.000 euro arteko isunak ipintzea.

PROPOSAMENA AZTERTUTA

Salaketa horien guztien aurrean, Patxi Arburuak, Obra eta Zerbitzu eta Auzoen Saileko zinegotziak, GOIENKARIARI jakinarazi dio PSE-EEren proposamen hori aztertu dutela: "Berak egindako proposamena aztertu dugu. Are gehiago, bi aldetatik aztertu dugu: politikariok aztertu dugu, behintzat gure alderdiko-ek, eta baita Zerbitzuetako teknikariek ere. Eta erantzun egin

zitzaien; abenduaren 3ko aktan daukagu jasota. Egun horretan bertan ere zabaldu zitzaizkien gainerako partiduei proposamen hori. Adierazi zuten begiratzeko kontua zela. Mahai gainean ez dugu eztabaidatu gainerako alderdiekin, baina badakite zein proposamen den Alderdi Sozialistak egindakoa". Gaineratu du sozialisten proposamen horrek "puntu interesgarriak" dituela, baina baita gabeziak ere; uste dute "larregizko zigorrak" proposatzen dituztela: "Hori baino lehen herritarrek kontzientzia-ko kanpaina egitea beharrezkoa litzateke", dio abenduko aktak, eta gaineratzen du: "Teknikariak araudiko eduki batzuk aplikatu ahal izatearen gaineko zalantzak agertu ditu". Hori

horrela, Udalak kaleko garbiketarekin "orain arte moduan" segitzeko asmoa duela dio aktak.

"ARRAZOIRIK EZ"

Bestalde, kontu hori dela-eta PSE-EEK Obra Saila utzi izanaren aurrean, berriz, Arburuak dio euren ez zaiela "ez ondo, ez gaizki iruditu. Euren ikusi behar dute zer egin euren udal jardunarekin. Baina joateko arrazoirik ez dute. Akaso hanka sartu genuen sozialistek proposamena aurkeztu zuten egun berean gainerako alderdiei ez banatzearen, baina abenduaren 3an eman genien".

Sozialisten "boikot" eta "kanpaina zikinaren" gaineko salaketan aurrean, berriz, Arburuak zera dio: "Hauteskunde kanpaina gaude. Ez dute arrazoirik halakorik esateko. Eskatutako informazio guztia ematen diegu eta egin izan dituzten beste proposamen batzuk aztertu ditugu".

Gainerako alderdiak "EAEren txotxongilo" diren salaketari dagokionez, "inoren txotxongilo ez da inor", dio Arburuak.



U.M.

Obrak bukatuta, Santa Teresa erabil daiteke

Bukatu dituzte Santa Teresa eliza eraberritzeko lanak. Hori horrela, etzi, domeka, meza esango dute Santa Teresan, "normaltasunera bueltatuz", Pedro Uranga parrokoaren esanetan. 12:30erako egingo dute eukaristia.

Oro har, elizaren irisgarritasuna bermatzeko egokitzapen obrak egin dituzte; eraikinaren segurtasuna ere hobetu dute eta, besteak beste, teilatua, zorua eta berogailu sistema berriak dituzte. 400.000 euro inguru kostatu dira lanok, eta ordaintzeko dirua batzen dabilta Santa Teresan. Norbait lagundu gura badu: Euskadiko Kutxa: 3035 0055 17055 104 1905; Kutxa: 2101 0097 45 01 11 18 24 08; edo Caixa: 2100 1972 02 02 00 07 67 81.

GIZARTEA > EMAKUMEA

Martxoaren 8ko kartel lehiaketan, 900 euroko saria

U.M. > ARRASATE

Argitaratu dituzte Martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketaren oinarriak. Haien arabera, emakumeen parte-hartze sozio-politikoaren garrantzia azpimarratu nahi dute, Arrasaten edo orokorrean. Hori horrela, kartelean ipini beharrek leloa librea izango da, baina aipatutako gaiarekin zerikusia izan beharko du. Lanak entregatzeko epea otsailaren 15ean bukatuko da, eta Biztanleen Arreta Zerbitzura eraman behar dira.

Sariari dagokionez, azpimarratzeko modukoa da; izan ere, irabazleari 900 euroko saria emango diote.

BARRETERAPIAREN ORDUTEGIA

Bestalde, Emakume Txokotik beste abisu bat bidali dute urtariletik martxora arteko ikastaroekin lotuta: barreterapia ikastaroaren ordutegia oker dago. Ipintzen du eskolak izango direla 16:00etatik 18:00ak arte. Bada, eskolak geroago izango dira: 18:00etan hasi eta 20:00ak bitartean, hain zuzen ere.

> ERRETIRATUAK

Inauteriak ospatuko dituzte Abaroa elkarteak

Otsailaren 5ean, 18:30ean, ospatuko dituzten Inauteriak Abaroan. Parte hartu gura duenak gonbidapenak hartu behar ditu urtarrilaren 21etik 29ra bitartean elkarte bulegoan. Bazkide txartela aurkeztu beharko da. Jakinarazi dute, baita ere, aurtengo kuotak (sei euro) kobratzen jardungo dutela martxoaren 14ra arte.

((112))
SOS DEIAK

- Neurrira egindako plantillak.
- Gurpil-aulki tolesgarri eta elektrikoak.
- Eskailerak igotzeko aulkia.
- Garabiak, oheak, eta abar.



Orto-Lagun

Kontzezino kalea 2 ARRASATE Tel.: 943 79 89 34

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ONDAREA > ANTZINAKO BIDEAK

Ibilbide historikoak berreskuratzeko eskatu die EAJk Arrasate eta Aretxabaletako udalei

Larrino eta Bedoña arteko bidea egokitzeko eta Bedoñatik Arantzazura doan Erromesen Bidea indartzeko eskatu dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko eta Aretxabaletako EAJ alderdiko ordezkariak Bedoñatik Arantzazura doan Erromesen Bidea berrindartzearen gainean prentsaurrekoa egin zuten herenegun.

Bi eskaera egin zizkieten Arrasate eta Aretxabaletako udalei: batetik, Larrino eta Bedoña arteko bidea egoki dezatela; eta bestetik, Bedoñatik Arantzazura doan Erromesen Bidea berrindartzearen gainean prentsaurrekoa egin zuten herenegun.

ERROMESEN BIDEA

Bedoñatik Arantzazura doan Erromesen Bideari dagokionez, EAJk uste du "udalek balio gutxi" ematen diotela bide horri gaur egun, "kultura, ingurumen eta turismoaren garapenerako".

Gaineratu du bide horren gaineko "informazio eta promozio bitartekorik eza" dagoela. Eta



EAJ Aretxabaletako eta Arrasateko EAJko ordezkariak, Kulturaten. **TXOMIN MADINA**

gainera, zati baten, hau da, Bedoña eta Larrino bitarteko bidearen baldintzak "txarrak" direla.

Hori horrela, proposatzen dute Erromesen Bide hori berrindartzearen gainean prentsaurrekoa egin zuten herenegun. Hori guztia Arrasate, Aretxabaleta eta Oñatik udalen, Foru Aldundiaren eta, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren artean egitea proposatzen dute.

BEDOÑA ETA LARRINO

Bedoña eta Larrino bitarteko bidearen baldintza eskasari, berriz, ibilbide hori egokitze-

ko beharra nabarmendu zuten EAJko ordezkariak, batez ere oinezkoiei eta txirrindulariei begira, gaur egun "erabilera aukera murriztak" dituelako.


URKULU: DEBAGOIENKO BIRIKIA

Halaber, eta bestelakoan artean, Arrasateko eta Aretxabaletako EAJkoek pentsatzen dute "lurralde koherentzia handiagoa" eman goioketela horrek "Urkulu inguruari". Eta baita ere Debagoieneko birikia dela Urkulu eta, horrez gain, "guztiz hiritartuta dagoen haranaren lur eskasia arindu egiten duela".

Erromesen Bidea: Bedoña eta Arantzazu, lotuta

Argazkiko planoak erakusten duen moduan, horixe da EAJk defendatu duen Erromesen Bidea: Bedoñatik Arantzazura joateko erromesek eta inguruko herritarrek antzina erabiltzen zuten bidea.

Horrez gainera, "Oñatiren eta Leintz eta Deba bailaretako lotura" moduan ere definitu du EAJk bide hori, "bailaran garraio-bide modernoak garatu aurretikoa". Eta Erromesen Bidearen alde egiteko gogora ekarri dute "kalitatezko mendi-ibilaldien garapen handia" dagoela gaur egungo gizartearen.



Bedoñatik Arantzazura doan bideak Urrexola eta Arrikruz zeharkatzen ditu. **EAJ**

MERKATARITZA > SALTOKI BERRIA

Diseinua eta modernitatea uztartuta Udesign-Shopen

Ugarte ahizpek zabaldu dute denda, Itziar, Begoñe, Dorleta eta Arantzazuk

U.M. > ARRASATE

Dekorazio berritzailea oinarri duen denda zabaldu zuten joan den egubakoitzean Arrasaten: Udesign-Shop.com. Izenak esaten duen moduan, baina, Internetekin lotura handia du. Hala ere azaldu du Dorleta Ugartek, ugazabetako batek: "Ikusten genuen denda leku aldetik murriztuta gaudela. Produktu mardoa dago, nork bere etxe edo bulegoan neurri jakinak ditu eta hori guztia ezin da erakutsi. Gura genuen katalogo bat atera. Baina mundu honetan gauzak oso agudo doazenez, paperezko katalogoa urte batetik bestera zaharkituta geratzen da eta orduan egin duguna da

webgunearen bidez gure produktuak eskaini, eta bertan ikus daitezke neurri guztiak eta errazago. Jendeari erraztasunak eman gura dizkiogu; denboraz txartxo gabiltza denok ere, eta lasaiago gauden momentuan erosketak egitea da gure helburua eta bitartean kontsultak egitea ere bai".

DISEINUA ETA MODERNITATEA

Denda fisikoari dagokionez, egubakoitzean zabaldu zuten (Gose musika taldeak lagunduta). "Alex Michbronn arkitektoak egin du eta daukagun produktu bakoi-tzak bere diseinatzailea dauka, mundu mailan oso ezagunak direnak", esan du Dorletak.

Dendako produktuen ezau-garriak, berriz, hala deskribatu ditu Ugartek: "Nahastu egin ditugu. Diseinuzko altzarietara joan gara, baina ukitu modernoekin; ez dugu nahi diseinuzko hoztasun hori bakarrik".



INAUGURAZIOA Jende ugari izan zen inaugurazio ekitaldian. **UDESIGN-SHOP.COM**

> INGURUMENA

Garagartzako ortu ekologikoen proiektuak urrirako bukatuta egon beharko du

Tokiko gobernu batzarra egin zuen astelehenean udal gobernuak, eta, landutako gaien artean, onartu egin zuen Garagartzako ortu ekologikoen gaineko proiektuarekin lotutako puntua.

Haren arabera, egitasmo hori berreskuratu eta eguneratu egingo dute. Atzo onartutakoaren arabera, hilabeteko epea zehaztu dute eguneraketa lan horiek egiteko.

Gero, Udaleko Obra sailak esan duenez, proiektua gauzatzeko lanak lizitaziora aterako dituzte. Izan ere, aurtengo udal aurrekontuan aurreikusitako ortu ekologikoen proiektua gauzatzeko.

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

ANTZERKIA > 'AMAMAREN MEMORIA' ANTZEZLANA

Benetako istorio latza Amaiako taula gainean

Alzheimer gaitzaren alde gizatiarra kontatzen du 'Amamaren memoria' lanak, eta Debagoieneko Kepa Errasti eta Mikel Laskurain aktoreak daude

A. ARANBURUZABALA> ARRASATE
Amamaren memoria ahultzen ari da; zuhaitzetik erori eta galzen diren hostoak bezala da. Amamak etxea erre duenez, alabaren etxera doa bizi izatera. Familia osoaren artean oroimenak berreskuratzen saiatuko dira, estimulu joko bat eratzten, tragediak ez dezan dena ahaztera eramana. Horrela laburbil daiteke domekan Amaia antzokian, 19:30ean, Pok produkzioak taldeak egingo duen antzezlana.

Alzheimerarren aldeko elkarrekin esanetan, gaitzaren prozesua ondo islatzen duen lana da: "Alzheimer gaixotasuna humanitate puntu handitik kontatu nahi izan dugu", azaldu du Olatz Beobide taldearen sortzaile eta aktoreak: "Gaixotasunaren alde kezagarria, modu larritik baino

gehiago, fantasia eta alaitasuna erabiliz kontatzen saiatu gara. Anekdotetan jarri dugu indarra; hori dela-eta, momentu komikoak ere badaude", gaineratu du Beobidek.

DEBAGOIENENKO AKTOREAK

Antzezlanean protagonista nagusiak amama (Axen Egaña) eta istorioaren kontalaria den 14 urteko iloba (Yannick Vergara) dira. "Axenek 40 urte zeramatzen antzerkirik egin gabe; obra honekin salto profesionala eman du eta jendeari asko gustatu zaio", esan du Beobidek.

Kepa Errasti eta Mikel Laskurain Debagoieneko aktoreek ere antzezlanean parte hartzen dute. Errasti kontalariaren anaia da eta Laskurain, berriz, aitaren paperean ikusiko dugu.

Horiez gain, Olatz Beobide, Joxelu Berasategi eta Lierni Fresnedo daude.

Antzezlanean zuzendaritza lanak, berriz, Jean Marie Broucaretek egin ditu, eta musikaren zuzendaritzaren ardura Pascal Gaignek izan du.

IKUSLE GUZTIENTZAT EGOKIA

Herve Jaouen (1946, Quimper) idazle bretoiaren *Mamie-memoire* eleberrri arrakastatsuen ego-kitzapena da *Amamaren memoria* antzezlana: "Benetako istorio baten oinarritutako eleberria da. Autoreak ezagutzen zuen familia baten istorioa kontatzen du; hain zuzen ere, etxeko alzheimer gaixoa zaintzeko familiak egiten duen ahalegina. Broucaretek, eleberria irakurriaz bat, antzezlana baterako gidoi aproposa zela ikusi zuen", azaldu du Beobidek.

Domekan Arrasaten euskaraz egingo duten antzezlana ikusle guztientzat aproposa dela esan du aktoreak. Martxoaren 8an Oñatin izango direla gaineratu du.



DEBAGOIENENKO BI AKTORE Amamaren memoria antzezlanean Kepa Errasti eta Mikel Laskurain aktoreak daude. POK PRODUKZIOAK

KONTZERTUA > 3.60 ARETOA

UEK hirukotea, besteak beste, 3.60 aretoan gaur

Rockaz, zentzu zabalean, gozatzeko aukera izango da gaur 3.60 aretoan

A. ARANBURUZABALA> ARRASATE
Jesus Mari Agirretxea *KEU* gitarra-jole ezagunak gidatzen duen UEK hirukotea izango da gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan. Mikel Arakistainek (Etsaiak, Fjord) eta Jon Gurrutzagak

(Arima Beltza) ere osatzen dute taldea. Rock gogorrean oinarritutako kontzertua egingo dute.

Gaueko beste protagonista batzuk herriko hainbat musikari izango dira: Des-Kontrol, Enboskada eta The Motherfuckers taldeetako kideek osatutako taldeek kantu ezagunen bertsiokoak egingo dituzte.

Horrez gain, Cobra taldeak borobilduko du kartela. Sout-hern rocka eta heavy doinuen arteko nahasketa egiten dute.



UEK 3.60 aretoan joko dute gaur, egubakoitza.

GOIENKARIA

> HISTORIA ZINEMAREN BIDEZ JARDUNALDIAK

Urtarrilaren 22an 'Erresumako piztia' filma aztertuko du Alvaro de Aragonen Kulturaten

Historian zehar gertatutako hainbat gertakari zinemaren bitartez aztertuz herritarrei beste eskaintza kultural bat eskaintzea dute helburu Arizmendik EHUren laguntzarekin antolatutako jardunaldiek. Asteon hasi dira eta otsailaren 19ra bitartean, martitzenero, Kulturaten, 18:00etatik 21:00etara izango dira. Lehenengo edizio honetan umorezko zinema hartu dute ardatz. Saio bakoitze film bat aztertuko dute.

Urtarrilaren 22an, Erdi Aroan kokatutako *Erresumako piztia* filma emango dute. Filma ikusi aurretik, Alvaro de Aragon EHUko irakaslearen azalpenek testuinguruan kokatuko dute hura.

> 'TRIKILI-TRAKALA' FANTZINEA

Gaztetxearen 'Trikili-Trakala' fantzinearen 19. zenbakia kaleratuko dute aste bukaeran

Trikili-Trakala fantzineko irakurleekin duten hileroko konpromisoari kale egin gabe, aste bukaeran kalean izango da gaztetxe-ko aldizkariaren 19. zenbakia. Gabonetako ale zoro eta bereziaren ostean, oraingoa ohikoa izango da eta irakurgai izango diren gaien artean, Bilboko Erribera kalean okupatu berri duten etxearen gaineko erreportajea dago. 100 ale banatuko dituzte eta Alde Zaharreko tabernetan izango da doan eskuragarri. Otsaileko zenbakian parte hartu nahi duenak bidal ditzala, bada, kolaborazioak trikili-trakala@gaztesarea.net helbidera.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritate eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebeldun hizkiak




Txitxinpe

**Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Foto Depilazioa



Azkenik bukatu egin da ilearen arazoa

Ezagutu laserraren atsegina

Depilazio azkarra, progresiboa eta ziurra.

Besapeak + Izterondoak

99€

Urtarrilaren 14-tik 31-ra

- Emaizak
- Segurtasuna
- Profesionaltasuna

TRATAMENDU GUZTIAK ESPEZIALIZATURIKO IKUSPENAREKIN.

Debagoieneko estetika zentrorik handiena.
Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA

Bixente ferrer, 1

Informa zaitez:

943 79 52 17

NOTHING WITHOUT

The Shop

arrasate

%50

sudaderak
prakak
txupak
alkondarak
poloak
jertseak...



**URTARRILAK 19 TIK
AURRERA!!!**

SNOWBOARD

%20

ATLETISMOA

Arrasateko atletak ondo Euskadiko Txapelketan

X.U. > ARRASATE

Joan den astean Euskadiko atletismo txapelketan izan ziren Arrasateko taldeko atletak, eta Anoetan lan ona eginda itzuli ziren etxera.

URREZKO HIRU DOMINA

Lortutako marken artean, Chen Jian-ek 60 metroko hesi lasterketan (9,94 segundo), Oihane Urtzelaiak luzera-saltoan (4,97 metro) eta Maia-len Axpek pertika-saltoan (2,65 metro) irabazitako urrezko dominak dira azpimarratzekoak.

Horrekin batera, Rafa Corderok zilarrezko domina jantzi zuen 60 metroko lasterketan (8,21 segundo) eta laugarren izan zen 300 metroko lasterketan (41,58 segundo); Iñigo Urribarren zarpigarren izan zen 300 metroko lasterketan (41,58) eta hamargarren luzera-saltoan (4,80 metro); Josu Revueltak zilarra irabazi zuen altuera-saltoan (1,70 metro) eta beste horrenbeste egin zuen Lore Marrek pertika-saltoan (2,55 metro); eta Lide Pagaldai hirugarren sailkatu zen pertika-saltoan (2,40 metro).

Junior mailan, berriz, 200 metroko lasterketan laugarren izan zen Iñaki Etxagibel eta bosgarren postuan helmugaratu zen Imanol Esperesate.

JUAN MUGERTZA MEMORIALA

Elgoibarren egin zuten asteburuan Juan Mugertza memoria, eta han, infantiletan 9.a izan zen Andoni Perez eta gazte mailan 17.a Martin Berrizbeitia. Javier Mentxakak eta Cesar Diezek ere hartu zuten esku lasterketan.

Amaitzeko, oraingo asteburuan parte-hartze libreko saioak egingo dituzte Anoetan, eta Zumarragan ere beste hitzordu bat izango da, krosa egingo dute-eta.

> ZIKLOTURISMOA

Abian da zikloturisten lizentziak berritzeko kanpaina

Urtero moduan, Debagoiena Zikloturista Taldeak abian jarri du 2008rako lizentziak berritzeko eta lizentzia berriak egiteko kanpaina. Horretarako, interesatuek klubak duen egoitzara joan baino ez dute: Ignazio Zuloaga 1, behe, Arrasate. Urtarrileko zapatu guztietan izango dira hantxe, 11:00etatik 13:00etara.

SASKIBALOIA > LEHENENGO MAILA

Defentsan hobetzeko asmoz joango da Mondragon Unibertsitatea bihar Lizarrara

Tabirakoren kontura urtea ondo hasi eta gero (98-92), hiru partidu jarraian irabazi dituen Promociones Legarcia izango du MUK kontrario bihar (17:30)

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Urtea amaitu moduan hasi du Ointxeko talde nagusi Mondragon Unibertsitateak, oso ondo. Bazirudien Durangoko taldea Merinoren mutilak urduritzeko besteko taldea zela –bigarren zeuden sailkapenean–, baina lehenengo zati ia ezin hobearen ondoren, durangarrak ez ziren partiduari buelta emateko gauza izan. Hala, sailkapenari begira –eta ondoren etorriko den igoera faseari begira– MUko mutilek beste aurrerapauso bat egin zuten zapatuan.

Dena dela, gauzak ondo doazenean ere egoten da zer hobetu; Arrasateko taldearen kasuan, defentsa. Zapatuan, Merinoren taldeak, denboraldian lehenengo, 80 puntu baino gehiago jaso zituen, eta hori hobetzeko asmarekin egingo dute bihar Lizarrara bidaia (17:30). Alde horretatik, biharko kontrario Promociones Legarcia sailkapenaren erdialdean dagoen taldea da, baina behetik gora doana. Joan den astean,



MALLABI Tabirako taldeko kontrarioarekin lehian, joan den asteburuan.

J.A.

esaterako, euren kontrario zuzen den Easori 74-81 irabazi zioten etxetik kanpora; eta, hain zuzen, jarraian eskuratzen duten hirugarren garaipena izan da.

KADETEAK, BIKAIN

Talde nagusia alde batera utzita, ikustekoa da MUko kadete mailako taldeak egiten dabilzan lana: batetik, MU-A taldeak eskura du Euskal Ligako kanporaketa. Aste-

buruan jokatu zuten joaneko partiduan, Brizuelaren mutilek 68-60 irabazi zieten azpeitiarrei, eta asteburuan jokatuko dute itzuliko norgehiagoka.

Horrekin batera, MU-B taldeak zazpi aste daramatza porrota zer den jakin barik. Dagoeneko sailkatuta daude lehenengo mailan jokatzeko igoera faserako; Aloña izango dute asteburuan kontrario.



GOIENKARIA

Bihar, errugbian hitzordu bikoitza Mojategin

Bihar, zapatua, errugbi-zaleek goiz eta arratsalde jarraitu ahal izango dituzte Arrasateko taldeak. 12:00etan senior mailako mutilek Irun izango dute kontrario; Arrasatekoak garaipen gosez daude, baina horretarako, ezin dituzte errepikatu joan den astean, lehenengo zatian, egin zituzten opariak. Arratsaldean, berriz, senior mailako emakumezkoek jokatuko dute (16:00), Gaztediren kontra. Bihar baita ere, multikiroleko LH3ko eta LH4ko neska-mutikoez laugarren jardunaldia jokatuko dute.

futbitoia zaldibar

EMAITZAK

Cipris-Ekaintz Taberna	4-4
Iturriotz Taberna-Kalapaxak	----
Equus-Bar Kokots	6-5
Lasagabaster-Total Disaster	12-3
THC-Betrayer	6-9
HLB 108-Dublin Irish Pub	6-4
Abokajarro-Dublin Irish Pub	3-5
Iriztu Taberna-Iluntz	2-5
AT Celaya-McAwen Dauen	5-8
Cicatruss-Saukelu Abian	4-5

PARTIDUAK

Urtarrilak 19, zapatua	Epaileak
10:00 Kalapaxak-Cipris	Lasagabaster
11:00 Lasagabaster-Dribling	Kalapaxak
12:00 Equus-Betrayer	Iriztu Taberna
13:00 Iriztu Taberna-Saukelu Ab.	Betrayer
16:00 AT Celaya-Cicatruss	Total Disaster
17:00 Total Disaster-Iturriotz Tab.	Cicatruss
18:00 Iluntz-HLB 108	Iturriotz Taberna

Urtarrilak 20, domeka	Epaileak
11:00 THC-Dublin Irish Pub	Ekaintz Taberna
12:00 Bar Kokots-Ekaintz Tab.	Dublin Irish
13:00 Abokajarro-McAwen	Bar Kokots

SAILKAPENA

	P	J
1. McAwen Dauen	21	7
2. Betrayer	16	7
3. Dublin Irish Pub	13	7
4. Cipris	13	7
5. Ekaintz Taberna	13	7
6. Lasagabaster	12	7
7. Dribling	12	7
8. Saukelu Abian	12	7
9. HLB 108	12	7
10. Iriztu Taberna	11	7
11. Kalapaxak	10	6
12. Equus	9	7
13. THC	9	7
14. Iluntz	8	7
15. Iturriotz Taberna	7	6
16. AT Celaya	6	7
17. Cicatruss	6	7
18. Bar Kokots	6	7
19. Abokajarro	6	7
20. Total Disaster	0	7

Beste urte batzuetako indartsuenak oraingoan ez daude aurrean

Zortzigarren jardunaldia jokatuko dute asteburuan, eta, sailkapenari begiratu-ta, zortzi jardunaldi horiek gauza bat utzi dute begi bistan: beste urte batzuetako indartsuenak dagoeneko ez dabilzala aurrealdean. Bestela, ikusi non dauden Lasagabaster, Dribling, Saukelu, Iriztu eta AT Celaya taldeak. Lehen, haiek ziren goialdean agintzen zutenak, baina badirudi gaur egun Zaldibarrek beste oilar batzuk dituela. Alde horretatik, bistakoa da McAwen Dauen taldeak indartsu egin duela lehenengo fase erdia, jokatutako guztia irabazi du-eta; indarrak gorde hurrengo faserako.

Asteburuari begira, berriz, kontuan izatekoa da Lasagabasterreko eta Driblingek zapatu goizean jokatuko duten norgehiagoka (11:00). Hamabina punturekin daude bi taldeak, gora egiteko asmoarekin.

bote prontuen

Idoia Ibañez > Artisaua

"Gustukoen dudana jendeari irakastea da"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Urte askotxo daramatza Idoia Ibañez arrasatearrak artisautzan; 27, hain justu ere. Azokatik azokara saltzen ibilitakoa da urte askoan, baina urteek barkatzen ez dutenez, eta hala xe ibiltzeak eskatzen duen dedikazioa handia denez, artisautza denda bat zabaltzea erabaki zuen pasa den irailean.

Zenbat urte artisautzan?

Institutua utzi nuenean hasi nintzen mundu honetan. Dagoeneko badira 27 urte. Hasieran, latoizko haria lantzen nuen, baita alpaka ere. Gerora, larrua lantzen hasi nintzen, eta horrekin batera, ehoziriak (enkajeak), bainikak, irazki-harizko ehuna eta makramea.

Nolatan zabaldu zenuen denda?

Azokarik azoka ibiltzeak asko nekatzten du pertsona, eta urteak aurrera doazen heinean, gehiago; horregatik zabaldu nuen denda, nahiz eta oraindik azokaren batera edo beste joaten naizen. Ahal dudan neurrian, nahiago dut dendan saldu azokarik azokara ibili beharrean.



Ikastaroak ere ematen dituzu?

Bai; lehen esan dudana bezala, ehoziri ikastaroa, bainika ikastaroak, eta baita makrame eta irazki-harizko ehunaren ikastaroa ere. Ikastarook dendan bertan eta Eskoriatza, Arrasate eta Bergaran ematen ditut.

Lan honetatik zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gutxien, lan handia egin behar dela artisautza mundu honetatik bizi ahal izateko. Gehien gustatzen zaidana, berriz, ikastaroetara etortzen den jendeari irakastea da. Lana gogorra da, produktua egin eta saldu egin behar delako, eta horretarako garrantzitsua da jendearekiko norberak duen tratua.

Eskulanetarako gaitasuna ikasi egiten da ala berezkoa du norberak?

Nire ustez, berezkoa den zerbait da. Gainera, bidean gauza asko uzten dira honetan jarduteko, baina edozeinek ikas dezakeen zerbait da; gustuko jarduna izanez gero, noski.

bere ustez



Ander Etxeberria

Zerrajera zaharreko lur zikinak

Azkeneko kapitulua izan da La Caixaren esku dauden Zerrajerako lurak berriro garbitu beharra. Udazkenean azaldu zuen notizia prentsak eta, obrari begiratu gero, badirudi amaituta dagoela.

Hasieratik eman ditu *sorpresak* Zerrajerako orubeak. UCEM zaharreko lehenengo eraikina botatzen hasi zirenean, su hartu zuen bidoi handi batek; eraispen lanetan ez zuten jakin erregaiarekin beteta zegoela. Ondoren, eta bata bestearen atzetik, bost

"Zerrajeran dauden etxeak (garajeak) oinarri ez hain garbietan kokatuta daude?"

olio biltegi agertu ziren 2002-2004 artean. Eraikitzen hasi aurretik, azpian zer dagoen aztertzen da, baina ez zuten lan fina egin. Orain, La Caixako eremuan ostera kutsadura kentzea etorri da. Hartutako neurriak nahikoak ei ziren, baina lurzoru kutsatuei buruzko araudia aldatu denez, zorrotzago garbitu beharra egon da. Hau horrela, informazio eskasia dela eta, galdera asko sortzen zaizkit: Zerrajeran dauden etxeak (garajeak) oinarri ez hain garbietan kokatuta daude? Edo, La Caixaren guneko obrako kamioiek, hara eta hona ibili direnean, bota duten eta arnastu dugun lokatzak/hauskak osagai kutsakorrak ditu? Eta zein izango da hurrengo kapitulua?

argazki zaharra

Urbiara bidean 1967. urtean

Arrasateko eskaut taldea da argazkikoa. Hain justu, Urbiara bidean zihoazela egindako atsedean batean atera zuten argazkia. Argazkian, lehenengo ilaran, ezkerretik eskumata, Maria Luisa Barrutiabengoa (taldeko koordinatzailea); bigarren ilaran, aurretik atzera, Amaia Errasti, Arantza Markaide eta Espe Iñarra; hirugarren ilaran, aurretik atzera, Kontxi Ruiz de Zarate, Blanka Ruiz de Zarate eta Arantza Isasmendi.

Argazkia: Arantzazu Isasmendi.
Testua: GOIENKARIA.
Urtea: 1967.



Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:

legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

GIZARTEA > HERRIKO PERTSONAIA FAMATUAK

Martzial Agirreren monografia berria kaleratuko du Udalak

Eskultorearen gainean egin den ikerketa lanik osatuena eta serioena dela diote

Aurten, euskaratu egingo dute, eta 2009an emango dute argitara

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Martzial Agirre herriko XIX. mendeko eskultore ezagunaren gaineko monografia lana kaleratuko du Udalak. Hain justu, Mikel Lertxundi eta Larraitx Larretxea ikerlariak egin duten monografia lana da Udalak kaleratuko duena.

ORAIN ARTEKO LANIK OSATUENA

Monografia hori argitaratzeko arrazoi nagusia da "orain arte Martzial Agirreren gainean egin den lan serioena eta osatuena" dela, Udaleko Ondare Artistikoko batzordeburu Mikel Elkoroberezibarren esanetan. Horren hainbat adibide ere eman ditu Elkoroberezibarrek. Esaterako, "orain arteko bibliografiaren arabera, Agirre 1864an abiatu zen Erromara ikastera eta bizi izatera. Baina Lertxundik eta Larretxeak euren ikerketan demostratzen dute hainbat urte lehenago gertatu zela hori, eta Agirreren bizimodua Erroman nolakoa izan zen deskribatzen dute".

Baina lanaren seriotasun eta osotasun horren adibide esanguratsuena Agirreren produkzio artistikoaren gainean jaso duten informazioan datza. Elkoroberezibarrek honela azaldu du: "Orain arteko lan bibliografikoek beti 25 lan aipatzen dituzte, gutxi gorabehera; besteak beste, *San Ignacio*, Mutrikuko *Churruca*, Donostiako *Oquendo*, Bergarako *Justicia*... Baina bi ikerlariak egin duten mono-



EPAITEGIA Bergarako epaitegiaren gainean dagoen *Justicia* eskultura harri tabertinoz landu zuen Agirrek.

GOIENKARIA

grafikoak Agirreren lanaren katalogo zehatza dauka, eta 80tik gora lan jaso dituzte".

Horrez gain, orain arte Agirreri egotzi zaizkion lan batzuk harenak ez direla ere jaso dute, eta, horrekin guztiarekin batera, orain arte ezezaguna zen Agirreren lan arlo bat ere dokumentatu eta aztertu dute: hark errestauratzaile gisa egindako lana, hain justu ere.

EGILE ESKUBIDEAK EROSI

Martzial Agirreren lana argitara eman ahal izateko, *Marcial Aguirre (1840-1900)* izeneko monografia erreproduzitu eta banatzeko eskubideak erosi dizkiete bi egileei, Mikel Lertxundiri eta Larraitx Larretxeari, hain justu ere. Eskubide horiek eskusiban eta betiko erosi dizkie Bergarako Udalak, 6.000 euroren truke.

Argitaratzeari dagokionez, 2009an argitaratu nahi dute Udaleko arduradunek, eta euskara hutsez kaleratuko dute. Originala gaztelaniaz dagoenez, 2008an barrena euskaratu egingo dute, lehendabizi.

Bestalde, Elkoroberezibarrek aurreratu duenez, laster aurkeztuko dute Agirreren lana, eta, era berean, egileek hitzaldia egingo dutela ere azaldu du: "Herriarrei Agirre nor zen eza-gutzera emateko asmoz".

Bergaratik Erromara, eta handik Donostiara

Bergarak eman dituen seme ospetsuetako bat da Martzial Agirre Lazkano eskultorea; izan ere, Gipuzkoako XIX. mendeko eskultore nagusia izan zen.

1840. urteko azaroaren 22an jaio zen San Antonioko La Algodonera lantegiaren barruan zegoen etxean. Haren aita, Joakin Agirre, ehungintza lantegiko akzionista nagusia zen eta horregatik bizi zen enpresan bertan. Gainera, San Antonio auzoan bazituen jabetza gehiago ere.

Martzial Agirrek Errege Seminarioan egin zituen lehen ikasketak, eta gero Arantzazuko ikastetxera joan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak beka bat eman zionean Erromara abiatu zen ikastera eta bizi izatera. Han maisu handiekin ikasi zuen, besteak beste estilo neoklasikoa lantzen zuten Togletti eta Obiciren tailerretan, hain zuzen. 1875. urtean Donostia-ira itzuli zen eta han bizi izan zen 1900. urteko maiatzean hil zen arte.

> JAIK

Meza, musa, krosa eta herri kirolak San Anton jaietan

San Anton eguna atzo, egue-na, izan bazen ere, San Anton-go auzotarrek aste bukaera osoan egingo dituzte ospakizun ekitaldiak. Bihar, zapatua, besteak beste, mus txapelketa egongo da, 16:00etan, Zubiberrin-izenematea ordu-bete lehenago egingo dute.

Domekan ekitaldi ugari egongo dira: 11:00etan, meza izango da; 12:00etan, 31. nazio-arteko krosa; eta 12:30ean, herri kirolen eta euskal dantzen erakustaldia eta umeendako jokoak. 14:00etan, krosek sariak banatuko dituzte.

> ZOZKETAK

Bedelkar elkarteak aditzera eman ditu zerbaki sarituak

Dendarien elkarteak asteen eman ditu aditzera 600 eta 300 euroko erosketa txartelen zozketako zerbakiak. Alde batetik, 600 euroko bi erosketa txartel zozkatu dituzte Bedelkarko kideek, eta zerbaki sarituak dira: 4.950 eta 32.971. Bestalde, 300 euroko sei erosketa txartel ere zozkatu dituzte, eta zerbaki sarituak dira: 12.643, 28.818, 29.387, 41.437, 52.075 eta 71.805. Saritutako txartelokin Bedelkarko edozein dendatan egin ahal izango dira erosketak.

> INGURUMENA

Sortzen ditugun hondakinen gaineko erakusketa 19ra arte

Debagoieneko Mankomunitateak ekarri du gurera eta Gipuzkoako hondakinen gaineko erakusketa da. *Amesgaiztorik ez!* lelopean, helburua da sortzen dugun zaborraren gainean hausnartzea eta ahal den neurrian gutxitzea. Kultura etxean dago ikusgai hilaren 19ra arte, 18:00-21:00 ordutegian. Erakusketa ibiltaria da eta Bergararen ostean, Aretxabaleta, Oñati eta Arrasaten ere jarriko dute.

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



ARRI

Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

AUZOAK > BERPIZTU PROGRAMA

Berpiztu programa jarri dute abian Angiozar, Elosu eta Ubera auzoetan

Bi urterako programa da: aurten auzoen egoeraren diagnostikoa egingo dute eta datorren urtean auzoa berpizteko ekintza plana zehaztuko dute



BERPIZTU Irudiko Elosu auzoan, Angiozarren eta Uberan jarriko dute martxan eta bi bat urte iraungo du.

GOIENKARIA

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Berpiztu programa abiarazi dute Angiozar, Elosu eta Ubera auzoetan. Itsasmendikoi zentroak landa eremuen animaziorako eta sustapenerako sortutako programa da eta Deba Garaia Landa Garapen Elkartearen arduratuko da esandako hiru auzoetan gauzatzen.

Hain justu, Deba Garaia Landa Garapen elkarteak Mari Karmen Iturbe arduratuko da programaz Bergaran, eta, azaldu duenez, bi urtean gauzatuko da auzoen dinamizazio plana -agian hirugarrena ere beharko du. Dagoeneko hasi dira lanean, azaroan

ekin zioten lehen urratsari. "Lehenengo urtean auzoen diagnostikoa egingo dugu, auzoak nola dauden eta zein behar dituzten ikusiko dugu", esan du Iturbek, eta bigarren urtean, auzoak aurrera egi-

teko beharrezkoak diren ekintza plana zehaztuko dutela aurreratu du. Hori guztia, betiere, auzotarrekin batera. Dagoeneko aurkezpenak ere egin dituzte esandako hiru auzoetan.

PROGRAMAREN FINANTZAZIOA

Bergarako Udalak eta Itsasmendikoi hartuko dute euren gain programaren finantzazioa. Hala, Udalarik dagokionez, 2007an 3.800 euro emango ditu programarako

-Gobernu batzordeak onartu du dagoeneko emate hori; 2008an, 2.970 euro; eta 2009an, 4.760 euro inguru. Bestalde, programa herrian gauzatu ahal izateko hitzarmena egin dute Udalak, Itsasmendikoiak eta Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak.

AUZOEN EGOERA

Mari Karmen Iturbek aurreratu duenez, gaur egun auzoak, oro har -ez soilik aipatutako hirurak-, "deprimituta daude: populazioak behera egin du, batik bat edadeko pertsonak geratu dira han, aktibitate ekonomikoa geratu egin da... Azken batean, horrek guztiak auzoen identitatea galtzea ekarri du eta herrietan integratzea; poliki-poliki bizileku gisa geratu dira", gehitu du Iturbek. Besteak beste, hori dela-eta jarri dute abian Berpiztu.

Bada, Debagoienean programari eusten dion bigarren herria da Bergara; izan ere, duela bi urte Oñatin garatu zuen programa Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak.

UDALA > ZERBITZUAK

Udalak aldizkari berritua etxerik etxe banatuko du egunotan

Udalaren jarduna herritarrengana gerturatu nahi dute aldizkariarekin, eta, itxura berritua izateaz gain, eduki berriz jantzi dute

M.B. > BERGARA

Udal aldizkari berritua kalean da. Atzo, eguna, eta gaur, egubakoitza, bitartean banatuko dute kalerik kale, etxerik etxe eta baserri auzoetan; azken bi horietan lehenengoz, gainera. Modu horretan, herriko etxe gehienetara iristeko esfortzu berezia egin nahi izan du Udalak eta guztira 5.500 ale banatuko dituzte.

Bergarako Udalaren aldizkaria itxura eta eduki berrieekin itzuli da eta horrekin batera, www.bergara.net webgunean ere eskuragarri jarri dute dagoeneko.

HERRITARRENGANDIK GERTU

Udalaren jarduna herritarrengana gerturatzeko asmoz, bost atal ditu aldizkari berrituak eta

hogei orrialde. Editorialean, Agur-ne Barruso alkateak sinatutako eskutitza irakurtzeko aukera izango dute herritarrek.

Gai nagusian, Udalak herria pizteko dituen egitasmo nagusiak zeintzuk diren jorratzen da. Era berean, *Herritarrek* kazetari atalean, herritarrek egindako galderak eta galderoi udal ordezkariak

emandako erantzunak jaso dituzte. Lau galderaren erantzunak, hain justu ere. Bestalde, herritarrei udal batzorde desberdinetan parte hartzeko gonbita egiten zaie, eta horretarako fitxa bat betetzeko aukera dute.

Iritziak ere ez dira faltako oraingo zenbakian: gazteen aisialdia, Udal Musika Banda, Abiadura Handiko Trena eta irisgarritasuna izan dituzte mintzagai herritarrek.

Gure Bergara delako sailean, Gure Ametsa elkarte eta Aritzetako San Migel dira aztergai. Eta horrekin guztiarekin batera, hirigintza, kirola, gazteria, kultura, gizartea eta baserri auzoekin loturiko albisteak ere jaso dira. Besteak beste, Zabalotegi aretoaren irekiera eta hirigintza arloko plangintzako aholku batzorde berria dira albiste.



BERRITUA Irudian aldizkariaren azala.

Orain arte ez bezala, Arteman Komunikazio agentzia arduratu da aldizkariaren zuzendaritza, koordinazio eta kazetaritza lanaz, Udaleko ordezkariarekin elkarlanean.

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerrek 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

**TELEIXA
BILTEGIAK**
Eraikuntza
materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

> MUSIKA

Danbor doinuak eskainiko ditu Udal Musika Bandak San Sebastian egunean frontoian

Egitarau zabala prestatu dute Bergarako Udal Musika Bandako kideek etzi, domekan, egingo duten kontzerturako. San Sebastian eguna dela aprobetxatuz, danbor doinuak entzungo dira Bergarako frontoian, 12:30ean.

E. Rosilloren pasodoble batekin hasiko dute kontzertua, *La millor terra del mon*. Gero, L. van Beethovenen *Bosgarren Sinfonia* lan ospetsua eskainiko dute. *When I walk alone* J. Hadermannen lanarekin jarraituko dute kontzertua bandako kideek. Amaitzeko, 2000-2001. urteetan Franco Cesarinik idatzitako *Tom Sawyer Suite* lana eta Sarriegiren *Donostiako Martxa* eskainiko dute bergarako musikariek, frontoira hurbildutako en zozamenerako.

> MUSIKA

DJ Pinzak eta DJ Odeik girotuko dituzte Ziripoteko gauak gaur eta bihar, 23:00etan

Ziripot tabernan oraingo aste bukaerarako honako musika saioak antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, DJ Pinzak girotuko du gaua. Musika saioa gaueko 11etan hasiko da. Bihar, berriz, DJ Odeiren txanda izango da. Beste horrek ere gaueko 11etan hasiko du musika saioa.

DJ Pinza bergararra da eta lehenago ere ibili izan da Ziripoten musika jartzen. DJ Odei, berriz, arrasatearra da; DJ Odeirentzat, zapatukoa izango da Ziripoten egiten duen lehenengo musika emanaldia. Bi emanaldiak goizeko hirurak edo laurak arte iraungo dute; hau da, taberna itxi arte. Ziripoteko arduradunen esanetan, giro bikaina izango da bertan.

> ANTZERKIA

Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak urtarrilaren 22an jarriko dituzte salgai

Hilaren 22an jarriko dituzte Pirritx eta Porrotzek otsailaren 2an eskainiko duten ikuskizunerako sarrerak salgai. Udal Pilotalekuan jarriko dute txarteldegia, urtarrilaren 22an, 23an eta 24an, 17:00etatik 20:30era. Sarrerak lau eurotan egongo dira salgai eta pertsona bakoitzak, gehienez, sei sarrera erosi ahal izango ditu.

Pirritx eta Porrotzek ikuskizun berria eskainiko dute, *Eske-rrrik asko!* Udal Pilotalekuan izango da emanaldia, eta etxeko txikienek bi pailazo ezagunen berriena ikusteko aukera izango dute. Oraingo honetan, Mari Motots gaixorik dago, minbizia dauka. Sendatzeko botikak ilea erorarazten dio. Hortaz, ile kizkurra berriro atera bitartean, koloretako zapia jantziko du Mari Mototsek.

> MUSIKA

Eskozian grabatutako irudiekin egindako ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Mahaster Riverrek

Iazko abuztuan Eskozian egin zuten biran grabatu zituzten irudiekin egin dute DVDa Mahaster Riverreko mutilek. Mikel Calvo bergararra ibili da irudi guztiak hautatu, muntatu eta editatzen; lanak 35 minutuko iraupena dauka. Ikus-entzunezkoa urtarrilaren 25ean aurkeztuko dute, Bergarako gaztetxean, 22:15ean. Gero, DVDa bigarren diskoarekin batera kaleratzeko asmoa dute; diskoa grabatzen martxoan hasiko dira.

Bestalde, urtarrilaren 26an Bilboko Residence Cafe blues eta folk aretotxoan kontzertua eskainiko du Bergarako hirukoteak. Kontzertu hori ohiko bilakatu da bergararentzat; bada, azken hiru urteetan ere bertan izan dira.



GAZTELY, S. A.
BURDINDEGIA

HORNIDURA INDUSTRIALAK

Mintegi kalea 1
20570 BERGARA

Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com

ZINEMA > GAZTETXEAN

Gaztetxean zine emanaldiak eskainiko dituzte domekero

Urtarrila eta otsaila bitarteko emanaldiak 'Bizi-zikloa' izenarekin aurkeztu dituzte; domekero izango dira, arratsaldeko seietan

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Bergarako gazte talde batek zineklub emanaldiak eskaintzea erabaki du, herrian zinema bultzatu guran. Hala, domekero eskainiko dute pelikula bat gaztetxean, arratsaldeko seietan.

Samu Gartzia talde horretako kidea da. Hala azaldu du zinekluba sortzearen zergatia: "Abendu-ko zubian Bartzelonara joan ginen lagun talde bat eta harrituta geratu ginen han zegoen dibertsitate kulturalarekin. Hala, Bergaran ere zerbait egin behar zela erabaki genuen".

Gartziaren esanetan, herrian jendea asko kezaten da dagoen kultura eskaintza dela-eta, baina ez da ezer egiten. "Horregatik, guk zerbait sortu behar genuela erabaki genuen eta zine saioak eskaintzea pentsatu genuen".

HERRIAK DITUEN GABEZIAK

"Kulturaliki gabezia handiak ditu Bergarak. Udalak ez du ezer antolatzen, herritarrek antolatutako eskaintza besterik ez dago", gaineratu du Gartziak.

Urtarrila eta otsaila bitartean ziklo berezia eskainiko dute: *Bizi-zikloa*, hain zuzen. "Bizitzako ziklo ezberdinak erakusten dituzten pelikulak izango dira, txikitatik hasi eta nagusi egin arte. Lotura bat erakutsi gura dugu eskaintzen ditugun pelikulen artean", azaldu dute antolatzaile taldekoek. Pasa den dome-

kan *Leolo* filma eskaini zuten eta azkena otsailaren 24an izango da: David Lynch-en *Una historia verdadera*. Gizakiak jaiotzetik nagusi izatera bitartean egiten duen bidea erakutsiko dute, horrenbestez.

ZINE EZ-KOMERTZIALA

Zineklubean eman gura dituzten filmak areto komertzialetatik kanpo daudenak dira. Aurrera begira, hainbat film klasiko eskaintzea ere aurreikusita dute antolatzaileek.

"Gainera, munduan egiten den zine ezberdina erakutsi gura dugu. Europako zinemaz gain, Asia eta Afrikan egiten dituzten lanak ere ekarriko ditugu", dio antolatzaile taldeko Gartziak.

Film guztiak Gaztetxean emango dituzte, domeketan, arratsaldeko seietan. Gainera, ez da sarrera ordaindu beharrik egongo: "Borondatea eskatuko dugu". Antolatzaile taldekoek herritar guztiak animatu gura dituzte zine emanaldietara. Pasa den domekan emanaldiak izan zuen erantzunarekin oso pozik geratu dira: "Adin tarte guztietako jendea joan zen gaztetxera".

Gainera, gura duenak eskuragarri izango du zineklubean emango dituzten pelikulen kartelak eta laburpenak. Horretarako, zineklub@gmail.com helbidera idatzi behar da. Gero, arduradunek erantzungo dituzte jasotako mezuak.

Zineklubaren egitaraua**Urtarrilak 20***Leolo*

Zuz.: Jean-Claude Lauzon

Urtarrilak 27*Kids*

Zuz.: Larry Clark

Otsailak 3*El verano de Kikujiro*

Zuz.: Takeshi Kitano

Otsailak 10*El graduado*

Zuz.: Mike Nichols

Otsailak 17*Solas*

Zuz.: Benito Zambrano

Otsailak 24*Una historia verdadera*

+ film laburrak

Zuz.: David Lynch

ERAKUSKETA > EMAKUMEAK

Gaur hasi eta hilaren 27ra arte, emakume elkartearen erakusketa izango da Aroztegin

Martitzen eta eguen goizetan elkartzen dira BEKE elkarteak Irizar jauregian; bertan, hainbat eskulan egiten dituzte

A.E. > BERGARA

BEKE Bergarako Emakume elkarteak eskulanean erakusketa irekiko du gaur, arratsaldeko seietan. Erakusketa hilaren 27ra arte egongo da zabalik Aroztegi aretoan.

ZAHARBERRITZE LANAK

Denetarik egiten dute BEKE elkarteak emakumeek: "Ez dugu espezializazio jakin bat, denetarik eskulana egiten ditugu: zaharberritze lanak, pintura, kristala margotu, birziklatu... Erakusketan denetarik ikuste-



ESKULANAK Irudian, erakusketan egongo diren hainbat lan.

A.E.

ko aukera dago", gaineratu digu elkarteak Koro Iraegik.

Erakusketan, azken urte honetan egindako lanak egongo dira. Aurten, baina, emakume gutxiago ibili da ikastaroan.

Aroztegi aretoa martitzenetik egubakoitzera irekiko dute, 18:00etatik 20:30era. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era. Domekan goizez bakarrik irekiko dute.

ABY KEM

DANBAKA))))))

LEHIAKETAKO II. EDIZIOKO IRABAZLEA

DISKO BERRIA ZURE ESKU



CDa: **10 euro**

Asteleheneko Goienkariako harpideduna bazara: **8 euro**

Eskaera egiteko deitu: 943 25 05 05 telefonora.

Ordutegia: 9:30-13:30 eta 15:00-18:30 edo bidali e-posta: idazkaritza@goiena.com helbidera.

Nahi baduzu, 3 euroren truke, etxera eramango dizugu.

Iabegaraieta

EMAITZAK

Tiki-Taka	3-0
Niu Tim-Belengua	3-4
CM Errotagain-Irubide	10-0
Irish Pub-Carboneros	6-2
Irish Pub-Belengua	7-1
Deportivo Oriente-Hamaika Jintxi	5-7
Los Blus-Komando Piperrak	3-5

PARTIDUAK

Urtarrilak 19, zapatua, barruan Epailak
16:00 Niu Tim-Carboneros Komando Pip.
17:00 Tiki-Taka-Komando Piperrak Niu Tim
18:00 Deportivo-Los Blus Tiki-Taka

Urtarrilak 20, domeka, barruan Epailak
16:00 Irubide-Belengua CM Errotagain
17:00 Errotagain-Irish Pub Irubide
18:00 Hamaika Jintxi-Latinos.com Errotag.

SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errotagain	27	10
2. Irish Pub	25	10
3. Komando Piperrak	24	10
4. Los Blus	19	10
5. Carboneros	18	10
6. Tiki-Taka	16	10
7. Niu Tim	15	10
8. Belengua	14	10
9. Hamaika Jintxi	7	10
10. Irubide	3	10
11. El Mapet	0	10
12. Deportivo Oriente	0	10

El Mapet
kanpora, eta
Latinos.com
barrura

Hori da oraingo asteko nobedadea, El Mapet taldea txapelketatik kanporatu dutela, alegia. Joan den astean ez ziren ez jokatzera ezta partidua epaitzera azaldu ere, eta hortik dator erabakia. Gainera, badirudi talde horrek oraindik ordaintzeke zeukala izenematea, eta orain kanpoan daudela, honakoa adierazi gura dute antolatzaileek: "Ordaintzen ez badute, taldeko partaideek ezingo dute datozen urteotan txapelketan jokatu".

El Mapet taldeak utziko duen hutsa, baina, Latinos.com taldeak beteko du. Zeretik hasiko dira txapelketan, eta kontrarioek ez dute jardunaldi batean kale egin beharko.



PREFERENTZIA BARIK Pilota enpresa guztiei egingo die Udalak eskaintza; irudian, Aspeko Irujo eta Goni III.a.

J.A.

PILOTA > UDAL PILOTALEKUAREN ERABILPENA

Herriko hitzorduek lehentasuna izango dute

Udalak pilotalekuko hitzorduen egutegia egingo du, eta libre dauden egunak pilota enpresa guztiei eskainiko dizkie, ezer ordaintzeko asmo barik

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den astean GOIENKARIAK aurreratu zuen Aspe pilota enpresako jabeak gertu zeudela Bergarako Udalarekin batzartu eta 2008rako hitzarmen bat adosteko. Horrekin batera, azken bi urteotan Asperekin hitzarmena sinatu zuen Vitoriano Gallastegiren berbak ere jaso genituen, Eguberri egunean (eta ez Erregetan) Aspek jaialdia Astelena pilotalekuan egin zuelako haserre -Bergaran jokatzeko zen ohitura, eta hori zeukaten adostuta-.

Eta, gaur egun Bergarako Udal ordezkariak ere ez daude Asperekin oso pozik: "Astelena pilotaleku barik geratu zirenean irtenbide ederra izan zuten Bergaran. Bi urteko hitzarmenaren ondoren, gutaz ez zirela ahaztuko irakurri nuen nonbait, eta urtea amai-

tu baino lehen dagoeneko ahaztuta zeuden", adierazi du kirol zinegotzi Martin Etxeberriak. "Hori horrela, guk uste dugu Aspekoak direla guregana etorri beharko luketenak, eta euren asmoak azaldu".

Oraingo Udalarendako preferentzia aldatu egin da. Orain, herritarren ekimenek izango dute lehentasuna: "Aurten pilotalekuan egingo ditugun ekimenen gaineko egitaraua prestatzen gabiltza, eta hori amaitutakoan, libre dauden egunak pilota enpresei eskainiko dizkiegu".

EZ DA DIRURIK ORDAINDUKO

Bergarako Udalak ez du pilota jaialdi profesionalak herrira ekartzearren dirurik ordainduko: "Herriko kirol elkarteak zelan dauden ikusita, enpresa pribatu

bati dirua emateak ez du zentzurik. Pilotalekua dohainik utziko diegu, hori bai".

PROPOSAMEN BERRITZAILEAK

Bestalde, Bergarako Pilota Elkarrekin kirol proiektu berria aurkeztu dio Udalari, hainbat proposamen berritzaileekin.

Jakinek da, egun, hainbat boluntarioen lanarekin egiten dutela kirol elkarte gehienek aurrera, baina sasoi berrietara egokitzeko pilota elkarteak tekniko osatutako lan-talde txiki bat osatu gura du. Ardura askok boluntarioen eskuetan jarraituko lukete, baina, gazteen kirol heziketa profesional kualifikatuen esku egongo litzateke.

Horrekin batera, paleta goma eta frontenis modalitateak gaineratu gura dituzte kirol programan, modalitate horiek emakumearen integrazioa erraztuko luketelako. Orain, bada, Bergarako Udaleko ordezkariak proposamen horiek guztiak aztertzen dabilta.

> FUTBOLA Elgoibarren bisita izango du bihar Bergarak

Azken asteotako garaipenez baliatuta, Manu Diazen mutilek azkenaurrereko postuan dagoen Elgoibar izango dute bihar kontrario (15:45).

Joan den astean bosgarren lekuan dagoen Oartzunen etxean irabazi eta gero (0-1) atzera pausoa izango litzateke Elgoibarrek Agorrosinen etekinen bat ateratzea. Erregionaleko liderra, Amaiak Bat, bost puntura baino ez dago. Eta txapelketa luzea geratzen da oraindik.

> FUTBOLA BTLSk liderra hartuko du domekan, Aretxabaleta

Bigarren erregionalean, lehenengo postuan dagoen Aretxabaletak eta bigarren dagoen BTLSk jokatu dute (domeka, 17:00, Ipintza).

Aretxabaleta jaun eta jabe da kategoria horretan, bigarren sailkatuak baino zazpi puntu gehiago ditu eta (38). Eta, BTLSko mutilek gertu dute hirugarren sailkatua, Mondra. Hori horrela, mahoneroek etxean gura dituzte hiru puntuak.

> XAKEA

Xakean ikasi gura duenak, kluba lanean da berriro

Joan den astelehenetik lanean dira berriro Bergarako Xake Taldekoak. Hala, xakean ikasi gura duenak edo torneoetan parte hartzen hasi Bergarako klubean du horretarako aukera.

Astelehenetan eta martitzenetan egingo dituzte xakean ikasi gura dutenendako saioak, 18:00etan hasita, Zabalotegi dorreko egoitzan. Eta txapelketetako jardunaldiak dituzten egunetan, zapatuetan, 16:00etan hasita.

> ZIKLOTURISMOA

Abian da zikloturisten lizentziak berritzeko kanpaina

Bergarako Zikloturista Taldeak abian jarri du 2008ko lizentziak berritzeko kanpaina. Horretarako, Kutxako 21010070810006752612 kontu korrontean 92 euro sartu eta ordainagiria I-2 edo Igartua bizikleta dendetan entregatu behar da. Otsailaren 29a da lizentziak berritzeko azken eguna. Jakin, informazio gehiago behar duenak bizikleta denda horietan bertan izango dutela informazio dena eskura.



SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

bergararrak kanpoan

Maite Usabiaga > Ingelesa ikasten ari da
Edinburgon bizi da

"Eskoziako eguraldia Euskal Herrikoaren antzerakoa da"

JASONE ZABALA > BERGARA

2007ko udan egon zen Maite Usabiaga Edinburgon ingelesa ikasten. Abuztuan hilabete eman zuen, eta berriz ere bueltatzea erabaki zuen. Hantxe dago Maite pasa den urtarrilaren 4a ezker.

Abuztuan izandako esperientzia luzatzeko asmoz, urtarrilean joan zen berriz ere Maite Usabiaga Edinburgora. Udan eman zuen hilabetea aipagarriena hantxe ospatzen duten *fringe* izan zen, ehunka ikusizunekin. Baina orain, neguan, ez da jaiandirik egiten; edozelan ere, hiriak gauza interesgarriak

eskaintzen ditu: "Gaztelu eta jauregi asko daude, baita laku ezberdinak ere; ezagunena iparraldean dago, Ness izenekoa", esan digu Usabiagak. Horretaz gainera, etxebizitza eta arkitektura berezia da hangoa, etxe oso garaiak daudelako eta erdiguneko eraikuntzek antzinakoen

"Etxe oso garaiak daude, eta erdiguneko eraikuntzek antzinako kutsua gordetzen dute"



Maite Usabiaga.

kutsua gordetzen dutelako. Royal Mail eta Princess Street dira kale ezagunenak.

EGURALDI HEZEA

Euskal Herrian egiten duen eguraldi antzekoa egiten du Edinburgon: "Oso menditsua da eta baita berdea ere; gainera, hezetasuna ere badago. Neguan, 09:00ak arte ez du argitzen, eta 17:00etan, ilun dago berriro".

Edinburgon mundu guzitik joandako jendea dago, asko, ingelesa ikasten: "Batez ere Espainiako eta Poloniako jendearekin egiten dut topo". Janari dagokionez, hauxe dio: "Etxean moduan ez da inon jaten", nahiz eta bertan janari goxoa ere bada; esate baterako, haggiak: ardiarekin egindako odoloste moduko batzuk dira.

Esperientzia oso polita dela esaten du, baina Eskoziatik etxera bueltan udan etorriko da; izan ere, dagoeneko faltan igaritzen ditu familia, lagunak eta saskibalo taldekoak.

bere ustez



Ainhoa Agirreazaldeggi

Garai gogorak Euskal Herrian

Martxora arteko hilabeteak hartu ditudala gaitzat pentsatuko du agian zuetakoren batek, goiko titularra ikusita. Izan zitekeen, baina ez da. Azken urteei begiratu nahi diet.

Osakidetzako langileak izan omen dira sindikatuak greba deialdi berriak egitera bultzatu dituztenak. Asko pozitu nau berriak. Ez dakit garai zaharragoen nostalgia den, baina sentsazioa daukat orain dela hogeitau urte askoz ere protesta gehiago eramaten zirela azkenera arte. Helburu

"Gure kexak anekdotiko bihurtu dira. Geure buruarengan sinestea falta ote zaigu?"

gehienak lortu arte. Gaur, ordea, lan baldintzekin gustura ez gaudenean, protesta izpi diren greba bat edo beste egin, eta askotan horretan uzten dugu kontua. Boterea dutenek badakite hori, eta ez dira gehiegi kezkatzen greba deialdiren baten berri izatean. Antzeko irudipena daukat hizkuntzaren gaineko ezinegonarekin, gai sozialen gaineko protestekin, injustizia politikoarekin... Gure kexak anekdotiko bihurtu dira. Geure buruarengan sinestea falta ote zaigu? Galtzen ari gara ez al dugu hain garrantzizkotzat? Oporrei, janzkera dotoreei edo jaki goxoei adinako ahalegina eskainiko bagenie hainbat protestari, gehiago edukiko genuke. Gehiago, garrantzizkoa den horretatik.

txutxu-mutxuak



Angiozarko Eskola Txikian Gabonetan egindako zozketako saria Lazkao aldera joan zen

Angiozarko Eskola Txikiko Gabonetako loteriak badauka irabazlea: Lazkao Beñat Urteaga da hura, eta saritutako zenbakia 7.657 izan zen. Hain zuzen ere, irabazleak ondorengo eraman zuen: Ibarrangeluko Arboliz landetxean asteburu bat eta 150 euro gastuetarako. Saria Angiozarko Eskolako gurasoen elkarteko Mila Eguren eman zion. Argazkian, Beñat Urteaga eta, atzean, neskalaguna; eta, bestetik, Mila Eguren, albarekin, saria ematen.



BTLS futbol elkarteak antolatutako Gabonetako saskiaren irabazleari saria eman zioten

Pasa den abenduaren 30 eman zuten BTLS futbol elkarteko Gabonetako saskia. Irabazlea Celeste Millan izan zen, eta Gabon saskia Igor Alberdi elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak eman zion, bertako presidente Karlos Lasa ezin izan baitzen sari banaketara joan. Saria Cavern tabernan banatu zuten. Saritutako zenbakia 1.891 izan zen. BTLS elkar-tea duela bi urte sortu zuten, baina aurrean izan da Gabonetako saskia zozketatu duten lehen aldia.

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxes: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxes: 943 76 04 77



**Hedabide
guztietarako
telefono berria
eta bakarra
943 25 05 05**



Goienkaria ASTELEHENKO **Goienkaria**





HAUR ESKOLA Belorrieta auzoan dago ikasturte honetan 100 ume dituen Pausoka haur eskola.

M.A.

HEZKUNTZA > UDAL HAUR ESKOLA

Haur eskolaren araudia aldatu gura du Udalak

Matrikulatu baino sei hilabete lehenago egon behar dute errolatuta umeek eta gurasoek

Umeen izen-abizenak ontzian sartu eta banan-banan aterako dituzte, plazak bete arte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Haur eskolaren araudiko hainbat puntu aldatu gura ditu Udalak. Hala onartu zuen abenduaren 20an egindako osoko bilkuran, eta martitzenean, hilak 15, argitaratu zuten deialdia Gipuzkoako aldizkari ofizialean. Orain, 30 eguneko epea dago iradokizun eta erreklamazioak aurkezteko.

SEI HILABETE ERROLDATUTA

Lau puntu dira aldatu gura dituenak. Orain arte matrikulatu gura zen umea herrian errolatuta egotea eskatzen zuten; baina, hemendik aurrera, eskatuko dute matrikulazio epea baino sei hilabete lehenago egon daitezela errola-

tuta herrian bai umea, bai gurasoak ere. Eskaerak plaza kopurua gaintzen badu, zozketa egin izan dute beti. Orain, zozketa egiteko irizpide berriak ezarri dituzte. Hala, gurasoen aurrean idatzitako umeen izen-abizenak zozketa-erabiliko den ontzian sartuko dituzte, eta ondoren, umeen izen-abizenak banan-banan atera, plaza kopurua bete arte.

Araudi berrian zehaztu dute gurasoek hileko kuota hileko lehen bost egunetan ordaindu beharko dutela, eta ordaindu ezean banketxeko gastuak bere gain hartuko dituztela. Eta mediku agiria behar izanez gero bakarririk eskatuko dutela.

ZORTZI UMETIK 100 UMERA

Pausokak kudeatzen du udal haur eskola sortu zenetik; 18 urte, hain zuzen. Zortzi umerekin hasi ziren lanean Otalora kaleko 27. zenbakiko eraikinean, eta 100 ume dituzte 2007-2008 ikasturtean Belorrieta auzoko eraikinean.

Matrikulazio kanpaina oraindik zehaztu barik dago, baina otsailean izango da. Pausokako arduradunek badakite gurasoak izena emateko zain daudela, baina lasai egoteko diote: "Baliteke zozketa egin behar izatea hasieran, baina ohikoena da arazorik ez egotea sartzeko. Iaz, gura zuten guztiek izan zuten sartzeko aukera zozketa egin ostean".

POLITIKA

Alderdiek iritzia eman dute Porturen gainean

Aralar, EA, EAJ eta Ezker Batua-Berdeak bat sinatu dute; PSE-EEk beste bat

M.A. > ARETXABALETA

Aretxabaletako Aralar, EA, Ezker Batua-Berdeak eta EAJ alderdiek urtarrilaren 6an Arrasaten atxilotutako Igor Portu eta Mattin Sarasolarekin atxilotuta ostean gertatutakoa jendaurrean adieraztea gura dute. Hala eskatu zioten Espainiako Gobernuari joan zen egubakoitzean sinatutako adierazpenean. Zera adierazi zuten: dagokion organoari eskatu argitu eta adierazteko atxilotuta eta inkomunikazioaren prozesuan gertatutakoa; atxilotutako bi lagunak kontra erabilitako metodoak gogor salatu; eta Estatuko gobernuari eskatu beharrezko polizia indarrak edozein atxiloturen kontra erabil litezkeen tortura jokabide susmoak alde batera uzteko, horretarako inkomunikaziorako tartea berehala desagerraraziz.

PSE-EE, ERRESPECTU ESKE

Bestalde, Aretxabaletako PSE-EEk errespetua eskatu du prentsa ohar baten bidez. Oharrean dio Donostiako epaitegiak ikerketa zabaldu zuela gertatutakoa argitzeko atxilotuta egunean bertan, del Olmo epaileak eskatuta. Horregatik, errugabetasun-presuntzioa errespetatzeko eta ikerketaren ondorioak itxaroteko eskatzen dute. Eta diote: "Eskubide estatuaren berme bat da errugabetasun-presuntzioa eta guardia zibil horiendako eskatzen dugu". Guardia Zibillarekin bat egiten dute eta eskertu herritarren eskubideen alde egindako lana: "Tortura ez da jokabidea eskubide estatuaren", diote, eta larria dela polizia indarrekin lotzea. Askatasun eta segurtasunik ez izatearen errudun bakarria ETA dela ere esaten dute.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Zenbaki
Aholkulariak



• **Juridikoa:**

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

• **Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• **Kontalibiltatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



KALEJIRA Euskal mitologiako pertsonaiak izan zituen lagun San Kanutok iaz kalejira egiteko orduan.

IRATXE BENGOA

Bolo txapelketak emango dio hasiera ospakizunari eta kalejirak, herri bazkaria, kontzertuak eta ezustekoak izango dira egunean zehar

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Zortzigarren aldiz antolatuta dute aurten San Kanutoren jaia marihuana-zaleek. Bihar, zapatua, ospatuko dute, eta giro bikaina sortuko dute herrian.

OSPAKIZUNA > SAN KANUTO

San Kanutoren omenezko 8. jaia da bihar, zapatua

ARETXABALETARREN KONTZERTUAK
Urtero legez, bolo txapelketa jokatuta hasiko dute jaia. 12:00ak inguruan elkartuko dira bolatokia eta txapelketak irau bitartean sagardoa eta ardoa eskainiko diete bertaratutakoei. 14:30ean, herri bazkaria egingo dute Araba ibilbidean, Arkarazo auzoko bidegurutzeko alboan

dagoen eraikinean. Eta bazkaloste hainbat ikuskizunek girotuko diete. Iaz 120 bat lagun elkartu ziren eta aurten ere antzera izango direlakoan daude.

Kalejira egingo dute 18:30ean, San Kanutorekin, eta Orkestra taldea -lehen Elektrotuna- izango dute lagun. 20:30ean, osterara, salda beroa banatuko dute Azkena

tabernan ilunkarako hotza uxtzeko. Eta gauean, 22:30ean, kontzertua eskainiko dute Aretxabaleto talde bik, bazkaria egindako eraikinean: punk *odoltsua* egiten duen Neallta Fola taldeak eta country doinuak lantzen dituen The Telonheroes Band-ek. Ospakizuna bukatzeko ezustekoak iragarri dituzte antolatzaileek.



M.A.

Danbor burrunbak egunean zehar

Domekan, hilak 20, da San Sebastian eguna eta, Donostian ez ezik, gure herriko ikastetxeetan ere ospatuko dute. Gaur astinduko dituzte danborrak hiru ikastetxeetan: Pausoka haur eskolakoek 10:30ak inguruan, Kurtzebarri eskolakoek 15:30ean Herriko plazan edo Iturrigorri frontoian -euria bada- eta Arizmendi ikastolakoek 16:30ean Basabeazpi aurrean.

OSPAKIZUNA > ARATUSTEEI ONGIETORRIA

Txapel Txin egunak egingo die ongietorria Aratusteei

Hilaren 26an egingo du Karnabalen Lagunak izeneko taldeak antolatuta

M.A. > ARETXABALETA

Otsailaren 3an ospatuko dugu Aratuste-domeka Aretxabaletan. Jai giroa izango da egun horretan, baina aurrez girtzen hasteko, Txapel Txin eguna antolatzea erabaki dute hainbat koadrilak. Atxabaltako Karnabalen Lagunak izeneko taldean elkartu dira koadrilok, eta Udaleko Kultura sailaren laguntza jaso dute. Helburu bi izan dituzte urtarrilaren 26ko Txapel Txin eguna antolatzeko: batetik, Aratusteak hurrengo domekan direla jakinaraztea herriarrei, bide batez moztortzera animatuz; eta bestetik, bizitasun handiagoa ematea bai Aratuste jaiei, bai herriari.

KALEJIRA HERRIKO KALEETAN

Goiz partea umeendako izango da, eta Kultura sailak gaztelu puzgarriak jarriko ditu gura beste jolas egiteko. Herriko plazan egongo dira eguraldi ona eginez gero, eta bestela, Iturrigorri frontoian. Eta 17:00etan, Pirritx eta Porrotxen *Eskerrik asko!* ikuskizuna izango dute, kirol etxean.

Atxabaltako Karnabalen Lagunek, osterara, 18:30erako egin diete deialdia herriarrei, kirol etxe aurrean elkartzeko. Txapela eroatea eskatu dute, edozein eratako txapela, eta aurpegia margotzeko aukera egongo da. 19:00etan kalejira hasiko dute Benta Zaharreko mutilek alaituta, eta kantuan eta dantzan egingo dute; *Txapel Txin* kantua asmatu dute, hain zuzen, egun horretarako. 20:00etan Herriko Plazara iritsiko dira eta Aratusteetako pregoia egingo dute. Eta 03:00etan *tanga txin* lasterketa egingo da.

> EUSKARA

Antton Irustaren ipuin kontaketa udaletxe zaharrean

Gaur, egubakoitza, Antton Irusta idazle eta ipuin kontalaria bilbotarra etorriko da helduendako ipuinak kontatzera. Loramendi Euskara Elkarteak gonbidatu du, eta ekitaldia Gurea tabernan iragarrita egon arren, azkenean udaletxe zaharrean egingo dute, 19:00etan.

> KONTZERTUA

Aby-Kem taldearen kontzertua gaur Haizea tabernan

Danbako lehiaketako bigarren edizioko irabazle den Aby-Kem talde bergararrak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, 21:30ean, Haizea tabernan. Thrash metala, deatha eta soinu bortitzak lantzen dituen taldeak *Azken guda* izeneko diskoa kaleratu berri du.

> EUSKARA

'Aratusteetan zela makillatu' ikastaroen egunean

Aratusteetan zelan makillatu jakiteko ikastaroen antolatuta du Loramendi EEK. Gemes edertze aretoko kideen aholkuak jasoko dituzte ikastarora datozenek, eta lana errazteko moztortzera eroatea gomendatu dute. Egunean, hilak 24, izango da, 18:00etatik 20:00etara, udaletxe zaharrean. Eta deialde da.

> KULTURA

Astehenean salgai Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak

Astehenean jarriko ditu salgai Kultura sailak Pirritx eta Porrotx pailazoek zapatuan, hilak 26, eskainiko duten *Eskerrik asko!* ikuskizunera sarrerak. Kultura etxean eta kirol etxean egongo dira salgai, 4 euroren truke. Eta egunean bertan 5 euro ordaindu beharko da sarrera.

> UDALA

Eguenean, 'Arratabe' aldizkariaren bigarren zenbakia

Eguenean, hilak 24, banatuko du Udalak *Arratabe* aldizkariaren bigarren zenbakia. Udalean lantzen den informazioa herriarrei helaraztea helburu duen aldizkariaren lehen zenbakia abenduaren 22an kaleratu zuten. Asmoa da hileroko banatzea, hileko hirugarren egunean, hain zuzen ere.

DEIALDIA > BOLUNTARIOAK

Pausoka taldeak lanerako boluntarioak behar ditu

Gutxitu psikikoekin lan egiten duen taldeak lokal berria estreinatu zuen iaz, uztailean, eta gutxituok ekintzak antolatzeko laguntza behar du

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Gutxitu psikikoekin lan egiten duen Pausoka taldeak deialdi berezia egin du herritarren artean: uztailearen 21ean Bidebarrieta kaleko lokal berria inauguratu zutenetik, "etekin gutxi" atera diote lokalari. "Boluntarioak behar ditugu, bestela lokal berria alperrik galduko da", azpimarratu digute Pausokako begiraleek. Martitzenetan, zapatuetan eta domeketan ekintzak antolatzeko ohitura hartu nahi dute, eta, hain zuzen, "lanerako gertu dagoen jendea" behar dute.

Pausoka taldeak Bidebarrieta kalean duen lokalak sukalde txiki bat, bulegoa, egokitutako bi komun eta erabilera askotariko gela handi bat ditu. Hala, guztira, lokalak, 154 metro koadro ditu.



PAUSOKA Argazkian, taldeko begiraleak eta gaixoetako batzuk.

GOIENKARIA

EKINTZA GEHIAGO ANTOLATU

Gaur egun lau begirale eta hamahiru gaixo daude taldean. Hala, urtero antolatzen dituzten ekintzez gain -jaietako danborra-

da, Trianako jaietako afaria eta Errege eguneko jaiotza-, beste batzuk antolatu nahi dituzte: dantza saioa, eskulanak eta karaoke, besteak beste. "Hortaz, ordu

gutxi batzuetan lanerako gertu dauden lagunei, 943 53 35 39 telefonora deitzeko gonbita egiten diegu", esan digute Pausokako arduradunek.

ZERBITZUAK > GASOLINDEGIA

Belatxara, Gureak taldearen esku

Guregas Carburantes SL enpresak kudeatzen du Oñatiko saihsbidean dagoen gasolindegia

M.B. > OÑATI

Urtarrilaren 2a ezkerokudeaketa berria du Oñatiko Belatxara gasolindegia. Hala, Guregas Carburantes SLk, gasolindegia zerbitzuak kudeatzen dituen Gureak taldeko enpresak, hartu du herriko saihsbidean dagoen gasolindegia zerbitzuaren ardura.

Hain zuzen, bi urterako kudeaketa kontratua sinatu dute Guregas Carburantes SL enpresak eta Repsolek. Eta, bi aldeak ados egonez gero, kontratua urteztz urte berritu egin daiteke. Belatxara gasolindegia ordutegia zabaldu egin du; hala, egunero eskainiko du zerbitzua, asteleheneetik egudomekara, 06:00etatik 22:00etara.

ADIMEN URRITASUNA

Guregas enpresak duen helburu nagusia adimen urritasuna duten lagunen erabateko integrazioa da; hain zuzen ere, gasolindegian zerbitzua ematen duten hiru lagunetatik bik adimen urritasuna dute. Era berean, Belatxaran lanean hasi direnak langile berriak dira, Oñati eta inguruko herrietakoak

Belatxara gasolindegiarekin, sei dira Gureak taldeak Gipuzkoan kudeatzen dituen zerbitzuak; eta haietan, 105 lagunek egiten dute lan. Era berean, Guregas Carburantes S.L enpresak beste hiru zerbitzu kudeatzen ditu, bi Bizkaian, eta hirugarrena, Nafarroan.



BELATXARA Herrirako sarreran dagoen gasolindegia.

M.B.

> IRTEERA

Txirrinka taldeak bizikleta martxa egingo du gaur

Oñatiko bizikletazaleen Txirrinka elkarteak deituta, bizikleta irteera egingo dute gaur, 18:30ean.

Azken hiru hilabeteotan egin den antzera, bizikleta martxa Herriko plazan hasiko da, eta, herriko kaleetan zehar ibilalditxo egin ondoren, hantxe bertan bukatuko da. Azaroan eta abenduan egindako bi irteeretan, herritarren erantzuna ona izan du Txirrinkak. Otsaileko bizikleta martxa 15ean izango da.

HELBURUA

Txirrinka taldeak hil bakoitzeko hirugarren egubakoitzeko deitu duen irteeraren helburua bidegorri sarea eskatzea da. Helburu bera aldarrikatzeko, urriaren 20an puxikekin eta musikarekin 150 lagun bildu ziren Oñati-Arrasate-Oñati bizikleta martxa egiteko.

> ANTZERKIA

Yllana taldearen eskutik 'Pagagnini' antzezlan domekan

Yllana antzerki taldeak eta Ara Malikian biolin-jotzaileak bat egin dute *Pagagnini* ikuskizunean. Emanaldia domekan izango da Santa Ana antzokian, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Sarrerak salgai egongo dira txarteldegian 10 eurotan.

Pagagnini izeneko kontzertuan lau musikari izango dira protagonista, eta haiek Mozart, Falla eta Paganini musikari ezagunen piezak joko dituzte. Hala ere, xelebre samarrak dira, eta aukera txikiena ere aprobetxatuko dute errepertorio klasikoa alde batera utzi, eta tango, flamenko eta rock doinuak jotzeko.

ARA MALIKIAN

Ara Malikian armeniarra bere belaunaldiko biolin-jotzaile onenetakoa da. Lehenengo kontzertu 12 urterekin eman zuen.

((112))
SOS DEIAK

Euskara, espainola eta portugesa, hirurak batzen ditu gidak

Erroldatzen direnei gida bana emango diete udaletxean

Herriko ekipamenduak azaltzen dituzte, besteak beste

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Udalak gida bat kaleratu du herri bizi izatera datozen lagunei harrera egiteko, eta horiei Eskoriatzaren berri emateko. Udaleko Ongizateko eta Euskara batzordeetako arduradunek jakinarazi digute gida hori, batez ere, Euskal Herrikan kanpo datozenentzako dela.

500 ALE BANATUKO DITUZTE
Udalak gida horren 500 ale kaleratu ditu. Lehenik eta behin, Eskoriatzaren erroldatzen direnei bana emango diete; eta horrez gain, herriko hainbat lekutan banatuko dituzte, hala nola kultura etxean, gizarte zerbitzuan eta bibliotekan. Horrez gain, eskoletan etorkinen seme-alabei ere emango diete, erroldatuta ez dauden etorkinengana ere iristeko.

HIRU HIZKUNTZA BATZEN DITU
Ongietorri gidan hiru hizkuntza batu dituzte: euskara, espainola eta portugesa: "Kanpotik datozenetatik ia inork ez du euskaririk ulertuko, baina ezinbestekoa deritzogu kanpotik etorritakoei euskara zer den erakusteari, sin-

ETORKINAK > INTEGRATZEN LAGUNTZEKO GIDA

Etorkinei harrera egiteko ongietorri gida kaleratu dute



KANPOTARRENDAKO GIDA Argazkian, asteon Udala banatzen hasi den ongietorri gidaren ale bat.

IKER BARANDIARAN

bolikoki ez bada ere", azaldu zigun Euskara batzordeko teknikari Mari Karmen Arrietak.

Horrez gainera, espainola eta portugesa ere aukeratu dituzte, kanpotik etorritako gehienek erabiltzen dituzten hizkuntzak horiek direlako.

2007ko urtarrilaren 1ean, 121 etorkin zeuden herrian; biztanleriaren %3, hain zuzen ere. Horietatik 86 portugaldarrak ziren, etorkinen %71. Arrazoi horregatik, oso kontuan hartu dute hizkuntza hori gida egiteko orduan.

Gida horren bitartez, honako kontuak azaltzen dizkiete kanpotik etorritakoei, hurrenez hurren: Euskal Herriaren gaineko nondik norakoak, euskara, hezkuntza aukerak, jai eta ospakizun esanguratsuenak eta udalerriko ekipamendu garrantzitsuenak.

Gidaren bultzatzaileek azpimarratu dute lan horren helburua dela "kanpotik etorritakoak integratzeko, hemengoak zelakoak garen erakustea". Baina, horrez gain, etorkinei eskatzen diete euren sustraiak, jatorrizkoak, ez galtzeko.

ALDUNDIA > ESKAERA

Erabilera askotariko aretoa egiteko laguntza eskatu diote Udalak eta HUHEZIK Aldundiari

Udalak eta HUHEZIK bat egin dute erabilera askotariko areto baten beharra aldarrikatzen

Bi erakundeak laster hasiko dira ikuskizunak eta berbaldiak egiteko aretoa finantzatzeko laguntza bila

I.B. > ESKORIATZA
Herenegun, eguaztena, Gipuzkoako ahalzun nagusi Markel Olanok, Mondragon Unibertsitateari egindako bisitaren barruan, Eskoriatzako HUHEZI ere bisitatu zuen.

Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek lagundu zion Olanori HUHEZIKIra egindako bisitan, eta aprobetxatu zuen Eskoriatzaren dituzten hainbat kezka eta premia azaltzeko. Ez hori bakarrik, alkateak Udalaren kolaborazioa eskaini zion.

HUHEZI-K ETA UDALAK, BAT EGIN
Aldundiari egindako eskaeratik nabarmenena erabilera askotariko aretoa jartzeko asmoa da.

Aretoa hori egiteko gogoia dute bai Udalak eta baita HUHEZIKo arduradunek ere; eta horren berri eman zioten ahalzun nagusiari.

Hain zuzen ere, udal agintaldia hasi zenetik Udala eta HUHEZI saiatu dira elkarren arteko harremanak indartzen. Hala, bi erakundeek bat egin dute areto bat sortzeko asmoarekin.

ZINEMA ZAHARRA, AUKERA BAT
Udalaren aspaldiko asmoa da herrian kontzertuak, antzezlanak, berbaldiak eta agerraldiak egiteko areto egokia edukitzea. Horretarako, aztertzen dabilta Santa Anan kokatuta zegoen zinema zaharra horretarako erabiltzea. Hala ere, Pedro Lasagabas-

ter alkateak jakinarazi du hori aukera bat dela, baina beste kokapen batzuk ere kontuan hartuko dituztela.

Bai Udalak eta bai HUHEZIK, biek gurako lukete eraikin horren gaineko proiektua aurten idaztea. Horretarako, baina, finantzaketa iturriak bilatu beharko dituzte. Hala, guztia ondo badoa, datorren astean hasiko dituzte lanak. Horiek, baina, asmoak dira, eta Lasagabasterrek ez daki beteko diren.

Bestalde, alkateak Markel Olanori azpimarratu zion, Eskoriatza Gipuzkoako muturretako bat bada ere, lurralde horri atxikita dagoela, eta Aldundiarekin elkarlana bultzatzeko asmoa dutela.

Alkateak gonbidapena egin zion diputatuari beste egun baten udalerrira bisitatu eta Eskoriatzako premia nagusiak bere horretan ikus ditzan. Horrez gain, autobideko lanak ere hizpide izan zituzten bi ordezkariak.



Alberto Agiriano > Zarimuzko auzo alkatea

"Lehen, Zarimutz oso auzo lasaia zen, baina autobideak eta AHTk erabat aldatuko dute"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Alberto Agiriano da maiatza ezkerro Zarimuzko auzo alkatea. Haren aurretik Ramon Errastik eta Eliseo Beitiak izan zuten ardura hori. Autobideko lanek auzoaren itxura eta lasaitasuna apurtu dutela azaldu digu; eta baita auzo lokala egiteko pausoak ematen dabilzala.

Zenbat baserrik osatzen dute Zarimutz?

Azaldu beharra dago Zarimutz bi zatitan banatuta dagoela: batetik, Marulanda, beheko zatia; eta bestetik, goikoa, Zarimutz deritzona. Baina biak Zarimutzen barruan daude. 30 bat baserri daude.

Zelan funtzionatzen duzue auzotarrok Zarimutzen?

Auzokoez keaxaren bat dutenean nirera etortzen dira. Bestela, urtean behin gutxienez auzotar guztiok batzartzen gara. Eta udalerriko elizate guztietako ordezkariak hilean behin batzartzen gara Udalean daukagun zinegotziarekin batera, Udaleko osoko bilkuran zer erabaki haru behar ditugun adosteko.

Bestalde, Zarimuzko norbait hiltzen den bakoitzean auzotar guztion artean hileta ordaindu eta Zarimuzko kanposantuan lurperatzen dugu.

Zeintzuk dira Zarimutzen dituzuen premia nagusiak?

Auzo bide batzuk konpondu barik daude. Auzo bide batzuk konpondu gabe daude. Auzo lanean egiten ditugu, baina dirua behar dugu. Horrez gain, baserri batzuetara ez da kalitate oso oneko ura heltzen. Bestalde, Marulanda ingurura, ez da telebista-seinale onik heltzen. Udalak auzoendako diru gehiago eman beharko luke.

Auzo lokal bat egiteko asmorik badaukazue?

Bai. Aspaldikoa da asmoa, eta dagoeneko hitzartuta daukagu Elizari lurzoru zati bat erostea. Egia esanda, batzarrak egiteko edo auzotarrak elkartzeko larri ibiltzen gara. Askotan, Marulanda tabernan elkartu behar izaten dugu, haiek utzita.

Zein lan egiten dituzue auzoan urtean?

Elizako inguruak urtean birritan garbitzen ditugu: San Pedrotarako eta Domu Santu egunerako. Horrez gain, hormigoia bota behar badugu edo bideren bat konpondu behar badugu, berehala elkartzen gara.

Zer dauka Zarimutzek berezia edo ikustekoa?

Eliza ingurua eta eliza bera, adibidez. Inguruan dagoen lautadaxoa oso dotorea da. Zoritxarrez, orain zatartu egin da autobideko lanen ondorioz. Horrez gain, oso bitxia da eliza ondoan harri baten idatzitako grabatua: Espainiako gerran nazien hegazkin bat jausi zen bertan, eta hegazkinaren zenbakiak daude harrian idatzita.

Autobideko lanak eta AHTren proiektuak Zarimuzko auzotarreri buruko-min handiak ematen dabilza?

Bai. Autobideko lanek egingandako kalte batzuk konpondu barik daude oraindik. Esate baterako, trenbide zaharrea asko ibili dira autobidea eraikitzen duten langileak; bada, urak kanaletara bidali beharrean, kontrol barik utzi dituzte; horrez gain, pinudietara doazen bideetako batzuk moztuta gelditu dira; Zarimutzetik Aramaiora doan bidea moztu dute eta horren



Alberto Agiriano auzo alkatea Zarimuzko elizaren alboan.

IKER BARANDIARAN

"Beste lekurik ezean, auzotarrok askotan Marulanda tabernan batzartzen gara"

"Bide batzuk konpondu, eta baserri batzuetako uraren kalitatea hobetzea dira premiak"

ordezko bide alternatiboa oso txarto dago, eta ez du arazoa konpontzen.

Abiadura Handiko Trena autobidetik metro gutxira pasako da Zarimutzen. Lehen, Zarimutz oso auzo lasaia zen, baina orain erabat aldatu dute.

Autobideari dagokionez, bali-teke horri esker Marulandan trafikoa apur bat arintzea, baina Zarimutzen askoz txarrago biziko gara, zalantza barik.

> UDALTZAINGOA
Astelehenean hasiko da lanean udaltzain berria

Udalak aukeratu du Eskoriatzako Udaleko behin betiko bigarren udaltzaina, orain artekoari lagunduko diona.

Udalak maiatzean zabaldu zituen lehiaketako oinarriak. Hamar lagun aurkeztu ziren, baina zortzi bakarrik onartu zituzten; eta horietatik hiru bakarrik aurkeztu ziren.

Azkenean, Soperuako mutil batek eskuratu du lanpostua. Lanpostu hori finkoa izango da, eta astelehenean hasiko da udaltzainburuari laguntzen.

> LEHIAKETA

Merkatarien sari nagusia Eizmendi gozotegian eman dute

Herriko merkataritza taldeak jakinarazi du dagoeneko badakitelako zeinek eskuratu duen Gabonetako lehiaketaren sari nagusia. Oraindik ez digute izenik eman, baina jakinarazi digute txartela Eizmendi gozotegian banatu dutela. Hain zuzen ere, irabazleak hiru egun izango ditu herriko 24 negoziotatik 1.000 euro gastatzeko, eta afari bat ere irabazi du.

Horrez gain, 100 euroko beste bost sari ere banatu dituzte herriko merkatariek.

> INGURUMENA

Zuhaitz Eguna balorazio oso positiboa egin dute

Joan den zapatu goizean Zuhaitz Eguna egin zuten Aingeru Guardan. Antolatzaileak, Ibarraundi museoko arduradunak, ekimen horren oso balorazio ona egin dute.

Eguraldi txarra egin zuen arren, 25 bat umeren gurasoak joan ziren lizarrak eta hari-tzak landatzera.

100 zuhaitz landatu ostean, gurasoek euren seme-alabaren zuhaitza identifikatzeko txartela ezarri zieten landare guztiei.

LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

UDALA > ARAUAK

Arbolak oroigarritzat jartzeko baldintzak ipini ditu Udalak

Arbola eta antzerako oroigarrien kokalekua Udalarekin adostu beharko dute interesatuek, baina kale barruko parkeak ezingo dira erabili zuhaitz horiek jartzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Hildako pertsona bati udal lorategi batean oroigarri modura arbola bat ipintzeko baimen eska-

ria jaso zuten udal erregistroan. Eskaera horren harira, urtarrilaren hasieran egindako osoko bilkuran aho batez onartu zuten eremu publikoetan oroigarri gisa arbolak edo antzerakoak ipintzeko baldintzen proposamena.

Hortaz, hemendik aurrera horrelako eskaera egiten duen herritarri baldintza horien berri emango zaio.

Izan ere, Udalean aurreikusitako kasu horretan interesatuari emandako erantzuna ondorengo aurrekari izan daitekeela eta, aurrerantzean eskaera gehiago ere egon daitezkeenez, arautu beharra dagoela.

KOKALEKUA, UDALAK MARKATUA

Onartutako proposamenaren arabera, arbolak edo antzerako oroigarriak eremu publikoetan ipintzeko baimena eskatu beharko da udaletxean, eta, kokapena Udalarekin adostu behar bada ere, Udalak izango du lekua markatzeko eskumena. Gainera, kale barruko parkeak ezingo dira erabili horrelako oroigarriendako.

Arbola edo dagokion oroigarria interesatuak berak ipini beharko du, baina ezaugarri, plaka edo antzerako beste ezer ezingo da ipini eremu publikoetan. Gainera, Udalak ez die tratamendu berezirik emango.

KENTZEKO ESKUBIDEA

Era horretan landatutako arbolak edo oroigarriak ez dira erregistratuko, eta Udalak, edozein arrazoirengatik, arbola kentzeko beharra ikusten badu, horretarako eskubidea izango du, eta ez du trukean ezer eman beharko, ez kontraprestaziorik ezta kalteordainik ere.

Gainera, arbola landatutakoan ingurua aurrez zegoen bezala uzteko eskatuko zaio interesatuari; eta Udalak ikuskatuko du ea baldintza guztiak bete diren ala ez. Baldintza horiek bete ezean, Udalak dagozkion neurriak hartuko ditu.

JAIK

Erretiratuek merienda izango dute Inauterietan

Bi mozorrorik onenak dituztenek oparia jasoko dute

I.A. > ANTZUOLA

Erretiratuen elkarteak merienda eta txokolate-jana antolatu ditu otsailaren 5erako, Inauteri-martitzenerako. Jaia 17:00etan izango da. Parte hartu nahi dutenek, aurrez, urtarrilaren 23an edo 24an eman beharko dute izena, 18:00etatik 19:00etara bitartean erretiratuen egoitzan, eta 3,50 euro ordaindu beharko dituzte. Batzordeak aukeratu ditu egunean bertan bi mozorrorik onenak eta oparia jasoko dute mozorro horien jabeek.

KIROLA > LEHIAKETAK

Frontenis txapelketa laster hasiko da

Parte-hartzaileek urtarrilaren 31 arteko epea izango dute izena emateko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Udaleko Kirol Zerbitzuak 2008an barrena hainbat kirol lehiaketa antolatuko ditu herrian, bi helburu nagusirekin: herritarrei aukera ematea kirol ezberdinak egiteko eta kirolaren inguruan herritarren arteko harremanak eta bizitasuna bultzatzea. Frontenis lehiaketa, saskibalo lehiaketa, bizikleta eguna, herri kroa eta abar antolatuko dituzte horretarako.

Frontenis txapelketa izango da lehena, dagoeneko abian ipini dutena. Izena emateko epea zabalik dago urtarrilaren 31 bitartean. Horretarako, bikotearen izen-abizenak eta harremanetarako telefono bat eman eta ordainketa (jokalarri bakoitzeko 12 euro) egin beharko dira.

EGUBAKOITZ ETA ZAPATUETAN

Parte-hartzaile guztiekin otsailaren 1ean batzarra egingo dute araudiaren berri emateko. Ondoren, binakako partiduak egubakoitz arratsaldeetan eta zapatu goizetan jokatuko dituzte.

Kirol teknikariaren esanetan, "espero dugu 2007an izandako arrakasta izatea eta herritarrek horrelako lehiaketetan izena ematea; azken batean, kirola egiteaz gain, gustura pasatu eta herriko ekimenetan parte hartzeko era on bat da".

Iaz egin zuten estreinako aldiz txapelketa eta guztira hamahiru bikotek hartu zuten parte. Finala Mikel Idiakezek eta Sergio Sanchezek irabazi zuten Andoni Rodriguez eta Eñaut Arantzeta- ren aurka (40-33).



FINALA Iaz Mikel Idiakez eta Sergio Sanchez izan ziren txapeldun.

ARTXIBOA

APURKETAK FRONTOIAN

Bestalde, Udaleko Kirol Zerbitzuetik esan digute pasa den aste bukaeran apurketak izan direla frontoian. Jarlekuak erre, sarea bere tokitik atera eta puskatu, zikinkeria zabaldu eta komunak urez bete dituzte. Salatzeaz gain, halakorik berriz ez gertatzeko ahalegina egin behar dela diote.

Gutun batean hau diote: "Antzuolan ez dugu gune gehiegirik denbora librean igarotzeko, kirola egiteko, gure lagunekin jolasteko, batez ere euria edota eguraldi txarra egiten duenean".

Penagarri deritzote frontoia behar bezala zaintzen ez jakiteari: "Azken batean, guztion kontrako jokabide okerrak dira".

OMENALDIA

Unai Lamarianori harrera egingo diote

Urtarrilaren 26an izango da afaria Olalde elkartearen

I.A. > ANTZUOLA

Unai Lamariano Donostian bizi den antzuolarra apirilaren hasieran atxilotu zuten, ustez ETaren kontra egindako operazio batean. Bada, azaro amaieran utzi zuten aske 10.000 euroko bermepean; eta Lamarianori harrera egingo diote jaioterrian urtarrilaren 26an. Herriko tabernetan poteoa egingo dute eta bere argazkiak kenduko ditu. Harrera ekitaldia izango da gero Olalde parean eta elkartearen afaria egingo dute ondoren.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

> FUTBOLA

Elgetarrek Unben jokatu dute bihar Gazteak-en aurka

Elgetako futbol taldeak txapelketa erregularreko azken aurreko partidua jokatu du asteburuan. Gazteak taldea izango dute aurrez aurre zapatuan, 15:30ean, Unben.

Norgehiagoka gogorra izango da, Gazteak sailkapeneko 5. postuan baitago kokatua, elgetarrek baino 19 puntu gehiagorekin. Txapelketa erregularren ostean, elgetarrek kopa jokatu dute; oraingoz, taldeko sailkapeneko azken aurreko postuan daude.

> IKASTAROA

Etxeko konponketak egiteko 40 orduko ikastaroa prest

Udalak etxeko konponketa txikiak egiten ikasteko 40 orduko ikastaroa antolatu du. 25 urtetik gorako elgetarrei zuzendutako ekimena da, eta martitzen eta eguenetan egingo da. Prezioa 40 euro da eta hilaren 24tik aurrera eman daiteke izena udaletxean.

Elektrizitate, igeltserotza eta iturgintza lan txikiak egiten irakatsiko dute; etxetresna elektrikoetako matxura txikiak konpontzen ere bai.

> NOBLEEN KOFRADIA

Urteroko ospakizuna egingo dute Elgetan hilaren 20an

Nobleen San Sebastian Kofradia beste ekitaldi bat egingo du domekan, hilak 20. Meza entzungo dute 12:00etan Elgetako elizan eta bazkaria izango da gero, Espaloian. "Elgeta eta Uberako 30 bat lagun elkartzeko gara", adierazi du partaide den Juan Ramon Irabalek. "Angiozargoek euren aldetik egiten dute".

Aspalditik datorren ohi-tura da, kofradia XV. mendean sortu baitzuten nobleek lurra defenditzeko.

> MUNDUKO DANTZAK

Beste saio bat egingo dute domekan, hilak 20, Espaloian

Patxi Monterok Elgetan egiten diharduen munduko dantzen ikastaroko saioa izango da domekan, hilak 20, Espaloia Kafe Antzokian. Interesatua egonez gero zabalik jarraitzen du izenemateak. Ikustera edo probatzera joan daiteke abisurik eman gabe. "Egun bakoitzean dantza bakoitza azaltzen da", esan dute antolatzaileek. "Ez da beharrezkoa ikasturte hasieratik etortzea". Hitzordua 11:00etan egin dute.

UDALA > AURREKONTUA

Lehentasuna Salbador kaleko lanei eta haurreskola berriari

Oposizioak ez du logikoa ikusten eskatuta dagoen auditoriaren datuak jakin aurretik aurrekontua onartzea, eta diru sarreren %20 mailegu baten bidez lortzea arriskutsuegia ikusten dute

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

2008rako 2.835.565,76 euroko aurrekontua onartu du Elgetako Udala. Salbador kaleko lanak (427.906 euro), haurreskola-gazteleku berria (200.000 euro) eta erdiguneko etxebizitzak eraberritzeko plana (60.000 euro) dira aurrekontu-tako proiektu nagusiak.

Aralarren eta Eusko Abertzale Ekintzaren aldeko botoekin onartu zuten aurrekontua Elgetan. Elgetako Abertzaleak taldeko hiru zinegotziek, berriz, kontrako botoa eman zuten.

OPOSIZIOAK KONTRAKO BOTOA

Martxan dagoen auditoriaren emaitzak ez jakitea, mendi museoren proiektura zentimorik ez bideratzea eta diru sarreren %20 mailegu batekin betetzea onartezina iruditzen zaio oposizioari: "Planteatzen diren kopuruak ez dira errealak", esan du Iñaki Ugarteburuk. "Biztanle bakoitzeko zorra gaur egun 642 euro da eta aurrekontuak planteatzen duen

maileguarekin 1.135 eurora igokoa da. Orain egoera onargarria izan daiteke, baina sortuko dena beldurgarria da". Oposizioak dio zaila izango dela aurrekontua betetzea. Planteatzen den zorpetze mailak Udala egoera larri batera eramango duela esan dute.

ZORPETZE MAILA, %11

Aurrekontuokun Elgetako Udala zorpetze maila %11n kokatzen da. Oxel Erostarbe alkateak onartzen du aurrekontu ausartak direla, baina gogoratu du oposizioak ez duela proposamen bakar bat ere aurkeztu. Gaineratu du aurreko

gobernuak utzitako egoerak baldintzatu duela 2008ko aurrekontua: "Aurreko udal gobernuaren kudeaketarekiko marra bat egiteko unea iritsi da", esan du alkateak. "Onartzen dugu aurrekontu ausartak direla, baina herrian aurten ezinbestean egin behar diren egitasmoak ditugu aurrean. Salbador kaleko lanak, haurreskola berria, kultura etxeko igogailua... Konpromisoak daude hartuta eta aurrera egin behar dugu".

MENDI MUSEOA, EZTABAIDAGAI

Oposizioak, bestalde, ez du ulertzen nola ematen zaion bizkarra hain garrantzitsua ikusten duen mendi museoiari: "Trena behin pasatzen da eta udal gobernuak akats handia egin du, mendi museorako diru-sailik ez bideratuz", esan du Ugarteburuk. Erostarbek, berriz, adierazi du, oraingoz, mendi museoa ez dagoela udal gobernuaren lehentasunen artean, baina oposizioari esan dio proposamenak egiteko, aztertuko dituztela.

Aurreikusitako gastua atalka

ATALA	2008	2007	ALDEA EUROOTAN
Hirigintza	1.039.111,01 €	1.011.905,93 €	+27.205,1 €
Funtzionamendua	533.493,33 €	589.634,07 €	-56.140,74 €
Gizarte Ongizatea	348.166,67 €	329.941,65 €	+18.225,02 €
Hezkuntza	310.048,13 €	58.054,11 €	+251.994,02 €
Kultura	134.083,44 €	106.953,05 €	+27.130,39 €
Hazienda	115.558,98 €	584.114,60 €	-468.555,62 €
Kirolak	109.117,30 €	56.776,05 €	+52.341,25 €
Politikoak	58.596,00 €	51.675,80 €	+6.920,2 €
Turismoa	54.258,61 €	33.136,72 €	+21.121,89 €
Baserritarrak	37.599,69 €	21.931,50 €	+15.668,19 €
Ingurumena	21.971,39 €	16.751,77 €	+5.219,62 €
Enplegua	11.046,60 €	12.200,26 €	-1.153,66 €
Euskara	3.000,00 €	34.854,00 €	-31.854 €
Guztira	2.776.051,15 €* 	2.907.929,51 €	-131.878,4 €

ITURRIA: ELGETAKO UDALA
* DATU HAUEK AURREKUSITAKO GASTUA JASOTZEN DUTE. DIRU SARREREN KOPURUA 2.835.565, 76 €KO DA.

Jone Muxika > Txirrindularia

"Ziklo-krosera itzuli berria naiz eta gustura nago Espainiako txapelketan egindako lanarekin"

M.A/L.Z. > ELGETA

Mendi bizikletan eta ziklo-kroseran eman zituen txirrindularitzan lehenengo pausoak Jone Muxikak. Lesio batengatik utzi egin behar izan zuen eta osatzerakoan errepedea aukeratu zuen. Aurten, atzera ere ziklo-kroseran lehiatzea erabaki du eta Espainiako txapelketan brontzezko domina irabazi du.

Pozik egindako lanarekin?

Bai, noski. Hobeia izan zitekeen, baina txarragoa ere bai. Egia esan, irteera oso txarra egin nuen eta oso atzean irten nintzen. Lehenengo itzulia atzetik ibili nintzen. Kosta egin zitzaidan aurreratzea, zuhaitz artean pasatzea zaila zegoen-eta. Nahiko gaizki ikusi nuen nire burua. Ahal zena egitea erabaki nuen, eta nahiko ondo amaitu nuen. Aurrera egin eta hirugarren sailkatu nintzen.

Bigarren aldia zenuen Espainiako ziklo-kros txapelketan?

Arantza txiki bat kendu dudala esan daiteke. Aurreko aldian, lehiatik baztertu ninduen lesioarekin hasi berria nintzen. Ez nuen proba gustura egin. Oraingoan, sentsazio hobekin joan naiz. Gaizki hasi nintzen, baina...



Jone Muxika elgetarra. ARTXIBOA

Pozik zaude, beraz, esperientziarekin?

Bai. Maila handia izaten da, kanpoko jendea etortzen da-eta lehiatzera. Maila eta esperientzia handiko jendea da. Urteak daramate lehiatzen, eta onak dira.

Ziklo-krosera itzuli berria zara. Gustura zaude hartutako erabakiarekin?

Errepidean aritu naiz azken urteotan eta aurten, atzera ere ziklo-kroseran nabil. Berandu hasi nintzen txirrindularitzan, 28 urte-

rekin, hain zuzen ere. Mendiko bizikletan eta ziklo-kroseran lehiatzen nintzen. Lesio bat tarteko zela, laga egin behar izan nuen. Osatutakoan errepidera itzuli nintzen. Aurten eman dut pausoa, eta gustura nabil.

Etorkizunari begira emaitza honek zer ekar dezake?

Zoritxarrez, ezer gutxi, uste dut. Hirugarren postu batekin eta emakumezkoetan dagoen lasterketa gutxiek... ezer gutxi ekarriko du.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

AHTk euren auzoetan sor ditzakeen kalteak gutxitzea da helburua

Orokorrean, ez dira AHTren kontra ez alde agertuko

41 familiak osatzen dute Aramaio Zainduz Auzokide Elkarte

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

"Ezinbestez trenak gure auzoetatik pasa behar badu, iragate hori ia ikusezina izan dadila, hau da, ez dezagula ikusi, entzun ez eta sentitu ere". Horixe da Aramaio Zainduz Auzokide Elkarteko adierazi dutena.

Azkoaga, Zabola, Untzilla, Barajuen eta Suñako auzokideek sortu dute Aramaio Zainduz Elkarte. Abuztuan alegazioak aurkezteko bildu ziren lehenengo aldiz: "Orduan ikusi genuen nabarmen proiektuak zenbaterainoko eragina izango duen inguru hauetan. Bestetik, argi ikusi genuen, kontrako ahotsak asko diren arren, lanak badatozela eta oso zaila izango dela hori geldiaraztea. Beraz, etor daitezkeen kalteak gutxitzen saiatzeko ahalegintan ari gara", azaldu dute.

Indarrak batzeko elkartu dira eta abokatuen bitartez apustu gogorra egin dute euren eskubideak defendatzeko. Abokatuak, orain, egoera aztertzen dihardute. Proiektua aldatu edo kalteak minimizatzeko aukerak zeintzuk izan daitezkeen ikusten ari dira. Esperantzaz beteta eta lanerako gogoz dihardute Aramaio Zainduz Auzokide Elkarteko kideak.

GIZARTEA > AUZOKIDE ELKARTEA

Aramaio Zainduz elkarteak sortu du auzotar talde batek



ARAMAIO ZAINDUZ ELKARTEA Abiadura Handiko Trenak Aramaion izango duen eragina txikitzea da euren helburua.

ARRITXU BARRUSO

Elkarteak azpimarratu nahi izan du ez duela proiektu osoaren inguruko iritzirik emango; ez da ez kontra ez alde agertuko, baina AHTren proiektuak Aramaio herrian planteatzen dituen ingurumen eraginak txikitzea hainbat aldaketa eskatzen ditu: "Gure elkartera batu nahi dutenei ez diegu galdetzen proiektuaren osotasunaren alde ala kontra dauden".

Horren ildora azaldu dute zailtasunak izan dituztela, askok proiektuaren alde egotea egotzi dietelako: "Gure helburu bakarra da etor daitekeenari aurre hartzea. Uste dugu, oraindik, gauza asko egin daitezkeela, baina proiektua geldiaraz daitekeen itxaropenarekin orain ezer egin ez badugu, gero berandu izango da eta proiektua euren nahi bezala egingo dute."

Izan ere, proiektuaren Aramaio zatian eragitea da elkartearen helburua, tren euren auzoetatik pasa behar bada, beraien hitza entzunaraztea.

Abenduaren 21ean egin zuten elkartearen aurkezpena herritarren aurrean. Baina konturatu ziren ez zutela egun aproposa aukeratu. Hori horrela, beste aurkezpen bat egitekoak dira laster, herri-

tarrei euren helburuen inguruko informazioa zabaltzeko eta jende gehiago batzeko. Gaur egun 41 baserrik dihardute lanean Aramaio Zainduz Auzokide Elkarte. Abokatuak ordaintzeko eta tramite guztiak egiteko diru asko behar dela azaldu dute. Horregatik, lagundu nahi dietenen dirulaguntzak oso esker onez jasoko dituztela azaldu dute.

EUSKARA > LEHIAKETA

Txirritolak antolatutako ipuin lehiaketa abian da

Lanak liburutegian aurkeztu beharko dira otsailaren 29a baino lehenago

A.B. > ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkartek urtero moduan ipuin lehiaketa antolatu du eta dagoeneko zabalik dago lanak aurkezteko epea. Otsailaren 29a arte egongo da zabalik.

Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da Aramaion bizi edo ikastea. Ipuinek, bestetik, euskaraz idatzitakoak izan behar dute, eta argitaratu gabek. Gaia librea izango da, baina zenbait kasutan idazleek euren lanen luzera zaindu beharko dute. LHko lehenengo zikloko

ikasleek ez dute inolako mugarik izango. LHko bigarren eta hirugarren ziklokoek, berriz, bi orri idatzi ahaliko dituzte gehienez eta DBHkoek hiru orri.

Lanak liburutegian aurkeztu beharko dira kartazal handi batean sartuta. Kartazal horren gainean *Txirritola ipuin lehiaketa* idatzi behar da, baita egilearen goitizena eta ikasketen maila ere. Barruan ipuina eta kartazal txiki bat sartu behar dira. Bertan zehaztuko dira egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia.

Sari banaketa martxoaren 13an egingo dute, kultura etxean, 19:00etan. Parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahaliko du. Txirritolak erabaki du lanek gutxienezko kalitatez ez badute, ez dutela sariarik banatuko.

SAGARDO DENBORALDIA > IREKIERA

Bihar irekiko dute Iturrietan aurtengo sagardo denboraldia

Mila Elortza eta Asier Agirre izango dira bailarako sagardoa dastatzen lehenak

A.B. > ARAMAIO

Iritsi da aurtengo sagardoaz gozatzeko momentua. Zapatuan egingo dute denboraldi honetako irekiera txotxa Iturrieta sagardotegian.

Aurten, Mila Elortzak eta Asier Agirrek egingo dute irekiera txotxa; biak ere AHT Gelditu Elkarlaneko kideak. Horrela emango diote hasiera, beraz, bailarako sagardo denboraldiari. Irekiera txotxa 19:30ean egingo dute eta giro polita izango da Iturrieta sagardotegian. Izan ere, denboraldiari hasiera emateko

trikitilariak, bertsolariak eta txalaparta-joleak gonbidatu dituzte. 21:30ean, gero, afaria egongo da sagardo eta txakolinarekin. Bada, sagardoarekin batera, aurtengo txakolina dastatzeko aukera ere izango da.

Adituek diote aurtengo sagardoa kalitate onekoa dela, tenperaturak eta eguraldia nahiko onak izan direlako. Sagarra oso baldintza onetan etorri dela azaldu dute: freskoa, ustelik gabekoa eta garbia. Dena dela, aurten sagar gutxi jaso dutela ere esan dute sagardo ekoizleek, udako tenperaturak freskoak izan zirelako. Etorri den apur hori, baina, arbolan denbora luzea pasatzea eta heldua dela azaldu dute.

Aurtengo sagardoaren kolorea eta gorputza ezagutzeko, baina, sagardotegira gerturatzea izango da onena.

ZINEMA

Zinema emanaldia dago etzi

'Harri magikoaren bila' filma ikusteko aukera izango dute herriko txikitxoek

A.B. > ARAMAIO

Domeka honetan ere, arratsaldeko bostetan hitzordua daukate Aramaio haurrek zinemarekin. Aste honetan *Harri magikoaren bila* filma emango dute kultura etxean.

Hain zuzen, Gaya izeneko mundu bat ezagutzeko dute film horretan. Toki lasaia eta atsegina. Dena den, gauzak okertu egingo dira; izan ere, Gayako harribitxia lapurtu egingo dute.

GARAPEN IRAUNKORRA > BIDEGORRIA

Bidegorriaren eskaerak aurkeztuta, Aldundiaren erantzunaren zain

Udalak hilabete dela eroan zituen kezkek eta eskaerak Errepide Sailerera

Eskaeretako bat da Eskoriatzatik datorren bidegorria Gatzaga herritik pasatzea da

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Urrian ezagutu zuen Gatzagako Udalak bidegorriaren proiektua, eta ikusitakoak kezka sorrarazi zion. Hala, kezka horiek guztiak eta hainbat eskaera Aldundiko Errepide sailera bideratu zituen orain dela hilabete inguru. Batzarrak egin eta txostena utzi zuten orduan, baina erantzunik ez dute jaso oraindik.

BI IRADOKIZUN

Aldundiak egindako bidegorriaren proiektua ezagutu aurretik, Udalak bi iradokizun onartu zituen irailan egindako osoko bilkuran: batetik, orain dauden bideak errespetatzea; eta, bestetik, Gure Ametsa jatetxe inguruan eginda dagoena errespetatzea. Proiektua bidaltzeko eskatu eta



BIDEA Gure Ametsatik 200 metro ingurura dagoen antenara joateko egindako bidea.

M.A.

esku artean izan zuenean, baina, aurreikuspenik txarrenak bete ziren. Batez ere, bi kontuk kezkatu zuten Udala: batetik, Gatzagainen, Gure Ametsa jatetxe ingu-

ruan, proiektuak ez zuela errespetatzen sasoi bateko trenbidea. Haren ordean, Gure Ametsatik 200 bat metrora dagoen telefono antenara egindako bidea hartu zuten

erreferentzia, eta handik jarraipena egin. Udalak gura zuen baso aldetik joatea bidegorria eta proiektuak, oster, Gure Ametsara ekartzea proposatzen zuen.

ESKAERAK BIDERATUTA

Baina hura baino larriagoa zen zerbaitetaz konturatu zen orduan Udala: bidegorriaren ibilbidea ez zela pasatuko herritik. Eskoriatzatik etorriko den bidegorriari Marin auzotik Gatzagainera egingo du, herria ukitu barik. Horregatik, Udalak uste du, gatzagarrendako beharrian, Debagoieneko gainerako herritarrendako izango dela bidegorria, eta horrekin ez dagoela batera konforme jakinaraztera joan ziren Aldundira, abenduan.

"Errepide saileko arduradunekin elkartu ginen, bidegorriaren eta beste kontu batzuen gainean jarduteko. Esan ziguten bidegorriaren ardura beste departamentu batek zeukala eta egindako txostena bertara bideratuko zigutela", argitu du Eusebio Villar alkateak. Hala, Gatzagako Udalaren kezkek eta iradokizunak Aldundiko teknikariek daukate, eta erantzuna noiz iritsiko zain daude orain, Gatzagan.

Behin betiko proiektua oraindik ez dago onartuta; hortaz, alka-teak uste du ez dela larritzen has-teko kontua: "Ez dakigu noiz onartuko duten, baina, jakina, aldetok onartu aurretik egin beharko lituzkete. Itxaropena sekula ezin denez galdu, gure eskaerei kasu egingo dietela pentsatu gura dugu".

argazki zaharra

Sasoi bateko Santa Ageda mutilak

Otsailaren 5ean da Santa Ageda, eta hainbat herritan ibiliko dira kantuan eta eskean Santa Ageda mutilak. Halaxe ibiltzen ziren Gatzagan ere sasoi bateko kintoak, aurreko eta osteko urtekoek lagunduta. Bezperan, baserrietara joaten ziren, eta egunean, herri ingurura. Dantzan ere egiten zuten bi egun horietan, San Migel plazan edo frontoian. Eta egunok bazkaria eta afaria eginda borobiltzen zituzten.

1964. urtean galdu zuten ohitura, oso kinto gutxi zeudelako.

Argazkia: Leintz Gatzagako Udala.
Informazioa: Pedro M. Elkorobarrutia.
Urtea: 1964a aurretik.



> KULTURA

Inauterietako egitaraua gertatzen hasi da Udala

Otsailaren 2an, zapatua, ospatuko dituzte Inauteriak Gatzagan. Hilabete baino gutxiago geratzen da ospakizunerako, eta Udaleko Kultura saila egitaraua gertatzen hasi da. Azken urteotan legez, zapatu arratsaldean hasiko dute jaiak gatzagarrek, mozarrotuta, eta umeek jolasak izango dituzte: "Oraindik ez dugu erabaki ze jolas ekarriko ditugun, baina izango direla bai, eta ondoren txokolate beroa eskainiko diegu Toki Eder elkartean", adierazi du Aina-ra Zubillaga zinegotziak.

Inauteriak, baina, ez dira umeendako bakarrik, eta helduak ere urtero mozarrotzen dira. Ilunkaran hasiko dute jai giroa, eta herri afaria egingo dute gero: "Menua ez dugu erabaki oraindik; horrenbestez, preziorik ere ez dakigu", esan du Zubillagak. Hala ere, laster jarriko dituzte afarirako txartelak salgai Labidea dendan.

> BERBALDIA

Aspeko gerente Patxi Mutiloa Oñatin izango da gaur (18:00)

ETEOn egingo du Aspeko gerente eta Euskadiko Kirol Kontseilari den Patxi Mutiloak gaur berbaldia (18:00). Kirol elkartearen kudeaketaz eta enpresaz egingo du berba Mutiloak. Harekin batera, Juan Manuel Murua ere izango da, Avento kirol aholkularitza enpresako gerentea.

> ESKUBALOIA

Ford Mugarrik Urola hartuko du domeka eguerdian (12:30)

Bernardo Balerdiren eta Ferxuren mutilek gipuzkoarren arteko bigarren derbia jarraian jokatu dute asteburuan Iturripen. Bergarakoen kantxan galduta (27-26), Arrasatekoek ez diote domekan bisitari izango den Urolari aukera bakarria eman gura.

> ESKUBALOIA

Bihar arratsaldean jokatu du Bergarak Leioan (20:00)

Arrasateko taldearen kontra derbia irabazita, Bergarak indarrez hasi du urtea. Lehenengo itzulia zuzentzeko itxura erakutsi du taldeak, eta bide horretan jarraitu gura dute.

Bihar arratsaldean, Leioako Askartza taldea izango dute zain, 20:00etan.

> FRONTENISA

Dagoeneko eman ahal da izena Oñatiko frontenis txapelketan

Urtarrilaren 26an hasiko dute Oñatiko X. frontenis txapelketa, eta bertan parte hartzeko urtarrilaren 23a da azken eguna (943 71 63 75). Debagoieneko pilotalekuan frontenisean dabiltzan lagunei dago txapelketa zuzenduta. Abonatuak bikoteka 24 euro ordaindu behar dituzte; besteek 30 euro

> XAKEA

San Viatorren kontra jokatu du Arlutz Xake Taldeak

Joan den astean Groseko taldearen kontra 0-4 galduta nazioarteko maisuak izan zituzten aurrean-, oraingo asteburuan San Viatorreko taldearen kontra gura dute aretxabaletarrek liga hasiera zuzendu. Talde hori aurtengo igo da Ohorezko Mailara, baina jokalaririk on eta gazteak dituzte.

ESKIA > DATOZEN HILABETEOTARAKO IRTEERAK

Mendiko eskia egiteko edo pistetara joateko gura beste proposamen

Mendi elkarteek eskiatzera joateko dituzten irteerak batu ditugu, gehienak pistetara

Formigal, Baqueira Beret eta Frantzia Luz Ardiden dira eski estazio faboritoak

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ia bi hilabete igaro dira eski denboraldia hasi zutenetik, baina ibarrean, Gabonetako oporraldiaren ostean hasten dira mendi elkarteek eskiatzera joateko irteerak antolatzen –mendiko eskia egiteko Gabonak baino lehenago egin izan dute irteeraren bat edo beste–.

Astebururo, Debagoienetik ehunka lagunek autoa hartu eta Pirinio aldera egiten dute eskiatzera –Errioxako Valdezcaray estazioa ere aukeratzen dute askok–. Baina jakin, mendi eta kirol elkarteek antolatzen dituzten irteerak direla eskiatzera joateko modu erosoena, eta baita merkeena ere, azken hori, batez ere.

FRANTZIA EDO ESPAINIA

Ibarreko mendi elkarteek Baqueira Bereteko, Formigal eta Luz Ardidengo estazioak aukeratzen dituzte euren bidaiak egiteko. Aukeraketa horretan hainbat gauza izan behar dira kontutan, guztiek dituzte-eta alde on eta txar-

rrak. Prezioei dagokienez, egia da Frantzia aldera egitea merkeagoa dela –autobidea ordaindu behar da, baina autobusean joanda ez dago alderik–. Luz Ardiden estazioan, esaterako, 26,5 euro ordaindu behar da egun bateko forfai-tarengatik. Formigalen, berriz, aurten 37 euro ordaindu behar dira egun bateko jardunagatik (asegurua ordainduta, 40 euro), eta Baqueira Bereten 42 euro (45 euro aseguruarekin).

Eta, hori igarri egiten da Murruxok, Eskoriatzako Kirol Elkarteak edota Orixolek antolatu dituzten irteeretan, merkeagoak dira-eta.

FORMIGAL ETA BAQUEIRA

Besaide mendi elkarteek urteak daramatzate Aragoi dagoen eski estazio handienera joaten, Formigalera. Hala, zapatu goizean irtenda, bazkideek 105 euro ordaindu behar dute, eta bazkide ez direnek 130 euro. Aloña Mendikoek eta Bergarako Pol-Polekoek, berriz, gurago dute Baqueirara joan.

Alde horretatik, Baqueira Beretara joateko denbora gehiago behar da, ordubete gehiago bai. Hala, bidai luzeagoa denez, egubakoitz arratsaldean irteten dira, eta horrek bidai garestitu egiten du, bi gau igarotzen dituzte-eta hotelean. Pol-Poleko lagunek aditzera eman dutenez, prezioak aldatu egiten dira hilabetearen arabera, hotelaren arabera eta baita logelaren arabera ere. Baina, 200 euroren bueltan ibiltzen da, gutxi gorabehera (hoteleko egonaldia, autobusa eta bi egunetarako forfai). Hori bai, askorendako merezi du plus hori ordaintzeak, Espainiako eski estazio onenean egiteko bada (104 kilometro eskiatzeko, 33 erre-monte, 72 pista). Gainera, daukan kokapenagatik, han egoten da elurra ondoen.

Beste askorendako, berriz, azken urteotan Aramon taldeko Formigal estazioak egin dituen berrikuntzekin txikitu egin da bi estazio horien artean dagoen aldea (137 kilometro eskiatzeko, 22 erre-monte, 90 pista). Besteak beste teleaulki berriak jarri dituzte han, eta bailara berri bat gehiago ireki, Espelunciecha.

ASTE SANTUAK, ALPEETARA

Aste Santuak iristean, eski irteerak antolatzen dituztenek ez dute dudarik izaten: Alpeak dira aukera onena. Hala, askok eta askok horretarako aprobetxa-

Euskadiko mendiko eskiko txapelketa, bihar eta etzi

X.U > BERGARA

Asteburuan egingo dute, Frantzia, Euskadiko mendiko eskiko txapelketa, eta ibarrak ordezkariak txukuna izango du. Txapelketan bi kategoriatan izango dira, A eta B. Lehenengoak puntako eskiatzaileak batuko ditu, eta bigarrenen herrikoiak lehiatuko dira.

Eta bi kategoriatan horiek batuta, Debagoieneko hamabi lagunek hartuko dute parte txapelketan. A kategorian –egunero 1.700 metroko igoera metatua– Oñatiko bost eskiatzaile lehiatuko dira: Iñaki Korta, Aitor Otxoa, Joxe Mendiola, Arkaitz Letamendi eta Iban Letamendi –aste barruan gaixorik izan da Arkaitz, ikuste-ko dago astebururako errekupe-ratuko den–. Bergaratik, berriz, Arkaitz Arana eta Joxu Arana izango dira lasterketan. Eta B multzoan, –egunero 1.000 metroko igoera metatua– Eskoriatzako Asier Sologaitoa eta Karmelo



GOIENKARIA

Oñate, Oñatiko Loreti Elortza eta Maider Narraspe eta Antzuolako Ibai Mendia izango dira.

Txapelketari dagokionez, Altito 2008 proban –hori da izen ofiziala, Toy bailaran egiten dutelako– zapatuko lasterketa Luz

Ardidengo estazioan egingo dute, eta domekako etapa Baregesen izango da. Aurrean izango dira euskadiko selekzioa ordezkatzeko duten Aitor Otxoa eta Arkaitz Letamendi, eta Iban Letamendi ere ez da urrun ibiliko.



MENDIKO ESKIA Besaidek Pirinioetako bi aldeetan

tzen dute Pazkoa astea, astebete Europako eski estazio onenetan eskiatzeko, alegia. Gainera, Aste Santuak goiz iristen badira –aurten moduan– jende gehiagok egiten du aukera hori. Ibarrean, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko mendi elkarteek eskaintzen dute Alpeetara joateko aukera, baina esaterako, Besaideko Mendi Elkarteak dagoeneko bete ditu plaza guztiak. Dena dela, jende asko animatzen bada autobus gehiago jartzeko asmoa erakutsi dute (450 euro ordaindu behar dira).

MENDIKO ESKIA EGITEKO IRTEERAK

Eski pistetara joatearekin batera, mendi elkarteek ere beste modalitate bat praktikatzeko gertu dute egutegia, mendiko eskia, alegia. Joan den astean, eguraldia zela-eta Murruxok mendi elkarteak bertan behera utzi zuen hasiberriendako gertu zeukan irteera. Aurrera begira, nahiz eta oraindik egunik ez duten zehaztu, irteera hori egiteko asmoa erakutsi dute.

Horrekin batera, Besaidek egitarau zabala dauka, datozen lau hilabeteotarako prestatu dituzte-eta mendiko eskia egiteko irteerak.



egingo ditu eski irteerak; iruditan Mikel Bergara arrasatearra.

ARITZ ARREGI

MENDI ETA KIROL ELKARTEEK ANTOLATUTAKO ESKI IRTEERAK

> **ALOÑA MENDI ELKARTEA**

-Urtarrilak 25, 26 eta 27. Baqueira Bereteko estaziora. Egubakoitz gauean irtenda. 943 78 08 10.

-Otsailak 15, 16 eta 17. Baqueira Bereteko eski estaziora. Egubakoitz gauean irtenda.

-Martxoak 7, 8 eta 9. Baqueira Bereteko eski estaziora. Egubakoitz gauean irtenda. Hotelaren arabera, 200 euro inguru.

-Martxoaren 21etik 29ra (Aste Santuak) Alpeetara irteera.

*Izenematea Aloña Mendi elkartearen, astelehenetan eta martitzenetan, (18:30-20:00).

> **ESKORIATZA KIROL ELKARTEA**

-Urtarrilak 26, 27. Luz Ardidengo eski estaziora irteera. 100 euro inguru. 943 71 43 27.

*Izenematea Namaste dendan.

> **POL-POL MENDI ELKARTEA**

-Urtarrilak 18, 19, 20. Baqueira Beretara. Hotelaren arabera, 200 euro inguru. Irteera egubakoitz arratsaldean. 943 76 48 51.

-Otsailak 8, 9, 10. Baqueira Bereteko eski estaziora.

-Martxoak 7, 8, 9. Baqueira Bereteko eski estaziora.

-Martxoaren 21etik 29ra Alpeetara irteera (zehaztu barik dute zein eski estaziora joan).

*Izenematea Pol-Poleko egoitzan.

> **MURRUKIXO MENDI ELKARTEA**

-Otsailak 16, 17. Luz Ardidenera. irteera. Bazkideek 95 euro, ez bazkideek 100 euro. 943 79 93 74.

*Izenematea Murrukixoko egoitzan.

> **ORIXOL MENDI ELKARTEA**

-Otsailak 16, 17. Luz Ardidenera. Bazkideek 110 euro, bazkide ez direnek 120 euro. 69 61 39 145.

*Izenematea Anboto tabernan.

> **BESAIDE MENDI ELKARTEA**

-Urtarrilak 19, 20. Formigalera. Zapatu goizaldean irtenda, 05:00etan. Bazkideek 105 euro, besteek 130 euro.

-Otsailak 2,3 eta 16, 17. Formigalera.

-Otsailak 16, 17. Mendiko eskia egitera, Hautacam-Bareges-era.

-Otsailak 8, 9 eta 10. Formigalgo eski estaziora irteera. Egubakoitz arratsaldean irtenda, 19:00etan.

-Martxoak 1, 2. Formigalgo eski estaziora irteera. Zapatu goizaldean irtenda, 05:00etan.

-Martxoak 8, 9. Mendiko eskia egitera, Arrens-Portaletera.

-Martxoak 7, 8 eta 9. Formigalgo eski estaziora irteera. Egubakoitz arratsaldean irtenda, 19:00etan.

-Martxoak 22-29. Alpeetara (Les trois vales).

-Apirilak 19-20. Mendiko eskia egitera. Pic Madamet-Turon de Neouville-era (Frantzia).

-Maiatzak 10, 11. Mendiko eskia egitera, Anetora.

*Izenematea Besaideko egoitzan, astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan, 18:30etatik 19:30etara. Telefonta, 943 77 30 66.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Cordoba-Reala Domeka. 17:00. Cordoba.
Eibar-Sporting de Gijon Domeka. 12:00. Eibar.

Kadeteen Euskal Liga
Barakaldo-Aretxabaleta Zapatua. 12:45. La Siebe.

Preferente maila
Aloña Mendi-Aretxabaleta Domeka. 15:45. Azkoagain.
Anaitasuna-Mondra Zapatua. 16:00. Txerloia.

Lehen erregionala
Bergara-Elgoibar Zapatua. 15:45. Agorrosin.
Amaikak Bat-Antzuola Zapatua. 16:30. Errotazar.

Bigarren erregionala
Gazteak-Elgeta Zapatua. 15:30. Unbe.
BTLS-Aretxabaleta Domeka. 17:00. Ipintza.
Mondra-Urki Zapatua. 16:00. Mojategi.

Ohorezko mailako gazteak
Bergara-Ordizia Zapatua. 17:45. Ipintza.
Aretxabaleta-Zumaia Zapatua. 17:30. Ibarra.

Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsiera
Mondra-Burumendi Zapatua. 18:00. Mojategi.
Euskalduna-Aloña Mendi Zapatua. 16:30. Allurralde.

Lehen mailako gazteak. Igoera fasea
Aretx. Arizmendi-Sporting Zapatua. 15:30. Ibarra.

Lehen mailako gazteak. Kopa
Bergara-Zestoa Domeka. 11:30. Ipintza.

Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea
Aloña Mendi-Tolosa Zapatua. 11:15. Ibarra.
Zumaia-Bergara Zapatua. 12:30. Aita Mari.

Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea
Beti Gazte-Arrasate Zapatua. 16:00. Lesaka.
Billabona-Aretxabaleta B Zapatua. 11:30. Arratzain.

Kadeteak. Kopa
Ikasberri-Arizmendi Zapatua. 10:00. Garmend.

Ohorezko mailako infantilak. Txapelaldun fasea
Añorga-Aretxabaleta Arizm. Zapatua. 13:30. Rezola.
Eibar-Bergara Domeka. 17:00. Unbe.

Ohorezko mailako infantilak. Kopa eta jaitsiera
Arrasate-Tolosa Zapatua. 11:00. Mojategi.

Lehen mailako infantilak. Igoera fasea
Elgoibar-Aloña Mendi Domeka. 11:00. Mintxeta.

Infantil txikiak. Kopa.
Hernani-Arrasate Domeka. 11:00. Hernani.
Are. Arizmendi-Lagun Onak Zapatua. 11:30. Ibarra.

Emakumezkoen Liga. Igoera fasea
BTLS-Añorga Zapatua. 19:45. Ipintza.

Emakumezkoen Kopa
Mondra-Bergara Domeka. 16:30. Mojategi.
Urola-Arizmendi Zapatua. 16:00. Argixao.

Emakumezkoen F-8, Kadeteak
Ilintxa-Bergara JF-8 Domeka. 16:30. Legazpia.

Emakumezkoen F-11, Kadeteak, txapelaldun fasea
Arizmendi-Hernani Zapatua. 11:30. Almen.

Emakumezkoen F-11, Kadeteak, Kopa
Aloña Mendi-Luberrri Zapatua. 16:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Trans.Lakunza-Eskoriatza Zapatua. 16:00. Billabona.

Lehenengo maila
Azpeitiko-Aloña Mendi Zapatua. 16:15. Azpeitia.

Hirugarren maila
UDA Izotz-Deutsche Gaur. 20:30. Kiroldegia.

Gazte maila
Relojos Mondaine-Aloña Zapatua. 12:20. Eibar.

SASKIBALOA

Adecco LEB Oro
Bruesa GBC-Las Palmas Gaur. 21:00. Ilunbe.

Lehen maila
Const.Legarcia-MU Zapatua. 19:00. Lizarra.

Series Colegiales
San Viator-Arizmendi Queens Gaur. 18:00. Gasteiz.

ESKUBALOA

Euskadiko Txapelketa
Ford Mugarri-Urola Domeka. 12:30. Iturripe.
Askartza-Bergara Zapatua. 20:00. Bergara.

Euskadiko senior maila, emakumezkoak
Verkol Aloña-San Adrian Zapatua. 16:30. Zubikoa.

Euskadiko gazte maila, emakumezkoak
Verkol Aloña-Kukullaga Domeka. 11:45. Zubikoa.

Lehenengo territorial maila
Egia Servi Chap-Arrasate Zapatua. 12:15. Egia.

Bigarren territorial maila
Usurbil-Aloña Mendi Domeka. 10:45. Usurbil.
Bergara-Donibane Eskubal. Domeka. 12:00. Bergara.

Gazte maila, gizezkoak
Arrasate-Rotulas Studio Domeka. 10:30. Arrasate.
Usurbil-Aloña Mendi Zapatuan. 16:30. Usurbil.

Kadete maila, gizezkoak
Bergara-Katilu Domeka. 10:30. Labegarriet.

Ereintza-Citroen Chapime Zapatua. 17:30. Errenteria.
Verkol Aloña-Esc. Hosteleria Zapatua. 17:15. Zubikoa.
Pulpo-Bergara Zapatua. 12:30. Zumaia.

Asobal mailako taldeen lagunartekoa
Arrate-Cai Aragon Zapatua. 19:00. Zubikoa.

ERRUGBIA

Senior maila, gizezkoak
Arrasate-Irun Zapatua. 12:00. Mojategi.

Emakumezkoak
Arrasate-Gaztedi Zapatua. 16:00. Mojategi.

XAKEA

Ohorezko maila
San Viator-Arlutz Eguna zehazteke. Gasteizen.

Preferentea
Arrasate A-Alfil A Gaur. 18:00. Altamiran.

Lehenengo maila
Zarautz-Arrasate B. Eguna zehazteke. Zarautzen.

Bigarren maila
Zarautz-Arrasate C. Eguna zehazteke. Zarautzen.
Goierri A-Bergara. Eguna zehazteke. Goierri.
Atletiko zaleak-Idiazabal Eguna zehazteke. Bergaran.

Hirugarren maila
Arrasate San Andresek atsedena du.



Ford Mugarri Urola hartuko du etxean

Ford Mugarri Arrasatek Urola hartuko du domeka eguerdian Iturripen; bost puntu behar dituzte lasaitasunerako.

ESKUBALOIA > LAGUNARTEKOA

Asobal mailako ikuskizun onena bihar (19:00) Zubikoa kiroldegian

Asobal ligak atsedeen duela kontuan hartuta, Aloña Mendik Arrate eta Cai Aragon gonbidatu ditu lagun arteko partidua jokatzeko

XABIER URTZELAI > OÑATI

Eskubaloian, Europako txapelketa tarteko, Asobal ligak hainbat asteko geldialdia izango du. Hori aprobetxatuta, eta taldeek geldi egon ezin dutela jakinda, Aloña Mendik eskubaloia ikuskizun ederra antolatu du bihar arratsalderako (19:00).

Iaz egin zuten moduan, Arrate taldea gonbidatu dute Oñatira, eta eibartarrek oraingoan Cai Aragon taldea izango dute aurrean. Antolatzaile lanetan ibili den Mikel Mantxolak eman ditu xehetasunak: "Geldialdi horretan, Asobaleko taldeek denboraldi-aurre moduko bat egiten dute, ligako bigarren itzulia prestatzeko. Eta, horrelako lagun arteko partidua asko eskertzen dituzte, joko-erritmoak behera egin ez dezan".

SAILKAPENEAN, TXUKUN

Lehenengo itzulia jokatu, bi talde horiek lan txukuna egin dute orain artean. Aragoiko taldea bosgarren da sailkapenean (19 puntu), Ciudad Realen (26), Bartzelonaren (25), Portlanden (22) eta Ademar Leonen (22) atzetik. Eta Arrate bi postu atzerago baino ez dago, 17 punturekin. Hain zuzen ere, otsailaren 2an ekingo dioten ligako bigarren zatira ondo iristeko egingo dute egunotan lan.

"GEHIENAK ETORRIKO DIRA"

Zapatuan Oñatin egongo diren jokalarien ganean galdetzerokan, Mantxolak adierazi du ia jokalaria guztiak izango direla: "Europako txapelketa euren selekzioekin jokatzeko deituta dauden jokalariek egingo dute



LAGUN ARTEKOA Arrate eta Bidasoa, Arrasaten egin zuten lagun arteko partiduan.

GOIENKARIA

kale. Talde bakoitzean bizpahiru jokalaria daudela esango nuke, baina gainontzeko guztiak Oñatin izango dira". Partidua ikus-

teko sarrerak 3 euro balioko du eta eskubaloiko bazkideendako doan izango da. Hori bai, kome- ni da eskubaloiko bazkideak

kiroldegira apur bat lehenago gerturatzea, aurtengo denboraldi-ko bazkide-txartelak banatuko dituzte-eta.

FUTBOLA > DERBIA

Aloñak UDAREN kontura agurtu gura du bolada txarra

Josu Zubiaren mutilek lau aste daramatzate partidurik irabazi barik; Aretxabaletak joan den astean eten zuten bide beretik zihoan bolada txarra

X.U. > BERGARA

Aloña Mendik (23 puntu) etxean jokatu du domekan (15:45), Aretxabaletaren (25) kontra. Oñatiko taldeari abenduaren 15ean hasi zitzaion ordura arteko bolada ederra okertzen –sei partidutan lau garaipen, eta bi berdinketa–, Trintxerperen zelaian (2-0). Eta, ordutik ez dute gauza onik izan. Gainera, azken bi jardunaldiak etxetik kanpo jokatzek ez die onik egin, ezta urteko azken partiduan, etxean, Mondraren kontra galtzeak ere. Hala, horri guztiari buelta eman asmoz zelairatuko dira domekan.

Aretxabaleta ere ez dago etxafuegoak botatzeko. Sailkapenean apur bat aurrerago –9. lekuan–,



DERBIA Aloñako eta UDako jokalaria, Ibarren.

GOIENKARIA

Igor Arenazaren mutilek arnasa hartu zuten joan den astean, Vasconiaren kontura. Eta, oñatiarren aldapa gora luzatzen ahaleginduko dira. Astelehenean GOITBn aurreratu moduan, baina, ondo dakite domekako derbia gogorra izango dela.

MONDRA AZKOITIAN

Bederatzi puntu segidan poltsikoratuta, orain momentuan Igor Gordobilen Mondra (28) da txanponaren beste aldea. Bihar (16:00) Azkoitian jokatu dute, jaitziera postuak oso gertu dituen Anaitasunaren kontra.

SASKIBALOIA > SERIES COLEGIALES

Arizmendi Queens taldeak finala jokatu du gaur

Gasteizko San Viator taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak, 18:00etan

X.U. > BERGARA

ACB Ligako klub guztiak lurraldeka antolatzen duten txapelketa da Series Colegiales, eta Tau Baskoniak antolatzen duen txapelketan Arizmendi Queens finalera iritsi da.

Horraino iristeko, Arizmendiko neskek atzean utzi dituzte Olabide, Presentación de María eta Jesús Obrero ikastetxeak. Azken horien kontra, hain zuzen, *erreginak* 27-38

nagusi ziren, finalerako txartela eskuratuz. Finala, berriz, gaur arratsaldean jokatu dute, 18:00etan, Gasteizko San Viator taldearen kontra.

IRABAZITA, AURRERA

Gaurko finaleko kontrarioa gogorra bada ere, Arizmendi nagusitzen bada kanporaketa gehiago izango dituzte, oraingoan beste lurraldeetako finalistekin.



ARIZMENDI QUEENS Finala jokatu dute gaur, Gasteizen.

ARIZMENDI

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> 'GU TA GUTARRAK'
Bertso eta kantu ikuskizuna Espaloian gaur > 45



> FOROAK.COM
Foroak euskaraz eta modu errezean egiteko tresna berria da > 51

> ENEKO BARBERENA
Txatxilipurdiko langile moduan dihardu lanean arrasatear honek. Bi liburu ditu kalean eta literaturaz gain, bertsolaritza eta eskubaloia ere ditu zaletasunen artean > 50



Oñatiko nagusiak egutegi batean protagonista




BITTORI ANDUAGA



IÑAZIO MAIZTEGI




AMALIA ITURRALDE ETA IÑAZIO BIKUÑA



JAVIER AGIRRE




JOXE URTEAGA ETA SAIOA SANZ



JULIAN BEITIA




TEOFILO ETXEGOIEN



KONTXES LAZKANO ETA FELIPE GOROSMENDI



MARGARITA ITURMENDI 'NAPARRENA'



MODESTO ZILAURREN



NATI GURIDI



PATRI ZUBIA 'AUNTZOKUA'

ARGAZKIAK: JOSU GARAI

AITZIBER ARANBURUZABALA > OÑATI

Lau bat urte dela zuen Imanol Bikuña Oñatiko Zolarri Igeltseritza enpresako arduradunak, bezero eta lagunen artean banatzeko egutegia egiteko gogoia; hori horrela, Josu Garai, udaletxeko langilea ogibidez eta afizioz aspal-diko argazki zalea denarengana, jo zuen. Garairi ideia ona iruditu zitzaion eta aurrez eginda zituen bi argazki bildumak eskaini zizkion Bikuñari. Argazkiak ikusita-koan, herriko nagusiak aukeratu zituen Bikuñak, Zolarriren lehen egutegiko protagonistatzat.

Uda partean hasi ziren Garai eta Bikuña egutegirako materiala antolatzen. Horrela azaldu du Garai: "Pertso-na nagusiak erretratatzeko oso gustuko dut eta hori dela-eta, bi urte dela hasi nintzen nagusien argazki bilduma-rekin. Egutegia egitea eskaini zidanean, aurrez nituene-tik aukeratu genituen batzuk, eta bilduma osatzeko, egoki ikusten genituen beste protagonista batzuk erretratatu nituen gero. Jabi Erostarbe Oñatiko maketatzailak eman zion gero egutegiari itxura eta bukatzeko, Gertu inprimategian inprimatu zuten".



HERRIAN HARRERA OSO ONA IZAN DU

Imanol Bikuñak, egutegiarekin enpresaren propaganda egitea zuenez helburu, bezero eta ezagunen artean bana-tzeko —eta nola ez, protagonistei ere emateko—, 250 ale argi-taratuta nahikoa izango zuela iruditu zitzaion. Azaldu duenez, baina, aurreikuspenak motz geratu zaizkie: "Seku-

lako harrera izan du eta ale gutxi batzuk geratzen zaiz-kigu bakarrik. Horrelako produktu bat ateratzeko gastu bat dauka eta hori ere kontuan hartu behar da. Jende askok eskatzen dizkigu eta guztientzako ez dugu. Hala ere, gustura gaude, asko gustatu delako eta zapore ona utzi digulako. Txarragoa litzateke produktu txarreko ale asko atera eta ezin banatzen ibiltzea".

Gehienak Oñatin banatu dituzte, nahiz eta protago-nisten bitartez, kanpora ere heldu diren: "Kanpoko familiari emateko dela, edo herrian beharrean, orain kanpoan bizi direlako hango lagunei emateko ere eska-tu dizkigute. Gehien eskatu dizkigutenak protagonis-tak eurak izan dira, eta ulertzekoa da oso arro eta pozik daude-eta".

Egutegiak izan duen arrakastaren gakoetako bat, pro-tagonisten aukeraketa egokian dagoela diote herritar gehie-nek: "personaia ezagunak dira guztiak, betikoak, natu-ralak, popularrak".

Oñatiko nagusiak egutegi batean protagonista

(43. orrialdetik dator)

Egutegiko protagonista guztiak edadetuak dira, 80 urtetik gertu daude gehienak: nagusienak 95 urte ditu eta gazteenak, berriz, 66 urte inguru.

NORTASUN ARGAZKIAK

Egutegiaren bultzatzaileen esanetan, beste hainbat ere badauden arren, herrian oso ezagunak eta nolabait ikur dira aukeratuak, izan duten lanbide edo duten izaeratik. Nortasun argazkiak atera nahi izan ditu Garaik, hau da, nor bere txokotan egonda. "Sorpresaz harrapatu nahi nituen, hau da, arropa dotore edo ile paindegira joan gabe; diren moduan erakutsi nahi nituen. Argazki intimoak ateratzen saiatu naiz; eroso egotea nahi nuen. Horregatik, euren txokozako bereziak diren txokoak

aukeratu nituen. Era berean, jenderik ez zebilen lekuak izatea ere zaindu nuen. Ikuslerik ez nuen nahi", azaldu du Garaik.

Egutegiaren azal eta kontrazalerako, berriz, Oñatiko paret zaharren irudiak erabili dituela azaldu du Jabier Erostarbe make-tatzaileak: "Nagusiaren kontzeptua eta iragartzen zen enpresaren jarduera lotu nahi nituen; hau da, igeltserotza".

PROTAGONISTAK HILABETEA

Guztira hamasei dira egutegian dauden pertsonak: azalean lau eta barruan, hilabeteko bana. "Azalean, barruan zer zegoen adierazi nahi genuen, baina dena erakutsi gabe". Azalerako, batetik, orain dela gutxi hil zen Bixente Zabarte musikaria eta haren alargun Margarita Abaunz aukeratu zituzten; eta bestetik, Luis Biain eta Luis Igartua.

Urtarrilaren aurpegia Bitto-ri Anduaga da. Urtetan izan da herriko gasolindegiko bateko langilea, eta irudiko autoarekin ogia

banatzen ere ibilitakoa. 80 urte gertu baditu ere, oraindik gidatzen du. Inazio Maiztegi, ULMA-ren sortzaileetariko bat, dugu otsailean. Konponketak -kazuelak eta horrelakoak- egiten zituen Patrukekaleko tailerrean. Martxoan, berriz, garai bateko Bar Aranzazu, *Diortxuena* moduan ezagunago zeneko tabernariak, Inazio Bikuña eta Amalia Iturralde daude.

Apirileko aurpegia: Jabier Agirre, urtetan Oñatiko ehorzle izan dena, kanposantu inguruan ageri da. Gurpildun aulkian dagoen Joxe Urteaga eta haren biloba Saioa Sanz daude maiatzeko orrian: "Eskolatik bueltan Saioa aulkian neramala atera ziguten Bidaurretan argazkia", dio Urteagak, pozik. Julian Beitia garai bateko bide konpontzailea eta Arantzazuko Goikobentako morroia da hurrengoa.

Uztailen, bizitza guztia harriekin lanean jardun eta marmoldegia zuen Teofilo Etxegoien dago. Kontxes eta Gorosmendi



BULTZATZAILEAK Imanol Bikuña eta Josu Garaik.

AITZIBER ARANBURUZABALA

garai bateko Portalekuko dendariak daude abuztuan. Margarita *Naparrenari* egokitu zaio iraila. Modesto Zilaurren mendizalea dago urrian. Karetokia zuen etxearen aurrean dago Nati Guridi

azaroan. Eta urteko azken hilean, Patri Zubia *Auntzokua* dago, izen bereko baserrian. 2008koa kalean, hasi ote dira datorrenarekin? Lana izango dute hobe ateratzen!



AITZIBER ARANBURUZABALA

Margarita Iturmendi 'Naparrena'

"Iturritxoko iturrian eta 'nire' kantalean erretratatu ninduen"

95 urte dituen Margarita *Naparrena*-k ez du aurkezpenik behar herrian. Guztiek ezagutzen dute garai bateko *Naparrenari* tabernaria. Egutegiarekin gustura dela dio: "Asko gustatu zait eta kalean jende askok zoriondu nau. Iturritxoko iturrian eta *nire* kantalean argazki pila bat atera zizkidan, nengoen moduan. Argazkiak ateratzeko orduan lasai nengoen, aspaldiko ezaguna nuen-eta Garaik. Hurrengo baterako ere prest izango naiz".



AITZIBER ARANBURUZABALA

Felipe Gorosmendi eta Kontxes Lazkano

"Etxe ondoko jarlekuan atera zigun argazkia"

Kontxes Lazkano eta Felipe Gorosmendik horrela gogoratzen dute argazkiaren unea: "Etxe ondoko jarlekuan jarrita geunden Garaik etorri zitzaigunean eta soinekoa aldatzen ere ez zidan utzi; ginen moduan atera nahi zigula esan zigun". Etxeko egongelako paretan txukun jarrita dute egutegia. Gustura dira jendeak esandakoarekin: "Famatuak moduan sentitu gara une batzuetan, jende asko etorri zaigu kalean. Hurrengoan ere hortxe izateko prest".



AITZIBER ARANBURUZABALA

Luis Biain 'Etxezar'

"Txakurrak ditudan txabolan atera zizkidan pila bat"

Luisen zaletasunik handiena txakurrekin ibiltzea da, eta horrela *harrapatu* zuen Garairen objektiboak: "15:30ak inguru ziren, lanbroa zela gogoan dut. Argazki pila bat atera zizkidan, hamabost bat-edo, behintzat, bai. Kalean jende askok zoriondu nau; guztiei gustatu zaie, neska, mutil, zahar edo gazte izan. Eskatu ere askok eskatu didate. Nik uste dut jendea ordaintzeko prest ere izango zela. Hurrengo baterako ere prest izango naiz".



AITZIBER ARANBURUZABALA

Luis Igartua

"Ez dut gogoratzen argazkia atera zidan unea"

Sekulako sorpresa hartu zuen Luis Igartuak egutegia ematera joan zitzaionean Garaik; ez zuen gogoan argazkia atera zion unea. Zaharren egoitzan bizi da Igartua azken zortzi urtetan, eta hango konponketa batzuk egiten ari zirela aprobetxatu zuen argazkilariak Igartua erretratatzeko. Gustura dela esan du: "Txikitatik ezagutzen dut Zolarriko Imanol, hura zaintzen ere ibilitakoa naiz. Asko gustatu zait eta hurrengoan ere prest izango naiz".

BERTSOLARITZA > 'GU TA GUTARRAK'

'Gutarrek' gonbidatu "ederra" iragarri dute

'Gu ta gutarrak' bertso eta musika emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Espaloian

Ohi bezala, Iturriaga eta Elortza bertsolariekin jardutera gonbidatu dute inguruko lagun bat

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Elgetako Espaloia antzokian ikus-teko eta entzuteko aukera izango da *Gu ta gutarrak*. Gaur bertan, egubakoitza, izango da emanaldia, 22:30ean hasita. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak eta Josu Zabala, Aitor Rubio eta *Xan-pe* musikariak dira *gutarrak*, eta eurek ekarriko dituzte hainbat bertso eta musika. Horrez gain, beti egiten duten moduan, beste lagun bat gonbidatu dute taula gainera; azken unera arte ez da jakin-ingo onartu duen ala ez, baina antolatzaileek aurreratu dute gonbidatu "ederra" dela. Hortaz, bertsozaleek gozatzeko modua izango dute Elgetan.

Arrakastatsu dator *Gu ta gutarrak*; batetik, diskoarengatik; eta bestetik, emanaldiak Euskal Herriko hainbat areto eta eszenatoki bete izan dituelako. Proiektu berezia da, izan ere, *Gu*

ta gutarrak: hain zuzen, Euskal Herriko hainbat kontu bertsotara eraman dituzte taldekideek, eta herri-musikan oinarritutako doinuekin bateratu dituzte.

GAI ETA DOINU ASKO

Taldekoez honela azaltzen dute *gutartasuna*: "Gutako bakoitzaren baitan hamaika gitar bizi da: gitar ameslaria, gitar axolagabea, gitar zintzoa, gitar eszeptikoa, gitar parrandazalea, gitar gaiztoa, gitar politikoa, gitar sexuala, sentibera, eroa... Gutako bakoitza hamaika gitarren artean bizi da: Xalbador, Sarrionaindia, Groucho Marx, Maurizia, Corto Maltese, Joe Strumer, Mafalda, Xabier Lete, Fidel Castro, Marijaia, Bob Marley, Janis Joplin, Elgeta, Mahoma RIP...".

Horiei guztiei bidea ematen diete *gutarrak*, eta denetariko umorearekin jardungo dute ber-



'GUTARRAK' Eskumatik ezkerrean, Unai Iturriaga eta Igor Elortza.

JOSETXO ARANZABAL

retatik kantu ezagunetara edo rap doinuek, taldekideen 7 eskale proiektu zeneko doinuak gogora ekarri ere. Jakina, bertso saioa denez gero, inprobisazioak tarte handia du: gitar gonbidatuak inprobisatu egiten du; horrez gain, herri bakoitzerako bereziki egiten dute agurra.

retatik kantu ezagunetara edo rap doinuek, taldekideen 7 eskale proiektu zeneko doinuak gogora ekarri ere. Jakina, bertso saioa denez gero, inprobisazioak tarte handia du: gitar gonbidatuak inprobisatu egiten du; horrez gain, herri bakoitzerako bereziki egiten dute agurra.

BIGARREN ALDIA IBARREAN

Joan den martxoan egon ziren *gutarrak* Arrasaten, Korrika Kulturaren barruan. Orduan, Jon Sarasua aretxabaletarra agertu zen eszenatokian, gonbidatu gisara. Beste behin ere etortzeko asmoa badute: Oñatin joko dute otsailaren 22an.

ARTEA > MARGOGINTZA

Luis Laskurain bergararrak otsailaren 1ean inauguratuko du New Yorkeko erakusketa

Margolari bergararrak zortzi lan aukeratu ditu harako, eta dagoeneko bidali ditu; bera inauguraziorako joango da New Yorkera

L.K. > BERGARA

Luis Laskurain margolari bergararrak New Yorken, Manhattan-go Ezain aretoan erakutsiko ditu margolan batzuk. Otsailaren 1ean inauguratuko dute erakusketa, eta Laskurain bera han izango da aste horretan.

Etzi, domeka, itxiko du Oñatin daukan erakusketa. Hango lan batzuen serie bereko margolanak egongo dira New Yorken, izan ere, New Yorkerako propio egin zituen 15 lan, eta zortzi bat auke-



KONPOSIZIOAK Natur hila antzeko lanak eramango ditu New Yorkera. JASONE ZABALA

ratu zituzten; gainerakoetako batzuk Oñatira eraman zituen. Egileak "konposizio" moduan definitzen ditu lan horiek: "Natu-

ra hilen eboluzio bat dira; haien elementu tradizional batzuk erabiltzen ditut, baina ikuspuntu pertsonal batetik".

MUSIKA > DEATH METALA

Death metalaren aitzindari Obituaryk joko du Jamen

Jatorriko, 80ko hamarkadako, kideak etorriko dira, 'Xecutioner's return' diskoa aurkeztera

L.K. > BERGARA

Death metal estiloko Obituary taldeak *Xecutioner's return* diskoa aurkezteko kontzertua egingo du bihar, zapatua, Bergarako Jam aretoan, 19:00etan. Estilo hori gustuko dutenek hitzordu erakargarria dute, izan ere, death metalaren aitzindari zatitza jotzen dituzte adituek. Orain hiru urte berriz elkartu ondorengo -1997an banandu egin ziren- talde berbera etorriko da, hau da, hasierakoa.

Gaua girotzen hasteko, Holy Moses eta Avatar taldeek joko dute lehenengo.

DISKO KLASIKOAK

AEBetan, Floridan, sortu zen Obituary, 80ko hamarkada erdialdean. 1989. urtean, lehen

diskoa kaleratu zuten, *Slowly we rot* izenekoa. Floridan, death metal eszena indartsua sortu zen, eta Obituary izena hartzen joan zen; hala, denborarekin, lehenengo disko hori eta bigarrena, *Cause for death* izenekoa, death metaleko disko klasiko bihurtu dira. Gerora, beste lan batzuk argitaratu zituzten. Taldea banandu egin zen 1997. urtean, eta 2005ean, berriz ere batu egin ziren, eta bigarren aro horretan, Jamen egon ziren.

Death metal estiloaren sortzailetzat daukate askok Obituary, garaiko beste talde batzuekin batera. Eragin handia izan dute, ez bakarrik mota horretako taldeengan, baita rockaren beste adar batzuetan ere, thrash metalean, esaterako.



BERGARA
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokerosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Aranerrea 95 m². Eguzkitsua.
- Ibargarai. 40 m². Berria.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Martoko 52 m². Berritua.
- Ibargarai 74 m². Ondo.
- Osintxu 51 m². Aukera ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Itzar pasealekua 92 m². Prezio ona.

Antzuola:

- Büztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.

Elgeta:

- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Iggogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Teleforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 / F: 943 76 06 37

BERGARA

- Artakale, 82m², ondo
- Artzamendi, 80 m², oso ondo
- Zabalotegi, 80 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artakale, 70 m², oso ondo
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua
- Magerita, 60 m², berria, aukera ona
- Zubietza 70 m², ondo
- Matxiategi, 65 m², ondo
- Arizuri, 97 m², garajearekin
- Aranerrea, 87m², ondo
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70m², oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81m², oso ondo

SORALUZE

- Baltegieta, 83m², berria

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OÑATI

Jatetxe batek sukaldaria edo laguntzaile aurreratua behar du.
943 27 61 07
943 42 30 07

DEBAGOIENA

Etxe agentzia talde batek komertzialak behar ditu.
Interesatuak bidali CV helbide honetara:
guipuzcoa@grupodomingo.com
edo deitu 676 44 88 13 telefonora.

LEINTZ GATZAGA

Etxe-etxeko laguntza lanak egiteko emakumea behar da.
Astehenetik ostiralera, egunean ordu batzuk.
628 18 14 57

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 90 m² ko etxea salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela handia, sukaldia, despentsa eta bi balkoi. Garajea aukeran. 617 00 37 30 edo 943 78 71 35.

Arexabaleta. Bi etxebizitza batean, erdialdean. Batak 115 metro koadro, lau logela, sukaldia, egongela, jangela, bi komun eta igogailua dauka. Besteak, 75 metro koadro, bi logela, sukaldia, egongela, jangela, bi komun eta igogailua. Biak batera doaz. 648 79 46 77.

Arrasate. Doctor Bañez kalean etxebizitza salgai. 75 metro koadro. Gasarekin eta igogailuarekin. 32.000.000 pezeta. Telefonoa: 629 10 41 31.

Arrasate. Erdialdean 48 m²ko apartamentua salgai, guztiz berritua. Igogailua eta berogailua. Deitu telefono honetara: 645 73 04 69.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Otarora 2. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun. Bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. San Andresen etxebizitza salgai. 57 m². Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela, sukaldia. Kanpoaldera begira. Igogailua eta 37 m²ko sotoa. 620 15 12 12.

Arrasate. San Josepe auzoan. 75m². Hiru logela, komunak, sukaldia eta egongela. Igogai-

lua eta berogailua. Trasteleku. Guztiz berritua. Telefonoa: 626 00 80 19.

Arrasate. Zerrajerka kalean 80 metro koadroko etxea salgai. Bi logela eta bi komun. Dena kanpoaldera begira. 656 77 94 32.

Bergara. Aranerrean etxebizitza salgai. 75 m², guztiz jantzia. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldia, terraza, ganbarra eta berokuntza zentrala. Telefonoa: 665 71 48 30.

Bergara. Artzamendi kalean. Hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Balkoia eta terraza. Igogailua. Kanpoaldera begira eta guztiz eraberritua. 18:00etatik aurrera deitu. Telefonoa: 655 87 53 43.

Bergara. Etxebizitza nahiko berria da, erdialdean, eta egoera oso onean dago. 90 metro koadro ditu, ia erabat jantzita. 685 72 40 30.

Bergara. Labegarrietan etxebizitza berritua salgai. 29.800.000 pezeta. 635 71 04 55.

Donostia. 74 m². Zurriolako hondartzatik best minutura. 330.556 euro. Aukera aparta. 639 33 33 58.

Donostia. Egia auzoan. 55 m². Dekoradoreak egindako erreforma integrala. 52.000.000 pezeta. Aukera aparta. 639 33 33 58.

Elgeta. Etxebizitza salgai San Roke kalean. 105 m², laugarren solairua. Lau logela, bi komun, jangela, sukaldia eta trasteleku. Eguzkitsua. Erabat jantzita. 234.394 euro. 669 66 82 24 edo 657 77 67 91.

ARRASATE

Ostalaritzako lokala errentan ematen da.
629 77 10 72

Eskoriatza. Baserri berria salgai. 220 m². Lursaila dauka. 420.708 euro. Deitu telefono honetara: 647 64 02 81.

Eskoriatza. Erdigunean etxebizitza estreintatu gabea salgai. 80m². Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldia, berokuntza zentrala... 258.000 euro (prezio negoziagarria). Telefonoa: 669 93 74 03.

Nafarroa. Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. Berritua. 185.000 euro. Deitu telefono honetara: 943 76 00 03.

Osintxu. Duplexa salgai. 42 m². Bi gela, egongela, bainugela bat eta sukaldia. 98.000 euro. Deitu telefono honetara: 665 71 48 30.

Oñati. 100 m²-ko duplexa salgai Bidebarrietan, Erremontari plazan. Sukaldia, bi bainugela, egongela, hiru logela eta egongela txiki bat. Garaje handia. Deitu telefono honetara: 665 72 14 90.

Oñati. 116 m²-ko duplexa salgai Kale Zaharrea. Hiru logela, sukaldia, bi komun, egongela, estudioa eta bi trasteleku. Erdi jantzita eta egoera

onean. 348.000 euro. 616 84 39 32 edo 615 70 81 95.

Oñati. Diseinuko duplexa salgai. 120 m². Kale Zaharrea. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta estudioa. Telefonoa: 676 39 36 93.

Oñati. Duplex zoragarria Kale Zaharrea. 110 metro erabilgarri. Prezio ezin hobea: 358.000 euro. 661 68 11 24.

Oñati. Duplex zoragarria Kale Zaharrea. 110 metro koadro erabilgarri. Hobeto ikustea. Prezio ezin hobea: 358.000 Euro. 661 68 11 24.

Oñati. Duplexa salgai erdialdean. 105 m². Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldia. Deitu telefono honetara: 635 71 41 39.

Oñati. Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldia, trasteleku eta garaje itxia. Guztiz eraberritua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

Peñiscola. Apartamentua salgai, lorategiarekin. Peñisnar II urbanizazioan. 170.000 euro. Telefonoa: 948 41 00 79.

ARRASATE

Zerbitzari euskalduna behar da aste bukaerarako.
670 42 21 08
617 20 59 45

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Erdialdean dago. Sukaldia, egongela, bi logela eta bi komun. 900 euro hilean. 20:00etatik 22:00etara deitu. Deitu telefono honetara: 679 86 64 38.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Ibargarai. Telefonoa: 675 70 17 63.

Bergara. Ibargarain etxea ematen da errentan. 675 70 17 63.

Conil (Cadiz). Aste Santurako eta udarako apartamentua alokagai. 656 77 94 32.

Costa Sancti Petri-Cliclana (Cadiz). Udarako guztiz hornituta dagoen apartamentua errentan ematen da. Leku zoragarria kokatua, urbanizazio berria, igerilekua, mini-golfa, lorategiak... La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

105. ETXEA OSATU

Aramio. Etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabilta. 699 28 99 06.

Arexabaleta. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko, otsailerako. Deitu telefono honetara: 652 72 00 06.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko bi lagun etxe eta jende bila dabilta. Haritz eta Manex. 605 75 69 84 edo 675 70 46 88.

Arrasate. Logela bila nabil, otsailetik aurrera bizitzeko. Sara. 677 98 59 14.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Musakola auzoan. Etxea egoera onean eta ondo kokatuta dago. Berokuntza indibidualarekin. 699 47 76 24.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Otsailetik aurrera. 653 71 44 57.

Arrasate. Pertsona batendako logela bila nabil. Mutil ardurasua. Miguel. Deitu telefono honetara: 656 66 49 75.

Bergara. Logela alokatzen dut, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 15 edo 17 euro eguneko. 627 75 81 94.

Gasteiz. Neska behar dugu etxea osatzeko Gorbeia kalean. Berokuntza zentrala dauka. 350 euro hileroko, gastu guztiak barne. 652 72 18 87.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garajea salgai Masterrera kalean. Deitu telefono honetara: 651 70 90 12.

Oñati. Garaje itxia Olapoto auzoan. 17 m². Deitu telefono honetara: 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garaje plaza emango nuke errentan Sagastin. 650 55 44 98.

Aramio. Iturrizuri kalean garaje bat errentan ematen da. Gazeu deitu. Deitu telefono honetara: 945 44 51 97.

Bergara. Bi garaje emango nituzke errentan San Antonion. 658 75 57 49.

Bergara. Garajea ematen dut errentan Ibargarai kalean. Olibondoan plazaren ondoan. 943 76 74 19.

Bergaran. San Lorentzon garajea errentan ematen da. Gazeu deitu. Deitu telefono honetara: 943 76 18 01.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan. 663 03 13 22.

205. BESTELAKOAK

Bergara. Motorra gordetzeko garajea konpartituko nuke Bolu aldean. Prezio merkea. Telefonoa: 628 67 01 73.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Lokala salgai Anboto kaleko 1. zenbakian. 61 m². 945 44 10 15 edo 656 73 34 84.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 80 metro koadroko lokala ematen dut errentan. 645 00 80 55.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Neska koadrila batek lokala alokatu nahi du. Telefonoa: 695 74 27 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arexabaleta. Zerbitzaria behar da. Telefonoa: 615 74 62 50 edo 943 77 11 81.

Arrasate. Emakumea behar da etxeko lanetarako. Eguzero bi ordu, astehenetik egubakoitzera. 649 66 49 85.

Bergara. Eguzero bi orduz umeak zaintzeko emakumea behar da. Deitu telefono honetara: 686 24 68 92.

Bergarako etxe batean andre euskalduna behar da 07:00etatik 09:30era. 656 41 00 03.

402. ESKAERAK

Arexabaleta. Emakumea gertu adinekoak edo umeak zaintzeko, eta etxeko garbitasun lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 943 53 33 92.

Arrasate. Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko gertu. 680 49 11 45.

Arrasate. Emakumea gertu garbiketa lanak egin edota nugu-

si zein umeak zaintzeko. Maria Teresa Oliva. 943 79 13 10.

Arrasate. Emakumea prest edozein lanetarako. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea prest garbiketa lanak egiteko: etxeak, tabernak edota elkarteak. Telefonoa: 676 55 15 46.

Arrasate. Neska euskalduna prest eguerditik aurrera umeak zaintzeko, goizez Haur Hezikuntzako ikasketak egiten diharduelako. 620 42 38 48 edo 690 19 82 79.

Bergara. Eguzero bi orduz umeak zaintzeko emakume bat behar da. Deitu telefono honetara: 686 24 68 92.

Bergara. Etxeko lanetan edo adinekoak zaintzen lan egiteko gertu. Esperientziaduna. Telefonoa: 650 17 74 87.

Debagoiena. Atariak, etxeak edo tabernak garbituko nituzke. Esperientziaduna. Telefonoa: 678 40 57 04.

Debagoiena. Edozein lan eginez nuke, batez ere ostalaritzan. 638 44 02 84.

Debagoiena. Emakume bat orduka lan egiteko gertu, garbiketa lanak egiten eta umeak nahiz nagusiak zaintzen. Gauean ere lan eginez nuke. Telefonoa: 619 92 40 86.

Debagoiena. Mutil bat eraikuntzan egingo luke lan. Esperientziarekin. Deitu telefono honetara: 696 48 42 50.

Debagoiena. Mutila gertu edozein motatako lanak egiteko: tabernan, lantegietan, garbiketarako... Miguel. Deitu telefono honetara: 656 66 49 75.

Debagoiena. Mutila gertu eraikuntza arloan edo aroztégian lan egiteko. Gainera, pertsonak zaintzen ere eginez nuke lan. 685 42 72 80.

Debagoiena. Neska gaztea edozein lanetarako prest goizez edo arratsalde. Lau orduz. Erdi mailako zikloa. Administrazio kudeaketa. 690 70 91 46.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arexabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Arrasate-Arexabaleta-Eskoriatza. Lehen Hezikuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailako eskola partikularrak emango nituzke. 685 76 70 82.

Arrasate. Neska euskalduna prest Lehen Hezikuntzako umei eskola partikularrak emateko. Telefonoa: 620 42 38 48 edo 690 19 82 79.

Arrasate. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut Arrasaten. Maila guztiak. Arratsalde deitu. Deitu telefono honetara: 679 23 25 64.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW 320. 1996koa. Telefonoa: 635 71 04 55.

C-Max autoa salgai. Hagunak (lantak) eta aire-girogailua ditu. 50.000 km. Diesela. Beltza. 12.500 euro. 639 90 36 18.

California Tdi furgoneta. 102 ZP. 2001ekoa. 95.000 km. 27.000 euro. 649 34 82 92.

Derby Senda-R motorra salgai. 4.000 kilometro. 49 cc. 950 euro, eta egoera oso onean. 670 60 02 65.

Ford Fiesta 1.1 autoa salgai. 1994an matrikulatua. Egoera onean, IAT (ITV) pasa berri. 95.000 km. 669 73 76 04.

Ford Mondeo 2.500 V6 familiarra. 1998koa. 635 71 04 55.

Nissan Almera salgai. 2.2 di 16v. Sport. 646 03 39 45.

Peugeot 205. 121.000 Km. SS-X matrikula dauka. 450 euro. 606 21 72 56.

Renault Laguna. Egoera onean dagoen 11 urteko Renault Laguna 1.9 TDI salgai. Salneurri interesgarria. Deitu telefono honetara: 677 93 83 19.

Renault Laguna familiarra. Oso egoera onean. Motor berri-berria, eta bermearrekin. 150 zalditza. Diesela. Aire girotua, engantxa... 13.000 euro. Deitu telefono honetara: 943 71 25 15 edo 605 76 87 72.

Skoda Octavia TDI autoa salgai, egoera onean. 3.000 euro. Telefonoa: 606 24 21 21.

Volkswagen Transporter TDI salgai. 2000koa, 210.000 km. 90 zalditza, aire girotua. Lo egiteko prestatuta. 8.000 euro. Telefonoa: 685 78 62 64.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak oparitzen dira. Mestizoak. Arraza handikoak. Arrak zein emeak. Deitu telefono honetara: 697 32 29 36.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Astron teleskopioa salgai.

ESKER ONA

Angel Mari Zubia Telleria

2007ko abenduaren 30ean hil zen, 64 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2008ko urtarrilaren 18an.

ESKER ONA

Isidora Barandiaran Larrañaga

2008ko urtarrilaren 13an hil zen, 81 urte zituela.

*Bizitza zen, bizitza ber bera,
gau izartsu horretan
ondar fin bat bezala,
eskuen artetik
irristatuz joan zena*

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskoriatzan, 2008ko urtarrilaren 18an.

ESKER ONA

Antonio Iturricastillo Askasibar

Elgetan hil zen 2008ko urtarrilaren 9an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Elgetan, 2008ko urtarrilaren 18an.

ESKER ONA

Paula Mendizabal Beitia

Julian Aranzabalen alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko urtarrilaren 11n, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko urtarrilaren 18an.

URTEURRENA

Josefa Larrañaga Vergara

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Berezibar Otxoa de Angiozar

Apaiza

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
12:50ean,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Zangitu Larreategi

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
11:50ean,
Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Daniel Iparragirre Artolazabal

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
11:50ean,
Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Antonio Arana Ormaetxea

Felisa Larrañagaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Teresa Kortazar Kortazar

Justo Egaña Muruamendiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Victor Herran Izarra

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Pedro Irizar Oregi

Dolores Gorostizaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Benita Azkarate Etxeberria

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Teodora Iturbe Arenaza

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 20an,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:



OROIORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amilaga auzoa 27 - 20570 Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Faxa.: 943 76 94 76
maribi@oroiole.com



Bidaia ezin hobea

OROIORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

bila-bila 7



hitz gezidunak

	Hiltzaile	Bizkaiko herria	Zintzoa
	Ondorioa izan	* Irudiko fruitua	Oinez abiatu
	Semearen arreba		
Hori argi			
Hobe	Fruitu mota		Erretegia
Logura	Gu, geu		
		Kontso. errepikatua	
		Dauka	
Urlia, sandia eta ...			
Ortzi			
		Dudaren hasiera	Boroa
		Aluminioa	Musika nota
Harrapa ezak!	Ez eme	Selenioa	
Joko egilea	Bokala	Kontso-nantea	


soluzioak

A	R	A	R	A	L	I	K	A	R	A	N	B
V	I	O	T	O	T	M	S	I				
H	T	A	V	A	N	I	G	O	D			
I	V	E	B	E	L	A	K	L	A	N	K	A
O	R	E	E	O	E	O	E	S	I	D	O	S
G	I	G	I	N	O	I	A	T	A	V	A	O
A	A	O	R	A	A	A	A	O	R	A	A	A
R	R	I	A	Z	T	R	R					
A	A	R	G	A								

Jeroglifoa: Pilotan.
pilotan

1	3	9	4	8	7	2	6	5
6	5	8	2	1	3	7	9	4
4	2	7	5	9	6	1	3	8
8	7	3	9	6	2	5	4	1
2	1	6	3	5	4	9	8	7
5	9	4	1	7	8	6	2	3
3	4	5	7	2	9	8	1	6
9	6	1	8	3	5	4	7	2
7	8	2	6	4	1	3	5	9

J	O	K	A	L	A	R	I	A
E	S							
B								
A								
L	L							
A	B	A						
N								
O								




sudokua

8								5
	1							4
	5	7		9	8			
9	4		7		6	2		
		3		4				
7	3		6		5	4		
	7	5		6	1			
	8				7			
3								6

hieroglifoa

Zertan ari dira jolasean?



hizki salda

Nafarroako 5 ibaien izenak

A	O	T	S	A	R	G	A	A
U	A	N	I	A	Z	T	R	R
A	E	G	A	A	A	O	R	A
O	T	A	A	T	N	O	I	G
S	I	D	Y	O	E	E	R	O
A	N	K	L	A	B	E	A	I
D	O	G	E	N	I	A	T	H
I	S	M	T	O	T	O	I	A
B	N	A	L	I	K	A	R	A

bono fotoa



Euskal Erkidego Autonomoan bi lorategi historiko daude soilik Kultur Ondasun kalifikazioarekin: bata Donostiako Aiete jauregikoa eta bestea Bergarako jauregi batekoa. Zein da jauregi horren izena?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Campos hegaluzea oliotan
120 g-ko lata

1,58 €

Hiru eramanda, bakoitzak 1,05 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Bergarako ANDONI BADIOLArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: San Lorentzo.

max⁺
cuenta | kontua

Interesgarria,
hemengoa
izan behar

%5
U.T.B.

2008KO MARTXOAREN 31RA ARTE
GEHIENEZKO ZENBATEKOA 10.000€

egundoko interesa,
erabilgarritasunarekin
eta komisiorik gabe
aurrezpena ikusteko duzun
era aldatuko dizu

Interes-tasa %5 U.T.B. (%4,889 nominala).
Diru-sarrerak eta itzulketak egiteko
gutxieneko zenbatekoa: 2.000€.
Ohiko ordainketa: %3,25 U.T.B. (%3,203 nominala)
Helbideratzerik ez du onartzen.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Eneko Barberena > Txatxilipurdiko arduraduna

"Une honetan daukadan sormena kanalizatzeko bidea lana da"

Konplexua eta alderdi asko dituen mutil modura definitu du bere burua Eneko Barberena arrasatearrak. Txatxilipurdiko arduraduna da lanbidez, eta, lanak ordu asko kentzen dizkion arren, bere zaletasunetarako tarte duenean aprobeztatzen ere badaki. Bertsolaritza eta literatura ditu gogoko eta garai batean eskubaloian ibilitakoa ere bada.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Saltsa askotako perrexila da Eneko Barberena. Bere lanarengatik edo liburuengatik inoiz ekarri dugu gure orrietara; oraingoan bere beste alderdi batzuk ezagutuko ditugu.

Saltsa askotan sartuta zabilzan mutila zara, ezta?

Bai, eta beharbada horrek egingen nau konplexu. Mila saltsatan sartuta egoteak mila arrasto uzten du; saltsa bakoitzak berea. Gauza askotan lan egiteko eta gauza asko ikasteko aukera izan dut.

Egun Txatxilipurdin diharduzu, baina beste hainbat lanean jardundakoa zara. Zertan?

AEKn irakasle, aldizkari batean eta kobratu gabeko lanak, curriculumean agertzen ez direnak, asko egin ditut. Unibertsitatean ikasle mugimenduan, *Putz* aldizkarian, gaztetxean, Gaztesarean, kolaborazioak ere egin ditut, egun Halabedi irratiarekin dihardut, GOIENKARIArekin ere egin izan ditut gauzak... Horiek guztiak lanak diren ez dakit, baina niri lana ematen didatela bai.

Ikasketaz Zuzenbidean lizentziaduna zara. Nola erabaki zenuen karrera hori ikastea?

18 urte nituela ez neukan batera argi zer ikasi nahi nuen. Hezkuntzan gaizki bideratuta dago aukeratu behar hori. Kazetari edo historialari izan nahi nuen, baina ingurukoek esan zidaten etorkizunik ez zeukatela ikasketak horiek eta abokatu izateak ate gehiago irekiko zizkidala. Orain lanean dihardut zuzenbidearekin zerikusirik ez duen kontu batean. Hala ere, ikasitakoak hainbat gauzatarako balio izan dit eta balioa didala uste dut.

Nolako esperientzia izan zen Zuzenbidea Donostian ikastea?

Nik uste dut ez nintzatekeela naizena izango Donostiara joan gabe. Esperientzia onak eta txarrak, denetarik bizi izan ditut Donostian sei urtean. Etxetik aldentzeak balio izan dit ingurunea beste begi batzuekin ikusteko. Zuzenbidea, berriz, nahiko mundu grisa izan arren, hor gertatzen dira egindako lagunak, fakultatean egindako borrokatxoak...

Idazlea ere bazara. Bi liburu dituzu kalean.

Bai. *Putz* aldizkarian hasi nintzen kolaboratzen eta gero bertako erredakzioko kide. *Putz* ek umorea, sexua... jorratzen zituen eta umorezko ipuinak eta



GOIENKARIA

PERTSONALA

Herria: Arrasate, Musakola auzoa. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Zuzenbidean lizentziaduna. **Gogoko idazle bat?** Joseba Sarrionandia. **Mesanoxean une honetan duzun liburua?** *La insoportable levedad del ser*, Milan Kunderarena. **Biziorik baduzu?** Galletak.

Maniarik? Gauez pertsianak beheraino, erabat ixtea. **Bidaiatzeko leku bat?** Argentina; iaz izan nintzen euskara eskolak ematen eta asko gustatu zitzaidan. **Bizitzeko toki bat?** Arrasaten orain gustura bizi naiz. **Amets bat?** Euskal Herri euskalduna.

asko erotikoak idatzi nituen, eta horiekin osatu nuen lehen liburua. Bigarrena poema liburua da, *serioagoa*, eta lehenengoarekin zerikusirik ez duena.

Orain, literaturari dagokionez, baduzu zerbait esku artean?

Ez; orain nire energia guztiak Txatxilipurdira joaten dira, etxera oso nekatuta iristen naiz eta idazten ditudan gauzatxoak niretzat izaten dira. Une honetan daukadan sormena kanalizatzeko bidea lana da, horretarako aukera ematen didan lan bat dudalako. Idatziko dut lasai, nire burua presionatu gabe. Ez dut kontraturik ez eta kanpoko presiorik ere.

Lehiaketarik ere irabazi duzu.

Ondarroan testamentuen lehiaketa irabazi nuen. Paradoxa da, niri ez zaizkidalako lehiaketak gustatzen, eduki eta gai aldetik asko mugatzen dutelako.

Zure sormen lanen artean kanuatarako letrak ere badaude.

Bai, egin ditut Anger taldearendako, lagunak ditudalako eta Amaiur berbena taldearendako Ikasle Egunerako.

Bertsotan jarraitzen duzu?

Hori da nire zaletasunetarikoa bat. Bertsotan nahiko kaxkarrak izan naiz beti, baina gustatzen zait. Jardun izan dut bertsotan tabernaren baten, parrandan. Gaztetxeko bertso eskolan ere badihardut Xanti Iparragirrerekin: barkamena eskatu beharrean nago azkenaldian kale egin dudalako, baina agertuko naiz.

Beste zaletasunik baduzu?


Urtetan eskubaloian jokatu dut, baina orain denborarik ez dudanez utzita daukat. Partiduak telebistaz ikusten ditut eta inoiz Iturripera ere joaten naiz.

Bidaiatzea ere gogoko duzu.

Iaz Argentinan izan nintzen 15 egunez, euskara irakasle. Txilen, Errumanian eta Marokon ere egon naiz. Badirudi bidaiatu barik ez garela ezer eta nik ere leku berriak ezagutzea dut gogoko.

Gauza batzuk alboratu dituzula diozu; aurrerantzean berriz hartuko dituzu ala beste asmorik baduzu etorkizunerako?

Ez dut etorkizunerako asmo zehatzik, momentuz nahikoa dut Txatxilipurdiko lana aurrera ateratzearekin. Aurrerago, beharbada, etxea aurkitu eta horietan guztietan pentsatzen hasiko naiz.



AZKAR Minutu batean eta guztiz doan foro bat sortzeko aukera emateaz gain, posta zerbitzua ere eskaintzen dute. GOIENKARIA

INTERNET > FOROAK.COM

Foroak euskaraz sortu ahal izateko lan tresna

'www.foroak.com' webgunea sortu dute, besteak beste, egungo teknologia berrietan euskara zabaltzeko eta Interneten eduki euskaldunak izateko

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Interneten nabigatzen dutenek maiz ikusten dituzte foroak; bada, euskarazko foroak ere iritsi dira. Orain edozeinek egin dezake foro bat, inolako jakintzarik eduki gabe, eta guztiz euskaraz. Horretarako www.foroak.com webgunea sortu dute. Webguneak posta zerbitzuak egiteko aukera ere eskaintzen du.

Ideiaren sortzaile eta webmaster Asier Badiolak esan digunez, "Interneten barrena nabiga-

zatean, ez da zaila ikustea euskaldunen foroak. Baina foro hauek, asko eta asko erdaraz sortuak dira. Erabiltzen duten foro sistemak ez du itzulpenik izaten, eta euskaldunek ezin izaten dute disfrutatu foro euskaldun propio batekin. Gainera, badago jendea foro bat sortzen ez dakiena, eta guk aukera hori ematen diegu, gure sistemak modu automatikoki lan hori eginez".

Hori guztia kontuan hartuta, bizpahiru lagun elkartu ziren eta ekimenaren ideia osatu zuten. Hasieran gutxi ziren arren, gero eta gehiago dira asmoaren atzean daudenak: "Denok gara Euskal Herriko toki desberdinetakoak, eta Internet arloan bakoitza gai batean espezializatua da", dio Asier Badiolak.

ERANTZUN ONA ORAINGOZ
Ekimen berria da, urte hasieran abiarazi baitute: "Proiektuarekin 2007ko urrian hasi ginen: atalak sortu, barne-egitasmoak...

Azarotik aurrera jende gehiago batu ginen taldean eta 2008. urte hasierarako, urtarrilaren 3rako, sarean zegoen www.foroak.com". Asier Badiola arduratzen da webgunearen eta foroaren kudeaketaz eta kontrolaz eta erantzuna benetan ona izan dela esan digu: "Bisita asko hartu ditugu eta, gainera, foro asko ari dira sortzen".

Ekimen horren helburu nagusia da euskara zabaltzea: "Uste dugu euskaldunok merezi dugula Interneteko zerbitzuak euskaraz izatea, eta oso garrantzitsua izan daitekeela horrelako proiektu bat", dio Asier Badiolak. Gainera, taldean lan egiten duen inork ez du irabazi ekonomikorik jasoko; orrian publizitatea agertuz gero, irabaziak zerbitzariak mantentzeko izango dira.

Hortaz, norbaitek euskarazko foro bat sortu nahi badu bere webgunerako edo erabilpen pertsonalerako, www.foroak.com helbidera sartu, foroa bera sortu eta minutu batean gertu izango du.

teknologia berriak

> DISKO GOGORRA

LaCie Ethernet Mini Disk: familia eta lagunekin argazkiak, bideoak eta musika partekatzeko

LaCie Ethernet Mini Disk Home Edition disko gogorra aurkeztu berri dute.

Disko gogor hori routerra-ren portuetariko batean konektatuz gero, ordenagailuan dagoen informazio guztia eskura izango dugu, nahiz eta hura itzalita egon. Edukia etxetik edo kanpotik eskuragarri dago, modu erraz eta seguruan LaCieren webgunearen bitartez.

Disko gogorra 500 GB-ko edukieran eskuragarri egongo da, 239 euroko salneurrian.



Zerbitzari birtual modura erabil daitezke LaCieren disko gogorra.

> TAULA GRAFIKOA

Wacon enpresak taula grafiko eta pantaila interaktiboak fusionatu ditu Cintiq 12WX modeloan

Wacom enpresaren Cintiq 12WX taula grafikoa munduko sortzaileentzako pentsatuta dago. Mahai gainean edo belauen gainean erabil daiteke.

Pantaila presiora sentibera da eta dakarren lapitzarekin marra naturalagoak egin daitezke.

Sarrerako gailu guztiak pila eta kable barik dabilta; izan ere, taula grafikoa ematen die energia.

Salneurria: 1.200 euro.



12 hazbeteko pantaila du eta mahai gainean edo belauetan erabil daiteke.

> LUMA DIGITALA

Nokia SU-27W: bluetootha eta 1,3 MB-ko barne memoria duen luma digitala

Jarri dute salgai Nokia enpresaren azken produktua, eta ez da sakelako bat, luma digital bat da.

Nokia SU-27W bluetootha duen luma digitala da. 1,3 MBko barne memoria du, eta bertan, ekoizlearen arabera, A-5 formatuko 100 orri gorde daitezke. Luma digital horrek paper berezi bat behar du idazten dena ulertzeko.

Hiru orduko autonomia du eta LED adierazle bat du funtzionamenduan dagoen jakiteko.

Salneurria: 167 euro.



Luma digital horrek paper berezi bat behar du idazten dena ulertzeko.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko **blog-komertzialak**

www.goiena.net/blogak

- | | | | | |
|----------------|------------------|-------------------|----------------|---------------|
| /aebpn | /dragon-oriental | /gorla | /maulanda | /udalatz |
| /aiastui | /dukiena | /gurea | /mayte | /udalaitz |
| /arantxa | /ego | /guztizeder | /merkeopari | /urdeki |
| /aretxargi | /eguzkigraf | /hamaikataberna | /multiopticas | /ugartearotza |
| /argi-plastik | /ekilore | /itxaseder | /ohiak | /urbietza |
| /arregi | /ekin | /irudisport | /ogizun | /urko |
| /atai | /elejalde | /ixaun | /okipark | /vitoria |
| /azkarate | /ezkutuorly | /izeder | /optico | /zainduz |
| /bastida | /galgorri | /jrcacing | /otzeta | /ziripot |
| /briz-asegurua | /gallastegi | /lamaino-etxeberr | /pando | |
| /BZ-sistemas | /ganesha | /lorean | /perpipar | |
| /bolusukaldeak | /garaia | /korozabaleta | /puerta-ingles | |
| /denetik | /gertu | /kizkur | /richimaier | |
| | /gorkatxi | /markiegi | /tabernerri | |

Eta baita ere:

- www.aizue.com
- www.amgautoak.com
- www.baster-aldejatetxea.com
- www.ehmf.com
- www.gelatzu.com
- www.goikobenta.com
- www.haurboxa.com
- www.kizkur.com
- www.lilura.com
- www.landaluze.com
- www.lilura.com
- www.toldoslete.com
- www.uxarte.net
- www.biark.net



berriak

> HARMAILATIK

Aloñaren eta UDaren arteko derbia 'Harmailatik' saioan

Asteburuan jokatu den Aloña Mendiren eta UDaren arteko futbol derbiak uzten dituen ikusteko aukera izango duzue *Harmailatik* saioan, Xabier Urtzelaireren eskutik.

Gainera, Oñatiko Zubikoa kiroldegian bihar 19:00etan jokatu den Asobal ligako eskubalo partidu gertatukoak ere izango dituzue ikusgai. Arrate eta Cai Zaragoza izango dira aurrez aurre lagun arteko partiduan.

> BERBAIRE

Ibarreko kontuak aztergai 'Berbaire' saioan martitzenean

Lourdes Idoiaga, Iñaxio Garro, Lore Martinez eta Manu Egaña egongo dira *Berbaire* saioan datorren astean.

Beste behin ere, Julen Iriondok zuzentzen duen saioan gure bailaran eguneroko errealitate diren kontuen gainean arituko dira.

Esan bezala, tertulia-kide horiek esaten dituztenak ikusteko aukera datorren martitzenean eta eguenean izango duzue, 21:47an.

> ARRASATE IRRATIA

Udal aurrekontua berbaire izango da egubakoitzean

Duda barik, edozein herritako funtzionamendurako ezinbestekoa da udal aurrekontua. Bada, ezustekorik ezan, Arrasatekoak datorren eguenean onartuko dituzte, 19:00etan udalbatzak egingo duen bilkuran. Hori horrela, egubakoitzeko irratiko albistegian landuko ditugu xehe-tasun guztiak: kopuru osoa, inbertsio nagusiak, eztabaida politikoa... Egunero moduan, 10:00etan hasita.

> ARRASATE IRRATIA

3.60 aretoarekin elkarlanean, sarrerak kontzertuetarako

Irratiak astero ditu opariak entzuleen artean zozketatzeko, geroago eta gehiago, gainera.

Horren adibide da aurretantzean Arrasateko 3.60 aretoak ere sarrerak emango dituela, irratiko entzuleak areto horretan antolatzen diren kontzertuetara joan daitezten. Horrez gainera, astero moduan, CDak, jolasak eta, besteak beste, Arrasateko Udalak antolatzen dituen ikus-entzunezkoetarako sarrerak ere zozkatzen jarraituko dute.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Inazio Arregi jesuita izango da gaur 'Ilunpean' saioan

Inazio Arregi oñatiarrak 20 urte eman ditu Radio Vatikanoko albistegietako buru

GOIENKARIA > ARRASATE

Inazio Arregi jesuita Oñatin jaio zen duela 76 urte. Garai hartan Oñatin txokolatea egiten zuten hainbat familia zeuden eta horietako batean jaio zen Arregi.

Filosofia, Teologia eta Gizarte Komunikazioko ikasketak egin zituen. Loiola Irratiko sortzaileetarikoa bat, irratia hori FM bidez emititzearan lan-taldeko arduraduna izan zen. Ondoren, Eusko Irratiko zuzendari lanetan aritu zen eta azken 20 urteak Vatikanon eman ditu, Radio Vatikanoko albistegietako buru. Iker Barandiaranek elkarriketatuko du gaur *Ilunpean* saioan.



INAZIO ARREGI Oñatin jaioetako jesuita da.

IKER BARANDIARAN

'ZAHARRAK BERRI' > EGUAZTENA, 20:15

Zitrikoen ezaugarriak, erramu biribilak eta tertulia saioa 'Zaharrak berri' saioan

GOIENKARIA > ARRASATE

Dakizuen moduan, gure nagusiei zuzendutako saioa da *Zaharrak berri*. Eguaztenean eskaintzen dute Goiena Telebistan, 20:15ean. Datorren astean, Aitziber Aranburuzabak zuzendutako tarte horretan, beti bezala,

Oñatiko Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak elikagai baten inguruko informazioa eta aholkuak emango dizkizue. Datorren asteko gaia: zitrikoak. Hark azalduko ditu zitrikoen onurak, hala nola katarroa eta tripetako

gaitzak sendatzeko dituzten ezaugarri nutrizionalak eta beste hainbat kontu.

Bestetik, Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiaren eskutik, erramu biribil bat nola egiten den ikasi ahal izango duzue. Loreak nola moztu edota erramu biribil hori nola mantendu erakutsiko dizue Zenitagoiak.

Asteroko tertulia tartean, Luis Larrañaga eta Karlos Arrondo bergararrak euren zaletasunen edota afizioen gainean jardungo dute. Ez ahaztu, eguaztenean 20:15ean, *Zaharrak berri*-n.

telebegi

Aitor Arregi

Ez daukat hain garbi

Aitortu beharra daukat hasieran ez niola kasu askorik egiten *Callejeros* saioari. Noizbait, zatitxoren bat ikusita neukan, baina ez zidan ezer askorik esaten.

Orain telebistan gustuko duen dudaren saioetako bat da. Gehienetan gaia oso antzekoa izaten da. Hiri handi bateko auzo liskarti eta txiro batera joaten dira bertako jendearen penak grabatzera. Drogak, yonkiak, prostituzioa, etab. Auzoko xeblebrei kobertura nabarmena eskaintzen die, momentu umoretsuak bilatu nahirik. Eta momentu horiek dira saioko entretenigarrietakoak.

Saioak sentsazionalismoa duela oinarri esaten dute batzuek. *Callejeros*-en arduradunek, aldiz, salaketa soziala egiten dutela diote. Ez daukat hain garbi norekin nagoen. Uste dut biek dutela arrazoi pittin bat. Non jarri ondo eta gaizki desberdintzen duen lerro morala? Niretzat, *Callejeros*-en dikotomia mundu honetan gauza ia guztiakin gertatzen denaren erreflexu da. Hau da, gehienetan gauzak ez direla beltzak edo zuriak, grisak baizik.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Ilunpean saioan, Itoitz taldeko Juan Karlos Perez: musika kontuak, *Kantaka* saioan: hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak berri* saioan, eta beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenerik eguaztenean

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldien iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearren errepaso
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko:
943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 18

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Animalia. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportajea. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutik. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 19

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik 13:00 Eltze beroa 13:30 Erreportajea. 14:00 Berbaire. 15:00 Kantari. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Erreportajea. 19:30 Klip@. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Animalia. 21:00 Berbaire. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 20

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 Ikusten. 13:30 Jazmina. 14:00 Animalia. 14:30 Eltze beroa. 15:00 Musikantoi. 15:30 Erreportajea. 14:00 Ilunpean. 16:30 Marrazki bizidunak. 19:00 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur 20:30 Erreportajea. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:00 Gertutik. 22:30 Erreportajea. 23:00 Teknopolis. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera

Astelehena, 21

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Tipi TTap. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hitz bitan. 18:15 Ikusten. 18:45 Berriak. 19:15 Gertutik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Udazken koloreak. 22:15 Kiro-lari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 22

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Gertutik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kiro-lari. 16:15 Eltze beroa 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire 22:15 Animalia. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze berioa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Ikusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Zu kazetari. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera

Eguena, 24

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Zu kazetari. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:17 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatuz

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

Urtarrilak 18-24

LEIRE KORTABARRIA

Zuzon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Jaiak



BERGARA

> San Antonabat jaiak ospatzen jarraituko dute San Anton auzoan

Bihar, zapatua, auzo-txikiteoa, 21. mus txapelketa Zubiberri sagardotegian eta herri afaria izango dira; etzi, domeka, etxafuegoak, meza eta mokadua, 31. San Anton krosa, herri kirolak eta umeendako txapelketak.

Antzerkia



OÑATI

> Antzerki emanaldia egingo du Pake-Leku-ko Ikusi Makusi erretiratuen taldeak

Pake-Lekuko antzerki taldeak abenduaren 21ean estreinatu zuen *Nos vamos de vacaciones* antzezlan eta berriz egingo du gaur, egubakoitza, Santa Anan, 20:30ean. Izan ere, aurreko emanaldian jende asko sarrera barik geratu zen.

Kontzertua



ARRASATE

> UEK taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan

UEK taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean. *Uhinak* delako diskoko abestiak joko dituzte, batik bat. Cobra taldeak eta Arrasateko hainbat musikariek ere joko dute gaurko emanaldian.

kontzientziazteko asmoz, erakusketa ibiltaria antolatu du Mankomunitateak. Kontsumoaren eta hondakin sorreraren arteko lotura eta horrek sortzen dituen ingurumen, gizarte eta ekonomia arazoak, hondakinak tratatzeko azpiegiturek zelan funtzionatzen duten... horiek eta beste gai batzuk lantzen ditu.

Bergarako kultura etxean, astelehenera arte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00; Oñatiko kultura etxean, otsailaren 3ra arte, egunero, 18:30-20:30.

Musika

ARETXABALETA

> Aby-Kem taldeak kontzertua egingo du gaur

Bergarako Aby-Kem taldeak kontzertua egingo du Haizea tabernan. *Azen guda* diskoko kantuak joko dituzte. Gaur, egubakoitza, 21:30ean.

ARRASATE

> Disko-jartzaileen emanaldia izango da 3.60 aretoan

Bergarako ENE! (kogollo crew) eta Bartzelonako Diego Casares disko-jartzaileek emanaldia egingo dute. Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 04:00etan.

BERGARA

> Disko-jartzaileek jardungo dute Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, DJ Pinzak girotuko du gaua, eta bihar, zapatua, DJ Odeik. Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

BERGARA

> Obituary death metal taldeak kontzertua egingo du

Death metal estiloko Obituary taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan, *Xecutioner's return* diskoa aurkezteko. Holy Moses eta Avatar taldeek ere joko dute. Sarrerak salgai daude 22 eurotan; txarteldegian, 25 eurotan. Bihar, zapatua, 19:00etan.

Bestelakoak

ARRASATE

> 'Historia zinemaren bidez' jardunaldien emanaldia

Hurrengo emanaldia martitzenean, hilak 22, izango da, eta *La bestia del reino* filma ikusiko dute. Gero, Alvaro Aragon hizlariak azalpen batzuk emango ditu.

Kulturaren izango da, 18:00etatik 21:00etara. Euskaraz izango da hitzaldia.

DEBAGOIENA

> 'Neguko gida' kaleratu dute udal liburutegiek

Udal liburutegiek eta Mankomunitateak *Neguko gida* prestatu dute. Ia 90 dokumentu gomendatzen dituzte.

Debagoieneko liburutegietan dago gida hartzeko aukera.

Antzerkia

ARETXABALETA

> Helduendako ipuin kontakizun saioa egongo da

Antton Irustak helduei zuzendutako ipuin kontakizuna egingo du, Loramendi euskara elkarteak antolatuta. Sarrera doan da. Kontuan hartu leku aldaketa egon dela: udaletxe zaharrean izango da.

Gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

OÑATI

> 'Pagagnini' antzezlan musika-la egingo du Yllana taldeak

Yllana taldeak, Ara Malkian biolin-jolearekin, *Pagagnini* antzezlan egingo du etzi Santa Anan. Sarrerak 10 eurotan daude salgai kultura etxean; goizez, bulegoan salduko dituzte, eta arratsaldez, berriz, harreran.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

ARETXABALETA, BERGARA

> Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak, asteon salgai

Pirritx eta Porrotx pailazoei eta Mari Mototsek *Eskerrik asko!* ikuskizuna egingo dute hilaren 26an Aretxabaletan –sarrerak kultura etxean eros daitezke–, eta otsailaren 2an Bergaran –sarrerak pilotalekuan jarriko dituzte salgai.

Aretxabaleto sarrerak hilaren 21ean jarriko dituzte salgai, eta Bergarakoak, 22tik 24ra bitartean.

Lehiaketak

ARRASATE

> Emakumearen Eguneko kartela aukeratzeko lehiaketa

Udal Berdintasun sailak Emakumearen Eguneko kartelaren lehiaketa deitu du.

Emakumearen parte-hartze soziopolitikoaren garrantzia azpimarratu gura dute; hortaz, leloa, librea bada ere, gai horrekin zerikusia izan beharko du. Lanak aurkezteko mugaeguna otsailaren 15a da, BAZen. 900 euroko saria dago.

Argibide gehiago: www.arrasate-mondragon.org.

Ikuskizunak

ELGETA

> 'Gu ta gutarrak' bertso eta musika emanaldia dago gaur

Gu ta gutarrak musika eta bertso ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da. Igor Elortzak, Unai Iturriagak, Josu Zabalak, Aitor Rubiok eta *Xanpe-k* parte hartuko dute. Horrez gain, bertsolari gonbidatu bat egongo da.

Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

Erakusketak

OÑATI

> Luis Laskurain bergararraren margo erakusketa

Luis Laskurain margolari bergararrak erakusketa dauka kultura etxeko erakusketa aretoan. Urtarrilaren 20ra bitartean egongo da zabalik.

Bisita ordutegia hauxe da: egunero, 18:30etik 20:30era.

BERGARA

> Emakumeen eskularen erakusketa, gaur hasita

Bergarako Emakumeen Kultura Elkarteak egindako eskularen ikusteko aukera izango da Aroztegi aretoan. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute, eta hilaren 27ra arte egongo da ikusteko modua.

Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta

18:00-20:30; domeketan, 12:00-14:00.

ARRASATE

> 'Txotxongiloaren artea' erakusketa dago kultura etxean

Corrado Masacci italiarrak sortu eta batutako lanen erakusketa, *Txotxongiloaren artea*, dago Kulturaten. Txotxongiloaren artegintzaren historia errepara daiteke.

Zabalik dago arratsaldero (17:30-20:30), astelehenetan izan ezik.

ELGETA

> Gemma Silbanen margolan erakusketa Espaloian

Gemma Silban margolari zarautzarrak margolanak ipini ditu ikusgai Espaloian. Urtarril osoan dago zabalik.

BERGARA, OÑATI

> 'Hondakinak, amesgaiztorik ez!' delako erakusketa dago Hondakinaren gainean

PROPOSAMENA

ARRASATE

> Alzheimer gaitzaren inguruko antzezlan egingo dute domekan

Amamaren memoria ahultzen ari da, zuhaitzetik erori eta galtzen diren hostoak bezala da. Alabaren etxera doa bizi izatera, denon artean oroimena berreskuratzen saiatuko dira, gaitzak ez dezan gehiagora egin. Horixe da Pok Produzioak taldeak etzi, domeka, taularatuko duen *Amamaren memoria* delako antzezlaneko haria; Alzheimer gaitzaren inguruko gogoeta, alegia.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.



nire aukera



Maite Uribarren
Ekineko dinamizatzailea
Arrasate

"Iparraldea asko gustatzen zait"

Aste bukaeretan edo bestela ere jai dudanean, hortik zehar ibiltzea eta leku berriak ezagutzea gustatzen zaigu mutil-lagunari eta bioi. Furgonetan joaten gara eta halaxe ematen dugu aste bukaera. Egubakoitz arratsaldean jai baldin badaukagu, orduan irteten gara, eta astelehen goizean bueltatzen gara; denbora ondo aprobetxatu gura izaten dugu. Urte osoan egiten ditugu irteera horiek; neguan ere bai, oso-oso txarra egiten ez badu, behintzat.

Iparraldea bereziki gustatzen zait: Angelu, Biarritz, Donibane Garazi, Donibane Lohizune...

Udako oporretan antzeko plana egiten duzu?

Ez, bestelakoa izaten da. Adibidez, iaz, Cabo de Gatan eta Portugalen egon ginen 15 egun eta San Juanetan, beste astebete leku berean.

Arrasaten geratzen zarenean, zer egiten duzu?

Lan egiten dut, kontzerturen batera joaten naiz, zinemara, batzuetan lagunekin irteten naiz...

Trago bat hartzeko leku gogokoena Arrasaten? Ekaitz edo Iluntz tabernak.

Eta ze musika estilo duzu gustukoena?

Rock-and-rolla, batez ere; eta, horren barruan, denetarik. Orain azkeneko, The Hot Dogs-en kontzertura joan nintzen, eta oso ondo pasatu nuen.

Zinemara ere joaten zarela esan duzu...

Bai, baina ez naiz zale amorratua; noizean behin baino ez naiz joaten.

Paseatzera joateko Arrasateko txoko kutunena, zein? Udala asko gustatzen zait.

Eta zein da zure jairik gogokoena?

Santamasetako giroa oso gustuko dut. Baserritar janzen naiz eta hantxe ibiltzen naiz... Ekinekin taloak egiten ere egoten naiz.

Zinema

ARAMAIO
KULTURA ETXEA

Harri magikoaren bila
Domeka: 17:00.

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

13 rosas
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Hiru mosketariak
Zapatua: 17:00.

Tierra
Eguena: 20:30.

BERGARA
AGORROSIN

Ratatouille
Zapatua eta domeka: 16:30
eta 19:30.

GAZTETXEA

Kids
Domeka: 18:00.

ELGETA
ESPALOA ANTZOKIA

Sherlock Holmes
Domeka: 17:30.

El año de la garrapata
Eguaztena: 21:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA

Soy leyenda
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Winkyren zaldia
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Juegos secretos
Eguena: 20:00.

EIBAR
UNZAGA

Soy leyenda
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00,
19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta
eguztzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ
GURIDI

American gangster
16:30, 19:30, 22:30.

La sombra del cazador
16:30.

Los crímenes de Oxford
17:30, 20:00, 22:30.

La búsqueda 2
17:30.

El amor en los tiempos
del cólera
17:00, 19:45, 22:30.

Deseo, peligro
18:30, 22:00.

Alien vs. Predator 2
16:30, 18:30, 22:30.

Expiación
17:30, 20:00, 22:30.

Viaje a Darjeeling
20:30.

Irina Palm
20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

XXY
18:00, 20:15, 22:30.

En el valle de Elah
17:30, 20:00, 22:30.

Caramel
18:00, 20:15, 22:30.

Provoked,
una historia real
17:30, 20:00, 22:30.

This is England
18:45, 20:45, 22:40.

El prado de las estrellas
17:30, 20:00, 22:30.

Desacuerdo perfecto
18:00, 20:15, 22:30.

Alvin y las ardillas
17:00.

YELMO
CINEPLEX-GORBEIA

Alien vs. Predator 2
12:15, 16:05, 18:05, 20:05,
22:05, 00:05.

Los crímenes de Oxford
12:15, 16:00, 18:10, 20:20,
22:30, 00:40.

La sombra del cazador
12:15, 16:20, 18:20, 20:20,
22:20, 00:20.

American gangster
12:15, 15:40, 17:15, 18:30,
20:15, 21:30, 23:15, 00:05.

Halloween
20:15, 22:30, 00:45.

Mimzy, más allá de la
imaginación
12:15, 16:15, 18:15.

Viaje a Darjeeling
20:25, 22:25, 00:25.

La búsqueda: el diario
secreto
17:20, 19:45, 22:10, 00:35.

Soy leyenda
18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

El amor en los tiempos
del cólera

12:15, 16:15, 19:00, 21:45,
00:30.

Alvin y las ardillas
12:15, 16:00, 18:00.

La brújula dorada
12:15, 16:30, 18:35.

El arca de Noé
12:15, 16:25, 18:25.

Promesas del este
19:50, 21:50, 23:50.

Rec
20:40, 22:20, 00:00.

El orfanato
20:00, 22:00, 00:00.

Encantada
12:15, 15:45, 17:45.

Las 13 rosas
19:45, 22:10, 00:35.

Bee movie
12:15, 15:50, 17:50.

Donkey Xote
12:15, 16:30.

Tierra
12:15.

Mr. Magorium
y su tienda mágica
12:15, 15:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna
(jaiegunak izan ezik).

ÁBACO
BOULEVARD

Alien vs. Predator 2
16:00, 18:05, 20:20, 22:30,
00:45.

Expiación
16:30, 19:15, 22:15, 01:00.

Halloween
20:20, 22:35, 01:00.

Mimzy, más allá de la
imaginación
16:00, 18:05.

American gangster
16:10, 19:20, 22:00, 22:30,
01:00.

Los crímenes de Oxford
15:50, 18:10, 20:30, 22:45,
01:00.

Soy leyenda
16:10, 18:20, 20:30, 22:40,
00:45.

El amor en tiempos
del cólera
16:20, 19:10, 22:00, 00:45.

El espía
20:30, 22:45, 00:45.

La búsqueda 2
20:10, 22:45.

Alvin y las ardillas
16:00, 18:00, 20:00.

La criatura perfecta
16:15, 18:20, 20:25, 22:35,
00:45.

1.408
15:50, 18:05.

La brújula dorada
15:50, 18:10.

Bee movie
16:15, 18:15.

El orfanato
20:20, 22:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

En el valle de
Elah ***

Zuzendaria: Paul Haggis.

Aktoreak: Tommy Lee Jones, Charlize Theron, Susan Sarandon.
AEB. 2007.
120 min.

Gaur, Veneziako Zinemaldian parte hartu eta Donostiako Zinemaldian ikusteko aukera izan genuen *En el valle de Elah* estreinatzen da. Filmaren egilea Paul Haggis dugu: *Crash*-en zuzendaria eta *Million dollar baby* eta *Banderas de nuestros padres*-en gidolaria. Kontatzen zaigun istorioa gure garaian kokatzen da eta Irakeko gerrari buruz hitz egiten digu. Hori bai, filmak ez du gerra orokorrean aztertzen, honek Ameriketako Estatu Batuetako eta bere biztanleentzako izan dituen ondorioak baizik.

En el valle de Elah ikustekoan bi film bururatzen zaizkit: Costa Gavrasen *Misling* eta Rob Reiner-en *Algunos hombres buenos*: belaunaldi eta pentsaera desberdinetako bi pertsonaia, Tommy Lee Jones eta Charlize Theron, desagertutako pertsonaia baten bila ari dira eta bidaia honen bitartez Ameriketako Estatu Batuetako mandatarien jokaera zalanztan jartzeko aukera izango dute; bidaia hau *Missing*-en, Jack Lemmon eta Sissy Spacek-ek egiten zuten, eta bikoteak militarren munduan dauden kodigoekin eta sekretuekin topo egingo du, hor *Algunos hombres buenos*-era eramaten gaitu. Eta bidaia honi intriga emateko oso modu trebean Haggis-ek poltsikoko telefono baten kamerarekin ateratako irudiekin jokatzen du.

En el valle de Elah ausarta da, behar den momentuan gai polemiko bat jorratzen du, istorioa interesgarria da, eta agertzen diren aktoreek euren pertsonaiei sinesgarritasuna eta indarra ematen diete. Dena den, Haggis-ek gidoian gauzak lotuegiak eta landuegiak utzi nahi ditu eta, horrela, filmak fantasma kentzen dion tonu garrantzitsuegi bat hartzen du.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

La sombra del cazador **

AEB, 2007. Zuzendaria: Richard Shepard. Aktoreak: Richard Gere, Terrence Howard, Jesse Eisenberg. 96 min. 13 urtetik gorakoendako. Simon Hunt telebistako kazetaria eta Duck kameralaria gerra askotan ibili izan dira lanean. Bosniako herririka baten, Simon-ek amore egiten du.

Mimzy, más allá de la imaginación **

AEB, 2007. Zuzendaria: Bob Shaye. Aktoreak: Joely Richardson, Timothy Hutton, Michael Clarke Duncan. 97 min. Guztiendako. Ume batzuek kaxa misteriotsu bat aurkitzen dute. Barruan, jostailutzat hartzen dituzten tramankulu batzuk daude. Horiek, gero eta bizkorrago bihurtzen dira umeak.

American gangster ****

AEB, 2007. Zuzendaria: Ridley Scott. Aktoreak: Russell Crowe, Denzel Washington, Chiwetel Ejiofor. 157 min. 18 urtetik gorakoendako. 70eko hamarkada hasieran, polizia ustel asko zegoen New Yorken. Vietnameko gerrak kalte handia egiten zuen Ekialde Liruranean eta AEBetan. Gudari asko heroinara zaleluta etortzen ziren frontetik.

Encantada: la historia de Giselle ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Kevin Lima. Aktoreak: Susan Sarandon, Patrick Dempsey, Timothy Spall. 109 min. Guztiendako. Giselle printzesa ederra bere mundutik bota egiten du erregina gaizto batek.

eta neskak Manhattan-en bukatuko du. Ipuinetako arrosa koloreko bukaerak han ez dute lekurik...

La búsqueda 2 *

AEB, 2007. Zuzendaria: Jon Turteltaub. Aktoreak: Ed Harris, Helen Mirren, Nicolas Cage. 128 min. Guztiendako. Ben Gates altxor-bilatzalea da, eta abentura harrigarri baten sartuko da, historiako pasarte ezezagunak eta altxor ezkuak artean daudela. Abraham Lincoln-en hilgizale John Wilkes Booth-en egunerokoa da abenturaren hasiera.

Soy leyenda ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Francis Lawrence. Aktoreak: Will Smith, Alice Braga, Dash Mihok. 103 min. 13 urtetik gorakoendako. Robert Neville zientzialariak ezin izan du birus beldurgarri bat geldiarazi. Orain, Neville da New York hirian bizirik dirauen gizaki bakarra; beharbada, mundu osoan ere bai...

Alien vs. Predator 2 *

AEB, 2007. Zuzendaria: Colin Strause, Greg Strause. Aktoreak: Robert Joy, Ariel Gade. 86 min. 18 urtetik gorakoendako. Coloradoko herririka bateko bizitza lasaia apurtu egiten du han jausten den Predator espaziontzi batek.

La brújula dorada **

AEB, 2007. Zuzendaria: Chris Weitz. Aktoreak: Eva Green, Nicole Kidman, Ian McShane, Daniel Craig. 115 min. 7 urtetik gorakoendako.

Gizakien arimek animalien itxura hartzen duten mundu baten, 12 urteko neskatza bat aro berri baten hasieran egongo da...

Irina Palm ***

Belgika-Alemania-Luxemburgo-Erresuma Batua-Frantzia, 2007. Zuzendaria: Sam Garbarski. Aktoreak: Marianne Faithfull, Miki Manojlovic, Kevin Bishop. 103 min. 13 urtetik gorakoendako. Maggie ilobak behar duen tratamendurako dirua behar du. Sex shop baten lan egiteko aukera izango du.

Desacuerdo perfecto ***

Frantzia-Erromania-Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Antoine de Caunes. Aktoreak: Charles Dance, Charlotte Rampling, Yves Jacques. 92 min. 13 urtetik gorakoendako. Alice aktore ezaguna eta Louis zuzendaria 70eko hamarkadako bikote dotorena izan ziren.

Expiación ****

AEB-Erresuma Batua, 2008. Zuzend.: Joe Wright. Aktoreak: Keira Knightley, Benedict Cumberbatch. 123 min. 13 urtetik gorakoendako. Briony Tallis 13 urteko idazleak ahizpa nagusiaren maitaleari zerikusirik izan ez zuen krimen bat leporatzen dio.

1.408 ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Mikael Hafstrom. Aktoreak: John Cusack, Samuel L. Jackson, Mary McCormack. 104 min. 18 urtetik gorakoendako. Beldurrezko generoko idazle batek gertakizun paranormalen gaineko liburu

batzuk idatzi ditu, eta orain, hotel baten gela madarikatu baten egonaldia egin nahi du, han gertatzen denaz gero idazteko. Hoteleko zuzendariak halakorik ez egiteko gomendatzen dio...

Alvin y las ardillas **

AEB, 2007. Zuzendaria: Tim Hill. Aktoreak: Jason Lee, David Cross. 90 min. Guztiendako. Hiru katagorri bihurri dira protagonistak. Dave-ren etxean bizi izatera joatea erabakitzen dute, baina Dave konbenzititu beharko dute lehenengo...

Deseo, peligro ****

Txina eta AEB, 2007. Zuzendaria: Ang Lee. Aktoreak: Tony Leung, Tang Wei, Joan Chen. 157 min. 18 urtetik gorakoendako. Neska bat, txinatar unibertsitateko ikaslea, antzerki talde batekin parte hartzen hasten da.

Bee movie **

AEB, 2007. Zuzendaria: Steve Hickner eta Simon J. Smith. 90 min. Guztiendako. Erle batek ikasketak bukatu berri ditu, baina ilusioa galtzen du lanbide aukera bakarra duela jakierakoan: ezitia egi-tea, alegia.

Interview ***

AEB, 2006. Zuzendaria: Steve Buscemi. Aktoreak: Sienna Miller, Steve Buscemi, Michael Buscemi. 84 min. 13 urtetik gorakoendako. Pierre Peders-ek biolentzia eta bortzeria ondo ezagutzen ditu. Halako baten, Katya, telenobela bateko protagonista, elkarriketatuta beharko du.

Txakurrak eta katuak dotore

PARASITOAK HIL Txakurrak eta katuak bainatzeaz gain, arkakusoak eta kaparrak kentzen dizkiete Traskilonen

TREBEZIA Ile apaintzaileak animaliei nola heldu jakin behar du, urduri egoten dira-eta, eta jausteko arriskua dago

ARROPAK Gero eta gehiago dira maskotendako arropak egiten dituzten diseinugileak eta erosten dituzten jabeak

I. AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

San Anton eguna izan zen atzo, hilaren 17an. Animalien zaindaria da, eta animalien zaintzaz arduratzen diren leku batean izan gara: Arrasateko Traskilon txakurren eta katuen ile apaindegian.

Ainara Jorgek txakurren ile apaintzaile gisa lan egiten du Madrilan, eta Arrasaten horrelako zerbitzu baten falta sumatuta zabaldu du ile apaindegia. "Baserrietan txakurrak mangerarekin bustitzen dituzte, baina nire ustez hori ez da garbiketa sakona. Hemen, txakurrak bainatzeaz gain arkakusoak eta kaparrak kentzen dizkiegu", esan digu.

BAINATU, ILEA MOZTU ETA GARBITU

Bainuak, ile mozketak, parasitoak hiltzea, bainu hidratatzaileak... egiten dituzte Traskilonen; baita txakurrei eta katuei azazkalak moztu eta belarriak eta begiak garbitu ere. Ile apaintzailearen esanetan, "arraza bakoitzak du ilea mozteko modu berezia, baina jabeak mozketa ezberdina eskatuz gero, egiten diegu".

Ainara Jorgek esan digunez, "txakurrei bustitzea ez zaie askorik axola, lehortzea da okerragoa. Lehorgailuak zarata handia egiten duenez, izutu egiten dira. Bestalde, txakur askok ez du gustuko oinak ukitzea; kuxinak oso sentikorrak izaten dituzte eta kontu handiz ibili behar dugu".

Animaliekin lan egiteko trebetasuna beharrezkoa dela esan digu Ainara: "Garrantzitsua da jakitea txakurrari nola heldu behar zaion. Urduri egoten dira, eta mahaitik ez jaustea da kontua".

TXAKURRENDAKO MODA

Txakurrak txukundu osten, dotore janzteko arropak ere badauzkate: "Gauzak aldatuz doaz eta pixkanaka ausartu behar dugu txakurrei arropak jantzen. Zirak saltzen dira eta poliki-poliki gauza gehiago erosten dituzte jabeek. Diseinugileek ere badihardute maskotendako arropak egiten", dio Ainara Jorgek.

Maskotak dotore-dotore gertatu eta kalera paseatzera ateratzeko gertu uzten dituzte.



GARBIKETA Ainara Jorge ile apaintzailea, snoucer txikia arrazako Argi txakurra garbitzen eta apaintzen.

TXOMIN MADINA

ahobero

"Inor fio al da espainiarrok hainbeste aldiz engainatu gaituzten horiekin?"

Jose Maria Aznar > Politikaria

Espainiako Gobernuako presidente ohiak *Vascos y navarros en la historia de España* liburuaren aurkezpena baliatu zuen Zaperatori gezurti deitzeko eta espainiarrak engainatu dituela aurpegiratzeko. Aznarrek berak ez ote zuen, bada, gauza bera egin agintean zegoen garaian?

iturri onetik

Belar artifizialdun zelaia egingo dute Bergaran, Ipintzako futbol zelaian

Belar artifizialdun zelaia egitekoak dira Bergarako Ipintzan; gaur egungo hareazko zelaia ordezkatuz, hain justu ere. Horixe da, behintzat, Udalaren asmoa, eta eguazten iluntzean Bergarako Kirol Elkartearen ordezkariekin egindako batzarrean halaxe jakinarazi zieten. Kirol elkarrearen onespina ere jaso zuten. Horrekin batera, jokariendako aldagela berriak egingo dituzte.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Dotore ez da

Txundituta nauka Andoni Ortuzarrenak. Egun batean EITBko zuzendari nagusi oheratu eta biharamunean bere alderdiko lurralde-buru iratzartu da. Nik suposatzen nuen komunikazio talde publikoaren burua, alderdi lanetik aparte samar eta informazio-orekatik hurbilago ibiliko zela. Eta behin bata utzi ezker, denbora pixka bat hartuko zuela besteari heltzeko.

Oker nengoen, bistan da. Apur bat aurretik ikusiak nituen Josune Ariztondo eta Belen Greaves postutrukean, Bizkaiko Aldundia eta EBBaren artean. Zu hona, ni horra. Aparatu batetik bestera. Nonbait, urteen poderioz lausotu egiten dira alderdi pribatu eta erakunde publikoaren arteko mugak, non amaitzen den bat eta non hasten bestea. Zilegi izango da, agian. Baina dotore, ez.

ai, ene!



Eztei-pastelaren gakoa: emaztegia bezalakoa

Texasko emakume horren ametsa zen bere irudiko panpina izatea eta eztei-pastelako panpina bere modukoa eginez bete du ametsa.

<http://tinyurl.com/259y3f>



%20

%30

%40

Kalitatezko ametsak

beds[®]

Koltxoi dendak

BEHERAPENAK



12€-tik aurrera /hilean